E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca
Travaux et actes de L'Academie Royale de la langue Basque

Euskera XXIII (2. aldia)
1978-1 (Urtarriletik-Ekainera)
BILBO

30 JUN. 1979

E U S K E R A

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Euskaltzaindiaren lan eta agirirak
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca
Travaux et actes de L'Academie Royale de la langue Basque

Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXIII (2. aldia)
1978-1 (Urtarriletik-Ekainera)
BILBO

A. G. ELKAR, S. Coop. - G. Balparda, 71-Bilbao
Dep. Leg. BI-3107-1978

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

EUSKALTZAINDIA

Mila bederatzirehun eta hirurogeita hemezortziko martxoaren seian Eusko Kontseilu Nagusiak egin zuen batzarrean, Hezkuntza eta Kultur kontseilarien proposamenduari jarraiki, akordio hau hartu zen:

1. Lau Probintzietako Diputazioen tradizioa Kontseilu Nagusiak bere gain hartzen duelarik eta Estatuak Euskaltzaindia eta honen helburu eta funtzioak onartzen dituela ikusirik, Gorporazio agurgarri hau Euskal Herri mailan organo ofizialtzat hartzea erabakitzen du euskara landu, zehaztu eta batzeko arazoetarako; bidenabar, Kontseiluak Euskaltzaindiari laguntza eskatzen dio bere zereginak ahal denik ondoena betetzeko.

2. Eusko Kontseilu Nagusiak gaurgero bere eskutan dauden neurri praktikoak hartuko ditu Euskaltzaindiaren lana babesteko eta erakunde honen helburu prestu eta garaiei dagokien ohorea, hedakuntza eta indarra emateko.

3. Aldizkaria bi hizkuntzatan argiratzeko erabakia bete asmoz, Kontseiluak Euskaltzaindiari eskatuko dio Kontseiluko itzultzaile ofizial gisa kandidatuak aurkez ditzala. Ondoren, kandidatuen artetik bat izendatuko da egiteko hori betetzeko. Itzaultzaile ofiziala izendatu ondoren, itzultzaileen Ganbara antolatuko da Itzultzailearen ardurapean, berau buru delarik.

4. Itzulpen lanak betetzeko behar den presupostua egiteko, Ekonomi eta Herri-finantza kontseilariari eskubide osoa ematen zaio.

Kontseiluaren izenean dudan karguagatik eta beronek honela agindurik, Dekretu bihurtzen da. Donostia, mila bederatzirehun eta hirurogeita hemezortziko martxoak hamairu.

Presidentea,
RAMON RUBIAL CAVIA

Hezkuntza kontseilari,
CARLOS SANTAMARIA ANSA

Kultur kontseilari,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

En sesión del Consejo General del País Vasco celebrada el día seis de marzo de mil novecientos setenta y ocho, a propuesta de los consejeros de Educación y Cultura, se adoptó el siguiente acuerdo:

1.º El Consejo General asumiendo la tradición de las Diputaciones de las cuatro provincias y el reconocimiento por parte del Estado de la Real Academia de la Lengua Vasca, y de los fines y funciones de la misma, acuerda adoptar a esta culta Corporación como órgano oficial del País Vasco, para la conservación, cultivo, fijación y unificación de la lengua Vasca y solicitar de la Academia toda la colaboración necesaria a efectos de la acción del Consejo.

2.º El Consejo adoptará en el futuro cuantas medidas prácticas estén a su alcance para proteger la labor de la Academia y dar a esta Institución la dignidad, amplitud y eficacia que sus altos y nobles fines requiere.

3.º A fin de poder dar cumplimiento del acuerdo de la publicación del Boletín Bilingüe del Consejo, éste solicitará de la Academia de la Lengua Vasca la presentación de uno o varios candidatos para ocupar el puesto de traductor oficial del Consejo, y en base a esta misma propuesta efectuará la correspondiente designación. Así mismo una vez nombrado dicho traductor oficial efectuará, a propuesta de éste, los nombramientos necesarios para la organización de un Gabinete de traducción que funcionará bajo la inmediata dirección y responsabilidad del traductor.

4.º Se faculta al Consejo de Economía y Hacienda para consignar en presupuestos las partidas necesarias para el cumplimiento de cuanto antecede.

Lo que en virtud de la representación que del Consejo ostento, y por mandato del mismo, se eleva a Decreto en San Sebastián a trece de marzo de mil novecientos setenta y ocho.

El Presidente,
RAMON RUBIAL CAVIA

El Consejero de Educación,
CARLOS SANTAMARIA ANSA

El Consejero de Cultura,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA

ENRIKE KNÖRR JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

PALABRAS DIRIGIDAS POR D. CAYETANO EZKERRA, PRESIDENTE DE LA DIPUTACION FORAL DE ALAVA, EN EL DIA DEL INGRESO EN LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-EUSKALTZAINDIA, DE D. ENRIKE KNÖRR BORRAS

Gasteiz, 1978 - IV - 28

Sr. Presidente, P. Villasante

Sr. Consejero de Cultura del Consejo General Vasco

Sres. Diputados

Señores Académicos

Señoras y Señores:

En diciembre del 76 se reunía en esta Sala de Juntas Generales, la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

En aquella ocasión se rendía homenaje al catedrático e investigador alavés D. Odon de Apraiz, que se encuentra entre nosotros.

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, cumple este año 60 de su existencia, desde que fue creada con el patrocinio de las cuatro Diputaciones Forales.

Entonces, y como uno de los primeros académicos, se presentó a Alava el Padre Olabide, que ha sido hasta ahora el único alavés, académico de número de vuestra Institución.

Hoy, fiesta de nuestro Santo Patrono San Prudencio, os reunís aquí para honrar a Alava nombrando a otro alavés, Enrique Knörr, persona vinculada a nuestro Consejo de Cultura y a nuestra hoy Facultad de Filosofía y Letras, académico de número de esta ilustre Real Academina de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

Sed pues bienvenidos a Alava y a esta casa.

La Diputación Foral de Alava ha tenido muy presente nuestra lengua milenaria, nos ha preocupado su desarrollo y

lo hemos facilitado a través de nuestro Servicio de Vascuence y de sus Ikastolas, así como por las ayudas y colaboraciones a centros e instituciones que se preocupan por el fomento de nuestra lengua vernácula.

Este entrañable acto me lleva al recuerdo de que la Diputación Foral aprobó que la lengua vasca fuera declarada Patrimonio cultural de nuestro territorio histórico; lengua cooficial de nuestra Administración foral y crear en el entonces Colegio Universitario, hoy Facultad de Filosofía y Letras, una cátedra de Filología Vasca que dirige el profesor Michelena, ilustre catedrático y primera autoridad científica de la materia de quien nuestro nuevo académico es profesor adjunto.

Muchas gracias, P. Satrustegi, por sus palabras para esa Diputación y su Consejo de Cultura.

E. Knörr jauna euskaltzain sarrera hitzaldia ematen.

En esta fiesta de nuestro Patrono deseo que como angel de la Paz, traiga a nuestras tierras para bien de nosotros el desarrollo cultural del trabajo siempre ejemplar del País Vasco y de la convivencia de todos nosotros.

En esta fecha os puedo prometer que la Diputación Foral de Alava seguirá en la línea de fomentar el conocimiento de nuestra lengua euskara.

Y para terminar deseo a esta Academia de la Lengua Vasca la mayor prosperidad y le felicito por su 60 cumpleaños.

Y al amigo y profesor Enrique Knörr Borras con todo cariño.

ZORION BEROENAK LAGUN BERRIARI ETA ESKERRIK-ASKO DENOI

E. KNÖRR JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Gasteizen, 1978 apirilak 28

Euskaltzainburuaren agurra

Cayetano Ezquerra, Arabako Diputazioaren lehendakari jauna

J. A. Maturana, Kulturako kontseilari jauna

Arabako agintari leialak

Euskaltzainkideak

Jaun-andreak:

Arabako lurralde maite hunetan eta San Prudentzio, Arabako Zaindariaren egunean, hain zuzen, batzarre ageria egiten du Euskaltzaindiak, arabar baten sarrera ospatu nahirik.

Euskaltzaindiak, egia esan, beti ezagutu izan ditu arabarrak bere barnean, sortze egunetik beretik. Sortu zen garaian, euskaltzain osoak hamabi ziren, eta hoien artean bazen arabar bat: Aita Olabide, Gasteizko semea. Orai ere ohorezko euskaltzainen artean hor da Odon Apraiz jauna, Arabako euskarari buruz hainbeste azterketa egina den jaun jakintsua.

Eta euskaltzain laguntzaileen artean arabarrak ez dira gutti. Hor daude, diodanaren lekuko, Manuel M.ª Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren, Gerardo López de Guereñu, Peli Martin, Antonio Barrueta, etab.

Baina hau ere aitortu beharra dago: hutsune ageri bat nabari zela aspaldidanik euskaltzain osoen artean. Euskal Herriko beste euskalki eta eskualde guztiek beren ordezkari edo mandatariak zituztelarik, Araba bat ere gabe zegoen. 1942an Aita Olabide, han Frantziako Tolosan hil zenetik, Arabak ez du euskaltzain osoen artean ordezkaririk izan. Eta hutsune hau bete-beharra zen. Hala ikusi eta aitortu zuen Euskaltzaindiak berak eta batzarre batean erabaki zuen

lehen hutsartea gertatzen zenean, ahal baldin bazen behintzat, hutsarte hori arabar batekin hornitu behar zela.

Eta hala egin ere du. Antonio Arrue euskaltzain jaunaren hutsartea betetzeko Enrique Knörr jaun arabarra hautatua izan zen. Eta gaur ospatzen dugu euskaltzain berri hunen Euskaltzaindian sartzea. Edo guztiz oker naiz, edo gaur lehenbiziko aldiz ospatzen da Arabako lurretan euskaltzain oso baten sarrera. Bestelako batzarreak, bai, egin izan ditu Euskaltzaindiak Arabako lurretan, hala nola Akademiaren Urrezko eztaietakoa Gasteizen (1969), Ulibarriren omenez Okondon (1975), Gamiz-en omenez Sabandon eta Gasteizen (1973), Aramaion ere egin zuen beste bat (1971), Odon Apraizen omenez beste bat, etab. Baina euskaltzain oso baten sarrera ospatzeko ez, nik dakidala. Xehetasun hau ere gogoan hartzekoa dela uste dut.

* * *

Excmo. Sr. Presidente de la Diputación Foral de Alava

Sr. Consejero de Cultura, J. A. Maturana

Sres. Diputados y autoridades

Miembros de Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua vasca

Señoras, Señores:

Hoy, creo que por primera vez en su historia, la Real Academia de la Lengua Vasca celebra en tierras de Alava un acto solemne de recepción de un académico de número, y lo hace en esta casa de la Provincia y en el día de su patrón San Prudencio.

No quiere esto decir que Euskaltzaindia no haya tenido en su seno académicos de número alaveses hasta hoy. Desde el momento mismo de su fundación contó con un ilustre alavés, hijo de Vitoria, académico de número, traductor de la Biblia al vasco: el P. Raimundo Olabide. Pero, claro está, aquellos primeros académicos —que fueron doce—, por tratarse de los fundadores, no celebraron individualmente su entrada en la Academia, con su discurso de recepción y demás ceremonial, ya que no tenían antecesores que los pudieran recibir. El P. Olabide murió en Toulouse (Francia) en 1942, y,

dadas las circunstancias críticas por las que pasaba la Academia en aquellos años, de momento no se pudo pensar en proveer su vacante con otro alavés.

No obstante, nunca han faltado miembros alaveses en nuestra Institución. Entre los académicos de honor figura el Sr. Odón de Apraiz, verdadero patriarca de la cultura vasca en esta tierra de Alava. Y entre los académicos correspondientes tampoco escasean los alaveses. Quiero recordar en estos momentos los nombres de Gerardo López de Guereñu, Patxi Uribarren, Peli Martin, Manu Ruiz Urrestarazu, Antonio Barrueta, etc.

Pero sí es verdad que hasta ahora había un vacío sensible, puesto que mientras todas las otras regiones y dialectos de Euskal Herria tenían su representante entre los miembros de número de nuestra Institución, Alava era la única que no lo tenía. Consciente de ello la Academia en una sesión acordó que, tan pronto como se produjera una vacante, se debía hacer lo posible para cubrirla en la persona de un miembro alavés. Y así lo hizo al producirse la vacante del académico Sr. D. Antonio Arrue —que en paz descanse—.

Recuerdo que con este motivo se dejaron oír en la prensa ciertas voces de crítica, a las que ya entonces me vi obligado a responder. Decía el anónimo objetante que en la Real Academia de la Lengua Vasca no tienen por qué estar representadas las regiones políticas, sino tan sólo los dialectos de la lengua vasca; que Alava no tuvo un dialecto vasco específico suyo, distinto o peculiar, ya que el vasco que aquí se habló pertenecía al dialecto vizcaíno y que, por tanto, habiendo en la Academia representantes de este dialecto, no había necesidad de más, etc.

No negaré que hay en esto una parte de verdad. Ciertamente la representación en nuestra Academia es por referencia o relación a la lengua en sus distintas variedades. Pero ¿podía la Academia ignorar por más tiempo la personalidad tan característica de este país de Alava? ¿Podía olvidar que la Diputación Foral de Alava fue cofundadora, juntamente con las de Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, de Euskaltzaindia, y que en los momentos más difíciles ella ha encontrado aquí un apoyo, una comprensión y ayudas muy reales y muy de recordar? ¿Podía, en fin, desconocer el interés y preocupación muy

vivos que por el cultivo y recuperación del viejo idioma se deja sentir hoy en Alava?

En cuanto a la razón del dialecto, es cosa sabida que este problema de la clasificación de los dialectos vascos dista mucho de ser una cuestión de ciencias exactas. Cierto que el Príncipe L. L. Bonaparte, Resurrección M.ª de Azkue y otros incluyeron la variedad vasca de Alava dentro del llamado dialecto vizcaíno. Pero más recientemente el Pr. Luis Michelena —cuya autoridad en achaques de dialectología vasca nadie discute—, opina que el vasco que un día se habló en Alava debe ser considerado como dialecto aparte, que él llama "dialecto meridional" (Véase *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián 1961, p. 42).

De todas formas, si el vasco que se habló en Alava era vizcaino, nuestro nuevo académico Sr. Knörr estará en la Academia en nombre de este dialecto, y si era un dialecto distinto, lo estará en nombre de este dialecto específico alavés. Ya he dicho que en estas cuestiones no se han de buscar certezas matemáticas porque la naturaleza del fenómeno linguístico no lo permite.

Y ya que hemos tocado este tema de los dialectos y variedades que se dan dentro de la unidad innegable de la lengua vasca, no estará de más decir una palabra sobre el gran quehacer al que hoy la Academia concede atención preferente: nos referimos a la constitución de una lengua literaria común. Una referencia, siquiera sea brevísima, a este tema se hace tanto más necesaria cuanto que con frecuencia esta obra de la Academia no es bien comprendida ni interpretada.

Desde que Euskaltzaindia fue fundada, allá en los años 1918-1919, gravita sobre ella esta encomienda o quehacer que en los mismos Estatutos fundacionales se le asignó, a saber, el encargo de trabajar preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común. Al decir estas palabras no hago sino repetir textualmente un párrafo de los Estatutos fundacionales de la Academia (Estatutos de 1920, art. 6.º a). Precisamente fue el vitoriano P. Olabide quien redactó estos Estatutos.

No quiere esto decir que la Academia se constituye —co-

mo parece que a veces se quiere hacer creer —en adversaria de los distintos dialectos hablados o escritos. No, ni mucho menos. Pero salta también a la vista la necesidad que tiene el euskara de poseer una lengua literaria común. Sin este instrumento, en la compleja civilización de hoy el euskara apenas podría tener futuro alguno.

Este instrumento, por otra parte, como nos lo recordaba el texto citado de nuestros Estatutos, debe hacerse nutriéndose de la savia de todos los dialectos, es decir, basándose ante todo en aquello que es común a la lengua misma, tal como la conocemos por la historia, actualidad, autores, etc., de modo que todos los vascos puedan sentirlo como propio. Sin este instrumento el euskara no puede ser eficazmente introducido en la escuela ni difundido. Es, en fin, una necesidad de vida o muerte la que lleva a la Academia a conceder atención preferente a esta tarea. Durante estos años, como es sabido, ella va proponiendo diversas normas directivas en cuanto a ortografía, léxico, declinación, conjugación, etc., con el fin de llegar a la formación y consolidación de este lazo común entre todos los vascos. El próximo mes de septiembre se celebrará en Vergara un magno Congreso que tendrá por objeto hacer un balance y someter a crítica la labor realizada estos años en este terreno y programar la que queda por realizar.

Se comprende que en la práctica haga falta una mano delicada cuando en la enseñanza sobre todo se presentan casos de interferencia con el habla viva peculiar de una localidad o con los dialectos literarios. Pero esto no invalida en absoluto la trascendencia y urgencia de esta labor, que la Academia realiza en cumplimiento de una misión sagrada que se le asignó en su misma acta fundacional.

Por lo demás, no me toca a mí enumerar los méritos que concurren en el nuevo miembro, Sr. Enrique Knörr, que hoy es recibido en Euskaltzaindia, pues esto lo hará su padrino en la ceremonia, que es el académico navarro Sr. José M.ª Satrustegui.

Sólo me resta agradecer vivamente a la Excma. Diputación Foral de Alava por la acogida calurosa con que nos ha recibido y por el apoyo, protección y favor que dispensa a todas las iniciativas que de algún modo se refieren al fomento e incremento de la lengua y cultura vascas en esta entrañable tierra de Alava.

ENRIKE KNÖRR-EN SARRERA HITZALDIA

Ezkerra Diputazio lehendakari jauna!

Aita Villasante Euskaltzainburu jauna!

Maturana Eusko Kontseilari jauna!

Euskaltzainkideok!

Jaun-andere guztiok!

Agur!

Antonio Arrue zendu zenean, zenbait euskaltzainek pentsatu zuten ordua etorria zela, Arabak euskaltzain oso bat berriro izan zezan, gure Ulibarrik, Euskaltzaindia sortu baino ehuntsu urte lehenago eskatzen zituen hogeitalau gizonen artean.

Asmoa ez zen txarra. Baina hara ni, herabe eta beldurño, merezimendu gabea, lagunarte hontara ekarria, euskaldun batek izan ahal duen ohore handienetako batez hornitua. Onartu dut, hala ere, sari eta ziri den izendapen hau, Azkuek esan zuen bezala. Mila esker zuen onginahiagatik eta otoi har nazazue zerbitzari ttipiena eta obligatuena, Axular handiaren hitzez esateko.

Eta nahi nieke, luza gabe, neure esker ona agertu ere, euskara nereganatzen aldez edo moldez lagundu nauten guztiei. Eta espreski aipatuko ditut hemen J. M. Barandiaran apaiz jauna eta haren ilobak, *Perunezaharra* deitzen den bere sortetxean etxeko hartu nindutelako. Orobat Indusiko (Dima) Klaudio Puxana zena, hain gazterik hila, eta haren alarguna gogarazi nahi ditut.

Ezer baldin bagara, gure aurretik euskaltzale suharrak izan direlako da, Euskal Herria bihotz-bihotzez maite izan duten jendeak, eta Euskal Herriaren alde lan egin dutenak. Horienganako nola ez agertu geure esker ona, nola ez hartu haintzat denbora latzetan egindako lan gaitza!

Areto hontaraino Odon Apraiz euskalari eta euskaltzale handia ekarri dut besalagun. Eta neronek ekarri nahi izan

dut, inolako ordeko gabe. Berak eraman nau askotan besalagun euskal ikerlanetan gidari ezin trebeagoak. Eta orain, begiak ia zeharo lausotu zaizkionean, agertu nahi izan diot berari ere neure esker ona. Hirurogei urte betetzen dira aurten, Oñatiko Batzarre Nagusi hura egin zela: inor gutik daki hura egitea Odon Apraizi bururatu zitzaiola. Eta Odon Apraiz izan zen haste-hastetik euskaltzain laguntzaile, zinez laguntzailea, eta herbesteko Unibertsitateetan Hizkuntzalaritza ikasketak hedatzeko Euskaltzaindiak diruz lagundua. Odon Apraizen argitaratuak eta argitaragabeak laster izango ditugu kalean, haren gutuneria eta euskaltzale andana batek eskaini gorazarre-liburuarekin batera, Arabako Diputazio Kultur Sailak babestu duen argitalpen batetan.

Euskaltzain berri bat sartzean, karguan bere aurrekoak aipatu behar izaten ditu. Pozik egingo dut nik egiteko hau. Eta Aita Olabide eta Antonio Arrue aipatzea dagokit.

Aita Olabide hemen sortu zen, 1869-ean. Urduñan egin zituen bere ikasketak (hura baino lau urte zaharragoa zen Sabin Aranak bezala) eta hamabost urte zuela Jesusen Konpainian sartu zen. Salamancan ikasle, Campionek bere Gramatikan idatzi zuen esaldi zorrotz hura irakurri zuen Olabidek:

"Orduan lotsatu nintzen, zainetan euskal odola izaki, euskaldunen mintzaira ez ezagutzeaz".

Tximistak joa bezala, berehala ekin zion euskara ikasteari: biziki ongi ezagutzera iritsi zen, nahiz eta aise mintzatzeko gauza sekula ez izan (atzo berean Aita Damaso Intzak esaten zidan moduantxe). Bi itzulpen egin zuen: bata Iñigo Loiolakoaren *"Gogo-iñarkunak"*, eta bestea Jesukristoren Imitazioa. Orobat *"Giza-soiña"* liburua. Jakintsu genuen Aita Olabide lexikografia alorrean eta hor da lekuko Oñatiko Batzarre hartan irakurri zuena. Baina bere biziko lana Biblia itzultzea izan zen. 1931-erako Testamentu Berria argitaratua zuen, Axularrek *"Gero"*-ren lehen partea bezala, *"berri jakitera bezala aitzinerat igortzeko"*. Testamentu Zaharreko eskuizkribuak galtzeko zorian izan ziren Gernikako bonbaketagatik. Egun hits lazgarri hartan, Aita Olabidek sirenen uluak entzun zituenean, presaka irten zen etxetik. Baina ihesbidean oroitu zen eskuizkribuez, bila joan eta salbatu. Herbestean eman zituen bere hondar urteak. 1942-ean hil zen,

kaleko ixtripu batez, kamioi baten zamak joa. Gizon argia eta apala, euskara kontuan garbizalea, baina urteak joan urteak etorri gero eta irakurleei egokituagoa. Euskaltzain osoa zen Aita Olabide Euskaltzaindiaren sortzetik beretik eta lan handia egin bertan. Gure Erakundearen Arautegia hark idatzi zuen.

Antonio Arrue zenaz denok gara oroitzen, ez bait da hain aspaldikoa haren heriotzea. Asteasuarra zen, Lekarotzen eta Oviedon ikasia. Pentsamoldez, Zamarriparen izengoitiaz esango dizuet: *Zarrontzale*. Euskara maite zuen, hizlari jajoa. Haren hitzaldi batzuk *Egan*-en dira, zuzendarikide zen aldizkarian. *"Jan-edanak"* deitzen zen haren sail kutuna. Arrue zintzo-zintzo etortzen zen Euskaltzaindiaren batzarreetara, ia hutsik egin gabe. Eta Euskaltzaindia zorretan dago harekiko,-hark egindako ahaleginengatik, azkena gure legenortasuna lortzeko.

Eta orain, Arabako euskaltzale eta euskaltzain laguntzaile gartsu batez aritu nahi dut llabur: Federiko edo Perderika Belaustegigoitia (1876-1947).

Laudion sortu zen, hamabi anaiarrebaren artean bigarrena. Familia berehala aldatuko zen Bilbora, Laudiora udaldietan itzuliz.

Umetan ezagutu zuen Sabin Arana, aitak berarekin eramaten zuelako (1). Arana eta Olabideren moduan, Urduñako Jesuiten Kolegioan ibili zen ikasten. Gero, El Escorialen (Bonifazio Etxegarai eta Manuel Azaña eskolakide izan zituelarik), Deustuan, Zaragozan eta Madrilen, Filosofia eta Zuzena karrerak burutuz.

Erdalduna zen sortzez Belaustegigoitia (Laudion garai hartan, Goikoplazan eta Gardean soilik hitz egiten bait zen euskaraz). Baina laster ikasi zuen: bere bizi guztian euskararen alde saiatu zen, eta orobat Euskal Herriaren politika-eskubideen alde.

Gazte-gazterik hasi zen Sabin Aranaren *Baserritarra* astekarian lanean (1897). Hemezortzi ale kaleratuak zirenean, horra non debekua. Zergatik? Belaustegigoitia odol beroaren artikulu batengatik. Abuztua da eta Aranak Belaus-

---

(1) Sarrera egun hartantxe, alabek esan zidaten umetan ez, gaztetan baizik ezagutu zuela Belaustegigoitiak Arana, hots, Deustuan ikasle zebilelarik.

tegigoitia Bilbora etor-arazi du: zer dela eta? Epailaria haren bila dabil eta preso altxatuko zuen. Beste bi aldiz ere espetxeratu izan zen gero.

Mila bederatzirehun eta zazpian: Bilboko Arenalean manifestaldia: odola ez zaio epeldu Belaustegigoitiari. Honek "Hil bedi Espainia!" oihukatzen du. Ondorioz, iheska eta izkutuka ibili beharko. Eta nora egin ihes? Durangora. Baina to! Han, bertako neska batez maitemindu zen eta ezkondu. Durangon bizi zen geroztik, gudaterarte.

Eleizalde-ren oso adiskidea, *JEL* eta *Euzkadi* aldizkarietan idatzi zuen Belaustegigoitia euskaltzale porrokatuak.

Euskara beti ere izan zuen gogoan, haren iraupena eta batasuna. Bospasei ikasbide moldatu zuen, haietako bitan bi bide goxo erabiliz: batean musika eta bestean loteria.

Eskolak ere (erdalduntze eta kristaugabetze bideak zirelako) beti izan zituen kezka-iturri.

Euskaltzain laguntzailea Euskaltzaindiaren haseratik, gure *"Arau nagusiak"* idatzi zituen, eta Sariketa Batzordean parte hartu. Durangon zinegotzia (edo kontzejala) izan zen eta bertako Batzokian euskal irakasle.

Etxe polita bazuen hantxe, orain alabak bizi diren bera. Baratzea oso maite zuen eta askotan, seme-alabek, txantxetan, leihotik esaten zioten latin ikasi berrian: *"Pater noster agricola est"*.

Durangoko bonbaketan, sarraski hartan, alabatxo bat hil zitzaion. Biharamunean, Baiona aldera joateko prestalanean hasi zen: aurrena emazte-haurrak igorri, geroxe bera haiengana biltzeko. Haren etxea laster bereganatu zuten etsaiek, liburu guztiak etxe aurrean erre ondoren.

Ez zen, haatik, lanean geldituko: beste bi ikasbide moldatu zuen Belaustegigoitiak Baionan bizi zenean. 1941.ean Bilbo aldera itzuli ahal izan zuen eta Areetan kokatu. Euskaltzaletasuna hil arte eraman zuen gogo-bihotzetan. Alabek kontatu didatenez, Madrilen, tabernako zerbitzariei euskaraz hasten zitzaien. Pentsa! Gerra ondoko urte beltz haietan!

Eta 1947.ean hil zen gure gizona.

Esan dezagun orain bi hitzño haren idazlanez:

— *Baserritarra* astekaria aipatu dugu.

– Orobat *Euzkadi* eta *JEL*. Azken hontan, "Nacionalismo Social" izeneko lana argitaratu zuen. Etorkinen arazoa ukitzen du bertan. Baita Euskal Herriak behar duen burujabetasuna. Funtzionarioen kontra hitz gogorrak esaten ditu. Izendatzeko bide bat aurkitu zuen: "ijito zibilizatuak".

– *"Por la lengua nacional vasca"*. Hitzaldia. 1909.

– *Euskerazko ikasbide erraza*. Bilbo, 1912.

Azkenean, euskaltzaletasuna pizteko zenbait orrialde, eta zina:

"(Fulano de Tal)... me comprometo a demostrar dentro de ...(seis...doce meses) a partir de esta fecha, mi suficiente conocimiento... ante el Tribunal de Juventud Vasca de Bilbao, el Batzoki o Sociedad de Tal, o B.B.B. Caso de no comparecer para esa fecha, pagaré una multa de pesetas (2, 5, 10, etc.) que dicha entidad destinará a premios y otros gastos de los exámenes de euzkera."

Epeak jartzea, beraz, ez da oraingoa.

– *"Para todas las villas y para todos los euskaltzales"*.

Haur-sariketarako diruaren beharraz. *Euskal Esnalea*, 1912.

– *"De unificación euskérica: una opinión y un proyecto"*.

Eleizalderi eskainia. Airea edo ura bezain beharra dugu batasuna. 1914.

– *La unificación del euzkera*.

Biziki ongi ematen ditu arrazoinak eta hark proposatzen duena ez da gaurko euskara batutik urruti. Liburuska hondarrean, ohar bat, ohar zentzudun bat: esaten du 100 ale bakarrik argitarazi duela eta horra zergatik:

"Nos dirigimos sólo a los euskerólogos y a ellos solos, no aspirando a una mayor publicidad que pudiera halagarnos, dándonos cierto lustre de reformadores ante el público indocto, porque la intromisión de éste en tan delicada cuestión nada resolvería; al contrario, es posible que al caer este trabajo en manos de personas poco preparadas para entender en problema tan complejo, se provocasen protestas e indignaciones extemporáneas que sólo a perturbar la serenidad de juicio condujeran".

Guk batasun hauzian aholku hau hartu izan bagenu!

Liburua, ordea, ez zitzaion *Euskeltzale Bazkunari* atsegin izan eta Elkarte beronek (agian Arriandiagak berak) beste liburu bat argitaratu zuen batasunaren kontra.

Mindurik, Belaustegigoitiak irri-idazki bat idatzi eta argitaratu zuen Madrilen, *"La cuestión de los dialectos en la República de..."*, Odon Apraizi esker eskuratu nuena eta laster ezagutaraziko dudana.

— *"Umetšoentzat"*.

Ipuin llaburrak dira. *Euskal Esnalea*, 1918.

— *Andoni Deunaren Bizitza.*

Liburutxo bat. "Euskaratua" dio azalean, baina ez zer liburutatik. 1918.

— *"Arau nagusiak"*.

Euskaltzaindiaren xedeak.

"Euskera bardindu, garbitu eta aberastea... jakintza hutsezko gai ta lanetan ez da Euskaltzaindia galdu bear".

Gipuzkera proposatzen du oinarri. Eta ausardia ez zuen galtzen: erdaratiko hitz errotuak bakean utzi! Nazioarteko terminologia onartu behar zela.

— *"Euskerazko eskolak"*.

Durangon egin zuen hitzaldia, 1921.

Buruzabal ageri zaigu:

"Euskaltzaindia euskerearen alde lan egiteko sortu zan; Euskaldun guztien, bai nazionalista, bai jaimista, bai tradizionalista, Alderdi guztietako euskaldunen izkera garbia dan Euskera jasotzeko".

Eta, beti legez, gogor fraide, monja eta estadu ikastetxe erdaltzaleen kontra:

"Euskal Erria iltzeko ta zikintzeko baizik ez dira etxe oriek.

Geure gauzai deutsen gorroto biziaren zio ta zergatia argiro erakusten dauskue *gorriak*, euren buruai aurreratu ta aurrerazale deitzen deutsen gizonak (erbestetarrak geienak); euren ustez, euskerak dau errua, euskaldunak elizkoi, basati, progreso ta zebilizaziñoaren arerioak izatea... Utikan gure lepoz bizi dan eskoletako erdalkeria!".

— *"Esakun txorta".*

Esaldi labur mamitsuak dira.

— *Nacionalismo y confesionalidad.*

Hitzaldi batzuk. 1911.

— *Historia de una mujer vasca.*

Elaberria, urte berekoa. Gaia: erdal kolegiotik pasa den neska baten kondaira. Lotsatu egiten zen euskaraz eta euskaldun izateaz, Irlandako neska abertzale bat topatu arte.

— *Para aprender el euskera cantando.*

1932. Piano jotzen ederki zekien Belaustegigoitiak eta musika zergatik ez erabili euskal ikasbide?

— *Hacia una lucha de verdad pro-euskera.*

1936. Erdaraz idatzi zuen liburu ederrena. Haren pentsakera eta mezuaren bilduma bikaina.

Hona zenbait puntu:

— "El euskera es nuestra lengua; el erdera es para nosotros sumisión y para ellos conquista, acaparamiento de empleos, botín, reparto político y social de un pueblo".

— Borroka hontan alde ala kontra izan behar da. Ez da beste biderik.

— Euskaraz hitz egin behar du euskal ikasleak lehen egunetik, erdarari uko eginez. Ikasbide onak behar ditugu.

— "Cuantos se reputen de vascos, vivan junto al Nervión o junto al Ebro, deben hacer cuestión de honor el aprender el euskera".

— "Los vascos sin euskera, en especial los llamados patriotas... viven en pecado habitual, en lucha contra el idioma patrio; son como los soldados del erdera".

— "Ezkontzera zoazen emakumea, ez duzu ahaztu behar: euskara gabeko emakumea, familia erdaldun eta arroztua."

— Erdal giro eta ingurua badugu, berdin da. "Ez dut ezagutzen ingles familia bateko seme-alabarik, sorterritik bizi izan arren, inglesez ez dakienik".

— Ikastolak sortzeko oztopoak ikusirik, euskara erdal kolegioetan sartzearen alde dago. Eta dio: Zer indar handi, eskoletako gurasoak bilduko balira!

— Garbizalekeria behin eta berriz erasotzen du:

"...y se quiere lograr la propagación del euskera mediante una literatura difícil y oscura, de mínima circulación y en competencia ridícula con la literatura erdérica que nos inunda, abundante en escritos interesantes, de lenguaje popular claro y uniforme, en los que nadie se empeña en llamar con nombres nuevos y desconocidos a la iglesia, a la misa, ni al cura, ni al altar... ni a la calle, ni al reloj, ni a la hora...".

Ez zitzaion orduan komenigarria iruditzen euskara hutsezko egunkari bat sortzea. Hobe erdarazko egunkarietan euskaraz kazetaritza bizia egin eta ez "algunos cuentos, Vidas de Santos o biografías al azar, sin relación alguna con el día, disquisiciones filológicas y comentarios de alguna noticia trasnochada".

— Euskaltzaindia ez da inongo alderdira makurtu behar politikan:

"Contra el parecer de estimables correligionarios, yo no considero como defecto la neutralidad política de la Academia".

— Euskal Idazleen Elkarte bat proposatzen du, idazle eta euskeraren onetan gertatu behar zena.

— *Loteria vasca.* 1936.

Jostatzen euskaraz ikasteko.

— Eta beste bi ikasbide, Baionan eginak:

Nire laguntxoa eta *Euskeraz ikasi nai dot.*

Abertzale, euskaltzale eta gizon zintzoa, bada, orduko idazlea, baina gaurko kezkak eta koskak.

Idazlanok biltzen eta batera argitaratzen saiatuko naiz, merezi bait dute.

Mila esker guztioi.

RESUMEN DEL DISCURSO DE INGRESO DE E. KNÖRR EN LA ACADEMIA

(Como es lógico, la lengua académica de nuestra corporación es el euskara. En atención a los que desconocen esta lengua, se ha preparado este resumen.)

Al poco de producirse el fallecimiento de Antonio Arrue (q.e.p.d.), algunos académicos pensaron que había llegado la hora de que Alava volviera a tener un representante entre los 24 miembros de número, esos 24 que reclamaba nuestro Ulibarri de Okondo en verso, casi un siglo antes de fundarse la Academia:

Hogetalau gizon
behar dira izentau
Gernikako batzarrean
euskeraren gainean
egiteko ahalegin hau.

("Deben ser nombrados veinticuatro hombres en la Junta de Gernika para llevar adelante este empeño en torno a la lengua vasca.")

La idea de devolver a Alava un puesto era excelente, pero me temo que su realización no lo sea tanto. En efecto: mis méritos no están muy acordes con este nombramiento, una de las mayores satisfacciones que puede recibir un vasco. He aceptado, con todo, este *honor et onus, sari eta ziri*, como dijo Azkue en el momento de su toma de posesión como presidente. Gracias por vuestra confianza y aceptadme como el *zerbitzari ttipiena eta obligatuena* (el servidor más pequeño y más obligado), para decirlo con palabras de Axular.

Quisiera también, sin esperar más, expresar mi reconocimiento a todos cuantos, de un modo u otro, me han ayudado a recuperar la lengua en que os hablo. Mencionaré expresamente a Don Jose Miguel Barandiaran y a sus sobrinos del caserío *Perune zaharra* (su casa natal), de Ataun, donde me

acogieron como uno más. También quiero tener un recuerdo para Klaudio Pujana, muerto tan joven, y su viuda, de Indusi (Dima).

Si somos algo es porque ha habido gentes que antes que nosotros han amado entrañablemente esta tierra y han trabajado por el euskara. ¡Cómo no vibrar y sentir agradecimiento por la labor llevada a cabo antes de la guerra! ¡Y cómo no no reconocer el trabajo de todos aquellos que después, en condiciones de extrema adversidad, han dado lo mejor de sí por el bien de nuestro pueblo!

He venido hasta aquí acompañando del brazo a don Odón de Apraiz, maestro de vascólogos. Y he querido hacerlo yo, sin que nadie me sustituyera, en prueba y como símbolo de agradecimiento hacia quien en tantas ocasiones me ha llevado a mí del brazo e iluminado en el estudio de numerosos aspectos de nuestra lengua y cultura. Se cumplen ahora los 60 años del Primer Congreso de Estudios Vascos: pocos saben que la idea fue de Don Odón. Y él fue desde el principio miembro correspondiente de nuestra Academia, activo colaborador de ella y becado por nuestra Institución en Universidades de Francia y Suiza para ampliar estudios de lingüística. Sus obras, tanto inéditas como las ya publicadas, así como un epistolario y una Miscelánea-homenaje ofrecido por sus discípulos y amigos, verán la luz este mismo año, bajo los auspicios del Consejo de Cultura de la Diputación foral alavesa.

Es costumbre en estos casos hacer una semblanza de los predecesores en el cargo: me toca a mí hacerla del Padre Olabide y de Antonio Arrue. Y cumplo gustoso con este cometido.

El Padre *Raimundo Olabide* nació en esta ciudad en 1869. Estudió en el Colegio de los Jesuitas de Orduña, como Sabin Arana (que era cuatro años mayor que él) y a los quince años ingresó en la Compañía de Jesús. Estando de novicio en Salamanca, quedó como fulminado al leer la frase que Campión escribe en las primeras páginas de su Gramática:

"Entonces me avergoncé de llevar sangre euskara en las venas y de ignorar la lengua nativa de los eúskaros".

Inmediatamente, se puso a estudiar la lengua vasca, que llegó a conocer muy profundamente. Suyas son dos traducciones, una de la Imitación de Cristo y otra de los Ejercicios Espirituales de Iñigo de Loiola, más la obra *"Giza-soiña"* (El cuer-

po humano). Pero el trabajo de su vida es la traducción de la Biblia. En 1931 había ya publicado el Nuevo Testamento. Los manuscritos del Antiguo estuvieron a punto de perderse en el bombardeo de Gernika, donde entonces vivía. Salido de casa huyendo al oír las fatídicas sirenas, volvió para recoger los manuscritos, salvándolos de la destrucción. Marchado al exilio, vivió en Tolosa (Toulouse) sus últimos años. En 1942 moriría a consecuencia de un golpe recibido por la carga de un camión. El Padre Olabide era persona inteligente y sencilla, y en su producción, pese asu excesivo purismo, se observa una creciente acomodación a la inteligencia de los lectores. Trabajó mucho por la Academia, cuyos Estatutos elaboró en aquellos primeros pasos.

A *Antonio Arrue* todos le recordamos, pues aún es reciente su fallecimiento. Había nacido en Asteasu, en 1903. Estudió en Lekarotz y luego leyes en la Universidad de Oviedo. Fue uno de los fundadores del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" y director de "Egan". Buen orador, publicó varias de sus conferencias sobre escritores vascos. Sobre gastronomía tenía una sección habitual en "Egan". Era difícil que Arrue faltara a una reunión de la Academia, a la que sirvió en varias e importantes ocasiones, la última de ellas en las gestiones para el reconocimiento legal de nuestra Institución.

Y ahora permitidme que hable de un alavés muy relevante en la historia cultural de nuestro pueblo: *Federico Belaustegigoitia Landaluze* (1876-1947). Había nacido en Laudio (Llodio), el segundo hijo de una familia que iba a ser numerosa. Muy temprano pasarían a residir a Bilbao, salvo los periodos veraniegos.

Muy niño, conocería a Sabin Arana (1), pues su padre visitaba con frecuencia al abandoarra. Como Arana y como Olabide, Belaustegigoitia estudió en los Jesuitas de Orduña. Hizo sus estudios universitarios en El Escorial (donde tuvo como condiscípulos a Bonifacio Etxegarai y Manuel Azaña), Deusto, Zaragoza y Madrid, donde terminó las carreras de Derecho y Filosofía.

---

(1) El mismo día del acto académico, las hijas de Belaustegigoitia me indicaron que su padre conoció a Sabin Arana siendo ya estudiante en Deusto.

Erdaldun de nacimiento (en su pueblo no se hablaba euskara más que en los barrios de Goikoplaza y Gardea), pronto lo aprendió, dedicando su vida a su fomento y a la recuperación política vasca. Empezó colaborando muy joven en la revista de Sabin Arana *"Baserritarra"* (1897), semanario que fue prohibido a los 18 números a consecuencia precisamente de un fogoso artículo de Belaustegigoitia. Además del cierre de la revista, Belaustegigoitia fue detenido: ésa sería una de las tres veces que pasaría por la cárcel.

En 1907 casa en Durango, villa donde fijó su residencia. Ese mismo año comenzó a colaborar en la nueva revista *"JEL"*, que dirigía Luis Eleizalde desde Vitoria. Posteriormente, escribió en la revista y en el periódico *"Euzkadi"*, en *"Euskal Esnalea"* y en la revista de la Academia, *"Euskera"*.

Es de destacar en Belaustegigoitia su preocupación por la enseñanza del euskara. Confeccionó varios métodos, uno de ellos para aprender con música y otro jugando a la lotería. Se preocupó también durante toda su vida de las escuelas, para que fueran cada vez menos extrañas al País. Sobre este tema disertó en Durango, con una conferencia que luego fue recogida en libro. No era hombre de medias tintas y expone el tema con toda su crudeza, aunque siempre con extrema sensatez.

Nombrado académico correspondiente desde los primeros años de Euskaltzaindia, figuraba en la Comisión de Concursos. En la revista de la Academia intervino dos veces: una con una proposición de Estatutos y otra sobre la unificación de la lengua, tema que toca también en varias obras. Finalmente, intervino como orador y escritor en política. Fue concejal de Durango, en cuyo Batzoki daba clases de euskera, y escribió una novela acerca de la conversión al amor al País de una mujer ("Historia de una mujer vasca").

Tras el bombardeo de Durango, en que perdió a una hija, se exilió, no volviendo hasta 1941 a Las Arenas por estar requisada su casa, delante de la cual se había hecho una hoguera que consumió sus libros. Durante su estancia en Bayona, escribió otros dos métodos de euskara.

Murió en Las Arenas en 1947.

Ensayo de Bibliografía

– *Colaboración en Baserritarra*, 1897.

– Colaboración en *JEL*, 1907. Aparece en varios números su conferencia *"Nacionalismo social"*. Este mismo trabajo aparecería después parcialmente en la revista *"Euzkadi"* y como libro. Se trata del tema de la inmigración y medidas de autogobierno.

– *Por la lengua nacional vasca.* Conferencia. Bilbao, 1909.

– *¿Quiere Vd. hablar en euzkera?* Sin fecha. Bilbao.

– *Euzkerazko ikasbide erraza.* Otro método. Bilbao, 1912.

– *Para todas las villas y para todos los euskaltzales.* Propuesta para ayudar económicamente al euskara mediante concursos, etc. Apareció en la revista *Euskal Esnalea*, 1912.

– *De unificación euskérica: una opinión y un proyecto.* Artículo dedicado a Eleizalde, de quien era muy amigo. En la revista *Euzkadi.* 1914.

– *La unificación del euzkera.* Libro con una proposiciones acerca del modelo a seguir, no alejadas de las de hoy. Bilbao, 1916.

– *La unificación de los dialectos en la República de...* Escrito satírico de una sola hoja. Es una respuesta al libro *Sobre la unificación del euzkera* que había publicado la *Euskeltzale Bazkuna* (seguramente Arriandaga) en contra de la unificación. La hoja de Belaustegigoitia es acaso de 1917.

– *Umetšoentzat.* Se trata de unos cuentos infantiles cortos. *Euskal Esnalea*, 1918, en varios números.

– *Andoni Deunaren bizitza.* Es una biografía de San Antonio. Dice "vertida al euskera", pero no dice de dónde. Zornotza, 1919.

– *Arau nagusiak.* Estatutos por los que debería regirse la Academia. En el órgano de la misma, *"Euskera"*, 1920.

– *Euskerazko batasunatzaz.* Sobre la unificación del euskera. A la vista de los males de la dispersión dialectal, que impide que haya relaciones y edición de libros. Plantea la cuestión en sus justos términos: "o vamos al único euskera, o

el erdera único nos sepultará". Propone una base guipuzcoana y huir del purismo.

En la revista *"Euskera"*, 1922.

— *Euskerazko eskolak.* (Sobre la escuelas vascas). Conferencia recogida en libro. Bilbao, 1922. Frases duras contra los Colegios privados, que en otro lugar llama "cementerios del euskera". Igualmente contra las escuelas estatales, antivascas y anticristianas. Llamamiento para luchar contra la castellanización, que vive a nuestra costa. Necesidad de un solo euskera y de nuevo contra el purismo.

— *Esakun txorta.* Pequeña colección de frases. En varios números de *Euskal Esnalea*, 1925 y 1926.

— *Nacionalismo y confesionalidad.* Varias conferencias. Bilbao, 1931.

— *Historia de una mujer vasca.* Bilbao, 1931. Primero publicada por entregas en *Euzkadi*, 1916. Escrita para las señoras y señoritas de la Sociedad *"Euskera-laguntza"*. Es el tema la extranjerización de una chica por los efectos del Colegio de monjas, y su conversión al amor al País sobre todo después de unas conversaciones con una patriota irlandesa.

— *Para aprender el euzkera cantando.* Zornotza, 1932.

— *Hacia una lucha de verdad pro-euskera.* Bilbao, 1936. Algo así como el compendio de su pensamiento y sin duda su mejor obra en erdera. Si algo suponemos ante el mundo, es sobre todo por nuestra lengua. "En la lucha de las lenguas, la neutralidad es imposible: se habla en una lengua o en otra. Todos y cada uno luchamos cada momento en pro o en contra de nuestro pueblo". Necesidad de generalizar y racionalizar la lucha pro-euskera. Ataques contra la negligencia y rechazo del argumento de que la calle impone el erdera: "No conozco hijo de familia aislada inglesa, por muy aislada que esté, que no sea inglés de lengua". Necesidad de la unificación y ataques al purismo. Llamamiento en pro de unas páginas de periodismo vivo en el diario *Euzkadi*, "y no cuentos, vidas de Santos, biografías al azar, sin relación alguna con el día, disquisiciones filológicas y comentarios de alguna noticia trasnochada?". Críticas a los puristas de nuevo: "Y pensar que de ese prurito de pureza del euskera, los más imbuidos son frecuentemente aprendices del idioma, incapaces de decir una frase y hasta algunos que lo desconocen". Defensa de la neu-

tralidad política de la Academia: "Contra el parecer de estimables correligionarios, yo no considero como defecto la neutralidad política de la Academia, su no nacionalismo, ni aún la variada significación política de sus componentes... No conviene una significación política de partido a quien necesita los recursos de la cooperación de todos los vascos". Los padres de familia unidos "podrían revolucionar la enseñanza en sentido euskerista". Propuesta de una asociación de escritores vascos. "Debemos ser más intransigentes en el empleo del euskera, que calla en un corrillo ante la presencia de un erdeldun o de un euskaldun a medias...".

– *Euskal Loteria. Lotería Vasca.* Juego para aprender euskara. Bilbao, 1936.

– *Juan de Ezeta-Dudagoitia.* Pequeña biografía, en la revista *Yakintza*, 1936.

– *Nire laguntxoa. Euskera ezagutzeko orriak.* Otro método sencillo. Baiona, 1939.

– *Euskeraz ikasi nai dot. Quiero aprender euskera. Jakinbide laburra. Método breve.* Mecanografiado en 104 páginas. De 1940 (?).

Hay otros escritos que acaso también le pertenecen, pero no lo sabemos con seguridad. Por ejemplo, hay un poema en castellano a Sabin Arana, firmado "Perderika", en la revista *Euzkadi*. Nuestra intención es seguir la labor iniciada y llegar a reunir en un libro todos estos trabajos.

Muchas gracias a todos.

E. Knörr
Abril de 1978

EUSKALTZAIN BERRIARI ERANTZUNA

Gasteizen, 1978 - IV - 28
Armentiako Prudentzio Santuaren festaburuan

J. M. Satrustegi

Arabako eskualdearentzat egun haundia da aurtengo Prudentzio Armentiakoaren festaburu hau. Lehenbiziko aldiz lurralde hontako euskaldun ospetsuen kondairan, euskaltzain batek bere sarrera hitzaldia gaur eman du Gasteizen.

Euskaltzaindiaren izenean ongietorria ematen diot nik gure lankide berriari. Zorionak Endrike, eta zorionak Arabari.



E. Knörr jauna euskaltzain sarrera hitzaldia ematen.

Zuen poza, arabarrok, Euskal Herri osoaren poza dela jakinarazi nahi dizuet nik orain. Aspaldiko arantza izkutua bagenuen euskaldunok geure herriminaren zirrituren batean kokatua. Ez da erraz esateko gauza. Araban euskara hila da, esan ohi zen. Zazpi haurrideen hizkuntzan arabarren mintzorik ez genuen entzuten. Bai, mingarri zitzaidan, niri behintzat. Nafarroako atzerakada ikusita, Arabaren bidean gindoazela entzun behar izan dugu denbora luzean.

Eta beste batzutan isildu egiten ginen. Hobe ez aipatzea. Andere gazte lokartuaren arnasa zelako susmoa nahi genuen bihotzean bizirik atxiki, hil ezkilik jo gabe. Udaberri bateko argisenti itxaropentsuaren zai geneuden, arreba poxpoliña egun haundietako gona gorri eta edergailu guziekin plazaratzen ikusteko.

Arabak Euskal Herriko argisentia sumatu eta, azken urte hauetan, uste gabeko berpizte txalogarria bizi du. Aspaldiko oihan beltzean kukuak oihu eginik, Arabako Lautada guzira zabaldu da bere kantua. Negu luzeak atzeratu arazitako ernatze gurian berdaturik ikusten dugu zuen izpiritua.

Ez da hitz hutsen doinu merkea nerea, aspaldi aitortu gogo nuen poza baizik. Zuen zelai ederretako loratze hau neuk nola ikusi dutan esango dizuet orain.

Gasteizko gazteria topatu nuen lehenik. Begi ninietan sartuak ditut mendigoizale haien galtza lodiak; eta barneago bildurik, entzun nien kezka larria. Euskalduntzat zeukaten beren burua eta berdeak ziren, itxaropena bezala, neska mutil alaien zamarrak.

Hitzaldien bat edo beste ematera deitu ninduten gero. Ezagutu ditut Gorbea mendiko kantaldiak eta hiriburuko lasterraldiak, bultzada osasungarri baten urrats odolduak.

Ikastolak izan ziren, gero, biziberritze honen lehen emaitza. Hiriburuko ikastola nagusia, alde batetik, eta herri txikietakoak, bestetik. Inork ez du esango hemendik aurrera Araban ez dela euskararik egiten. Aramaio eta beste herri batzutan egundaino gure aurrekoen hizkuntza galdu ez duten euskaldunengandik hartzera doaz haurtxo hauek hizkuntzaren argi piztua. Zubi haundi bat bezala da ekintza hau, Arabako euskaldun zaharrak eta atzetik datozkigunak euskara bizi baten harietan elkartuko dituena. Milaka urtez lurralde

hontan egin zen mintzairaren jarraipena. Ez al-da pozteko berria?

Baina, bada beste zerbait gaur hemen aipatzekoa: ofizialtasuna. Ez nator Diputazioko jauregian gaudelakoz alfer hitzak haizatzera. Aurkako giroa genuelarik salakuntza egiten saiatu baginen, abiada berrien garaian aitortza xume bat egitea bidezko da.

Arabako Kultur Kontseilua sortzea garrantzi haundiko urratsa izan zen. Gauazko lanetik egunazko ekintzara kulturgintza aldatzea. Gogoan ditugu denok eragileen izenak, eta isil isila aurrera daraman lan txalogarria.

Arabako Ikastetxe Unibersitaria aipatu behar dut, gainera, etorkizun haundiko asmoa bezala. Lehenbiziko aldiz Euskal Filologi Saila Euskal Herriko unibersital mailan sortu duen ikastetxea.

Badakit, beste alde, ikastolen arazoan ere kezkatuak direla Diputazioko arduradunak. Bere kontu irekia zuen ikastolaren errekesta ikusirik, erantzun zabalago bat emateko gogotan ziren iazko udan. Euskara ikasi nahi duen haurrik eskolatu gabe ez uzteko zerbait. Hori esan zigun, behintzat, lendakari jaunak.

Dn. Agustín Pasqual Yturriaga, hijo de V. S., y Presbítero Beneficiado de la Yglesia Parroquial de la Villa de Hernani,

con el respeto más profundo acude a V. S. a hacerle la exposición y humilde súplica siguientes:

El exponente desde mucho antes que fuese Presbitero, imitando el exemplo de varios sacerdotes zelosos y beneficos de su Pueblo, se habia dedicado a enseñar la gramatica latina a algunos jovenes cuyos padres o carecian de medios para embiarlos fuera del Pueblo, o preferian que se habilitasen a vista suya en los principios de la latinidad. Ha seguido en este exercicio, propio de su caracter y estado, hasta ahora que ha sido solicitado por varios amigos para que, dando mas extension a su enseñanza, se encargue de la primera educación de sus hijos e interesados. Cediendo a sus ruegos y creyendo que sera para mayor utilidad del Publico, ha formado un plan de establecimiento de una casa de eduacion, donde, asi a los alumnos internos que fuesen confiados a su cuidado, como a los que quisiesen asistir de fuera, se les enseñe a leer y escribir y contar; las gramaticas castellana, francesa y latina, los elementos de geografia y matematicas, y la musica. Con este objeto se ha asociado con su hermano Dn. Cayetano Pasqual Yturriaga, y Dn Manuel de Larrarte, Maestro de primeras letras con titulo, y Organista asalariado de esta Villa.

Mas para complemento de su plan falta al exponente el beneplacito y maternal proteccion de V. S., y le

Suplica rendidamente quiera dispensarselos, si halla que el plan susodicho puede ser util a los hijos de V. S., pues en ello recibira el suplicante una merced a que quedara por siempre agradecido.

Hernani 17 de Octubre 1817. Su mas humilde hijo y atento Capellan

Agustin Pasqual de Yturriaga

III
LA DIPUTACION A LA VILLA DE HERNANI

Azpeitia, 18 octubre 1817

Dirijo a vm. originalmente el memorial que se me ha presentado por D. Agustín Pasqual de Yturriaga, Presvítero Beneficiado de la Yglesia Parroquial de esa Villa, en que me

da parte del plan que ha formado de establecimiento de una Casa de educación con Maestro para diferentes ramos útiles de enseñanza, pidiéndome que le preste mi benplácito y protección.

Enterada de esta solicitud, encargo a vm. me informe a la mayor brevedad de las ventajas que pueden seguirse a ese vecindario y al público, de este establecimiento de enseñanza, devolviéndome a su tiempo el expresado memorial.

Dios guarde a vm. muchos años.

De Mi Diputación en la N. y L. Villa de Azpeitia, 18 de octubre de 1817

(autógrafo) *José Manuel de Emparan*

Por la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa, Manuel Joaquín de Uranga

N. y L. Villa de Hernani

IV
INFORME DEL AYUNTAMIENTO DE HERNANI TOMADO POR ACUERDO

Hernani, 20 octubre 1817

Acuerdo del Ayuntamiento, de 20 octubre de 1817 (Libro de Actas, n. 12)

Se leyó un oficio de la Diputación de esta Provincia de Guipúzcoa de fha. de diez y ocho de octubre que se ha recibido por el correo de hoy acompañado de un memorial que se le ha presentado por don Agustín Pasqual Iturriaga, Presvítero y Beneficiado de la Iglesia parroquial de esta villa, en que se le da parte del plan que ha formado de establecimiento de una casa de educación con Maestros para diferentes ramos útiles de enseñanza, pidiéndole que se le preste su beneplácito y protección. La Diputación encarga al Ayutamiento le informe a la mayor brevedad de las ventajas que pueden seguirse a este vecindario y al público de este establecimiento de enseñanza, debolviéndose a su tiempo el memorial.

Y se acordó se le diga en contestación a la Diputación que dicho plan ha merecido la aprovación de la villa y el aplauso de todo su vecindario por las ventajas que proporcio-

na para que los hijos del pueblo puedan instruirse en todos los ramos que abraza y puedan formarse en los principios de Religión y buenas costumbres al lado de un sacerdote que por sus luces, virtudes y celo caritatibo se merece el aprecio general. Que los Maestros que se ha asociado para llevar a efecto su loable plan, gozan por las mismas prendas de estimación general y que la educación de los jóvenes no puede encomendarse a mejores sujetos, y que las ventajas que del plan referido van a seguirse a este vecindario en particular y a los hijos de la Provincia en general son consiguientes y conocidas. Y finalmente se recomiende de parte del Ayuntamiento a la Diputación para que, mediante su beneplácito y protección, pueda la villa tener la satisfacción de ver a sus hijos disfrutar de sus efectos."

V
INFORME DE LA VILLA DE HERNANI

Hernani, 31 octubre 1817

M. N. y M. L. Provincia de Guipuzcoa

Evaquando el informe que con fecha de 18 del corriente se sirve V. S. pedirme, debo decirle que el plan que el Presvitero Beneficiado de esta Parroquia Dn Agustin Pasqual Yturriaga ha formado, ha merecido mi aprovacion y el aplauso de todo mi vecindario por las ventajas que proporciona para que mis hijos puedan instruirse en todos los ramos que abraza y puedan formarse en los principios de Religion y buenas costumbres al lado de un sacerdote que por sus luces, virtudes y celo caritatibo se merece el aprecio general. Los Maestros que se ha asociado para llevar a efecto su loable plan, gozan por las mismas prendas de la estimación general. Asi que la educacion de los jovenes no puede encomendarse a mejores sujetos, y las ventajas que del plan referido van a seguirse a este vecindario en particular y a los hijos de V. S. en general son consiguientes y conocidas.

En quanto puedo decir a V. S. certificando la verdad de quanto contiene el memorial que le devuelbo, que hace el objeto de este informe, y que recomiendo a V. S. de mi parte para que mediante su beneplacito y proteccion pueda yo tener la satisfaccion de ver a mis hijos disfrutando de sus efectos.

Ofrezco a V. S. mi filial afecto y pido a Dios le guarde ms. as. De mi Ayuntamiento de la N. y L. Villa de Hernani 20 de Octubre de 1817.

Manuel de Egaña, Lorenzo de Zamora. Por la N. y L. Villa de Hernani

Juan M.ª Pasqual Yturriaga.

VI
CONFORMIDAD Y BENEPLACITO DE LA DIPUTACION

Azpeitia 31 octubre 1817

Con esta fecha digo a D. Agustín Pasqual de Yturriaga, Prevítero Beneficiado de esa Yglesia Parroquial, lo que sigue:

"En Diputación formal de este día me he enterado del recurso de vm. de 17 del que espira, en que me comunica el plan que ha formado de una casa de educación, donde así a los alumnos internos como a los que quisiesen asistir de fuera, se les enseñen los ramos útiles de leer, escribir y contar; las gramáticas castellana, francesa y latina, los elementos de geografía, matemáticas y la música, y me pide vm. le preste mi beneplácito y maternal protección.

En seguida me he hecho cargo del informe evacuado por esa Villa en 20 de este mes, acerca de las ventajas que se seguirán al público de la plantificación de este útil establecimiento, donde se instruirán los jóvenes en los principios de Religión, buenas costumbres y en los demás ramos de educación.

Convencida, pues, de la utilidad que tendrá el País de llebar vm. a efecto este su plan, presto a él mi entera conformidad y benplácito, quedando también en facilitarle mi maternal protección en los casos que necesita vm. de este auxilio. Dios guarde a vm.

Y lo comunico a vm. en respuesta a su oficio de 20 del que espira, pidiendo a Dios le guarde muchos años.

De mi Diputación en la N. y L. Villa de Azpeitia 31 octubre de 1817

(autógrafo) José Manuel de Emparan

Por la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa, Manuel Joaquón de Uranga

N. y L. Villa de Hernani

IV
REGLAMENTO DEL CENTRO EDUCATIVO DE D. CAYETANO PASCUAL ITURRIAGA

Hernani 15 abril 1825

Reglamento interior con que se govierna la casa de pensión de Dn. Cayetano Pascual de Yturriaga, en Ernani, Provincia de Guipúzcoa

Parte Literaria

Se enseñaran las primeras letras, las gramaticas castellana, Latina y Frnacesa, las matematicas, la geografia y la musica vocal e instrumental.

La gramatica Española por la de la Academia; la Latina por la de Nebrija; y la Francesa por la de Chautren: Las matemáticas por Lacroix traducido al Español, y la Geografia por Guthere. Los libros para la lectura son el amigo de los niños y los perros, celebres traducciones castellanas. Para la doctrina el Astete añadido por Mendez de Luarca.

Parte economica

Los alumnos se lebantan a las seis de la mañana el verano y a las siete el invierno: se laban y hacen una hora de vela. A las ocho y media se desayunan y entran en sus respectivas clases, que durara hasta las onze. A esta hora entran en vela hasta las once y media y se recrean hasta las 12: Comen y vuelven a recrearse hasta la una y media, ora en que entran en las clases hasta las cinco en verano y hasta las cuatro y media el invierno. Meriendan y vuelven a recrearse hora y media: Cenan enseguida y se retiran. Tienen asuelto (sic) el Jueves por la tarde; si entre semana no hay dia festivo y salen a pasear y hacen ejercicio en juegos inocentes, analogos a su edad. A la mesa el Director come con ellos y duerme en el

salon dedicado al dormitorio, que esta iluminado toda la noche.

Un inspector vigila su conducta sin que los pierda de vista en todo el tiempo que estan fuera de la clase.

Parte Moral y Religiosa

Luego que se levantan hacen la oracion de la mañana al tiempo de dar principio a la vela, asi como al comer y al cenar.

Despues de la vela de la noche rezan el rosario capitulado por el Director. Acuden a la parroquia acompañados del Inspector a misa mayor, visperas y demas actos de religion. Se confiesan y comulgan todos los meses y antes si el Director lo juzga por conveniente por la solemnidad de algun dia o por otro motivo.

Despues de la vela de la noche rezan el Rosario capitulado por el Director. Acuden a la Parroquia acompañados del inspector a misa mayor, y Visperas y demas actos de Religion. Se confiesan y comulgan todos los meses y antes si el Director lo juzga por conveniente por la solemnidad de algun dia o por otro motivo.

Todos los dias dan leccion de Doctrina cristiana y los sabados por la tarde después de ella se lee el amigo de los niños de Ezcoiquiz, haciendo el Director las reflexiones y aplicaciones convenientes segun las observaciones que entre semana hubiese hecho en la conducta de los alumnos.

No se permite tener ni leer libro ninguno fuera de los de las clases.

Los castigos se reducen a privacion de parte de la comida o de los ratos de recreo.

Ernani 15 de Abril de 1825.

Cayetano Pascual Yturriaga. Es copia de su original de que certifico.

Madrid, 5 de Mayo de 1825. Don Balentin de Pinilla.

Traslado concertado por Ignacio Vicente de Elorza (rubrica).

PETICION DE INFORME POR EL CORREGIDOR

Azcoitia, 19 de mayo 1925

Corregimiento
de
Guipúzcoa

Consiguiente a la Orden del Real y Supremo Consejo, cuyo pase podrá ponerse a su continuación, no contrariando los fueros, usos y costumbres de esta M. N. y M. L. Provincia, acompaña un traslado concertado del Reglamento presentado por Dn. Cayetano Pasqual de Yturriaga, vecino de la Villa de Hernani, a efecto de que se le conceda la Licencia para continuar en su casa la educación de la juventud con arreglo a lo que en él se manifiesta. Y como la orden precitada prevenga que por mi se oiga a V. S. sobre la aptitud y conducta política y moral del interesado, me dirijo a sus conocimientos, para que se sirva informarme cuanto se le ofrezca y parezca de todo.

Dios guarde a V. S. muchos años.

Azcoitia 19 de mayo de 1825.

Rafael Aynal

M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa

Al dorso: Del Sr. Corregidor pidiendo informe de la aptitud, conducta política y moral de Dn. Cayetano Pasqual de Yturriaga, de Hernani, para tener una casa de educación. Diputación de 25 de mayo de 1825. Id. de 11 de junio.

A. PIERRE BROUSSAINEN OMENALDIA

PIERRE BROUSSAIN-EN OMENEZ

Hazparne-n, 1978, apirilak 16

Euskaltzainburuaren agurra:

Hazparneko alkate jaun,

Hazparneko herritar,

eta Broussain zenaren oroitzapenetan etorri zareten guztioi: Esker mila!

Bai. Euskaltzaindiaren izenean eskerrak ematera behartua naiz, zeren Pierre Broussain, Hazparneko semeak, Hazparneko hauzapez ohia, eta Euskararen Akademiako sortzaileetarik handienetako bat ohoratu nahi izan baituzue. Ez alferrik. Hunelako gizonen itzala behar-beharrezkoa zaigu gure herriaren izaiteari zor diogun atxikimendua eta leialtasuna gal ez dezagun.

Ez naiz jarriko Broussain-en dohainak eta lanak kontatzera, zeren bada gaur beste hizlaririk hori eginen duenik. Bakarrik esango dut Euskal Akademia sortu aitzin, Broussain jauna anitz urtez ibili zela har-emanetan Azkue jaunarekin eta beste batzuekin, eta hau zen ahalegin eta lehia hoien xedea: Euskararen Akademia hori sort zedila.

Hau bagenekien lehendik ere, Akademia beraren agerkarian emanak diren eskutitzetarik. Baina orai jakin dudanez, anitz eskutitz berri edo ezezagun agertu dira berriki. Ba omen da Broussain zenaren kutxa bat, beti hertsirik zegoena eta orai lehenbizikotz zabaldu dena. Eta zer ez den aurkitu han! Hainbeste eskutitz garai hartako euskaltzaleenak, eta Broussain jaunak maiteki gordetzen zituenak! Agertuberri diren gutunokin hobekiago ezagutu ahal izango da urte haietako euskal giroa eta bereziki Broussain-ek euskal zaletasun hura pizten izan zuen partea.

Azkenik, neke eta ardura hoien fruitua bere begiz ikusi ahal izan zuen Broussain-ek, zeren 1919. urtean sortu baitzen

Euskaltzaindia. Eta nola ez! Barnean hartua izan zen bera, euskaltzain edo "académicien titulaire" izendaturik.

Doi-doi, ordea, egin ahal izan zuen lanik, zeren hurreneko urtean hil baitzen. Hala ere, Akademiaren agerkarian badira bi lan Broussain jaunaren izenaz.

Haren hil-berria ematerakoan hara zer dioen, *Eskualdunatik* hartuz, Euskaltzaindiaren *Euskera*-k bere lehen zenbakian:

Ezagutu duten guziek badakite zenbat zen gizon ona, xehea, mintza-errexa, zuzena, ixila, espantu gutikoa, gozoki eta lainoki guzien meneko emaiten zena. Bereziki gerlako egunetan, zerbeit berri edo xehetasun edo laguntza galdez herrikoetxerat zoazin Hazpandarrek ez dute ahantzia, zoin maiz han ikusten zuten beren hauzapeza, zoin errexki mintzatzen ahal zuten, zoin gogotik bere ahalak oro egiten zituen heientzat. Iduri zuen egiazki ez zuela deus bertze lanik, ez zuela bertze griñarik bere herritarren beharrez beizik.

Hunelakoa zen gizona.

Baina, esan dudanez, badira gaur hemen Broussain nor zen eta zer egin zuen kontatuko digutenak, eta hoiei uzten diet hitza.

Xoilki, eta hori bai, bihotz-bihotzez, eskerrak eman nahi dizkiot Hazparneko herriari eta Hazparneko hauzapezari Broussain-en gorazarre hau eta euskal kulturaren aste hau antolatu dutelako. Broussain-en etsenploak izan dezala beti segida Hazparne-n eta bai Euskal-herri osoan ere! Halabiz.

P. BROUSSAIN, HERRI GIZON

Hazparne, 1978 - IV - 16

Larramendi, auzapez-ordea

Jaun Presidenta, Eskualzaindiko lagun, kide guziak, ongi etorri gure artean.

Atsegin eta ohore du Hazparnek, bi urtez segidan zuen enezebitzea, eskual kulturaren aste hunen bururatzean.

Bihotzez agurtzen ditut ere, gure mera eta kontseilu general ohi, Pierre Broussain jaun zenaren familikoak.

Ongi etorri azkenean, biltzarre balioak eta aberats huntarat egorri zirezten guzieri.

Omenaldi bat emana izanen da beraz, hainitz ustez gure hema eta kantonamendua estalki zerbitzatu duen, gure aitzinako bati.

Ni baino argituago diren jaun batzuek, erranen dautzuet zer gizon baliosa eta zer eskualzalea izan den Pierre Broussain.

Haren ethempluak lagun gitzala denak, artalkiago, gure mintzairaren oraino hobeki zaintzen eta hedatzen.

Molde hortan dugu atxikiko gure Eskual-Herriari, hainitz jelosten, dakoten nortasun berezia.

Maddalen Chavlier anderea,

Yenofa Leroy anderea,

Eskualzain jaunak,

Jaunak, Andereak,

Duela urthe bat, hemen berean ginanden, Eskualtzaindian sartu berri hazpandar bati omenaldiaren egiteko. Aipatu ginituen orduan, anitzinagoko urthetan, eskuararen alde agutitu diren hazpandarrak. Horietarik lehena edo lehenatarik bat, Pierre Broussain jauna, Eskualzaindia moldatu zuten

hamabi gizonetarik bat, Hazparneko auzapez egona. Aitortu behar dut, hori jakina gatik, Pierre Broussain aipatzean ez nuela asmatzen ere zoin aberatsa zen haren nortasuna, zoin barna utzi duen bere hatza Hazparneko harat-hunatetan, zoin baitezpadakoak izan diren eskual mintzairaren alde ibili dituen urhatsak. Ez da ene salasa izanen eskuara-ren alde egin dituenak aipatzea. Zonbait hitzez nahi nuke bakarrik orhoitarazi nor zen Pierre Broussain, nola, 14 urthez auzapez egon delarik, jokatu den bere lumiaren onetan, zu sendimendu eta ideiek sustengatu duten haren obra.

1859 Agorrilaren 5ean sortu zen Pierre Broussain Hazparne Barrandigia. Bere aita, Bartolo Broussain, amerikano ohia hila zen lehenxago, bere ama Janie Salagoity sortzez kanboarra. Baziren 5 haurride, 4 anaia eta arreba bat, Ynichume, Departamenduko diputatuarekin ezkondu zena.

Eskolak eginik Hazparnen, Larresoron, Akizen eta Bordoleuko "Tivoli" ikastegian, badoa Pierre muthiko gaztea Pariserat medikuntzako eskoletarat. Hauek bururatzen ditu 1899-an eta orduan heltzen zaio Herriaren deia. Lagun zonbaitek nahi dute baigorrirat joanarazi.

Hazpandar adixkidek oihu egiten diote Hazparnetik. Han mediku zagon Duruty jauna hilik, jartzen da haren ordez Pikanarian eta hasten medikuntzan 1900ean. Ondoko urthean buruan erosten da Jauregizaharrenea (oraiko posta) eta han segitzen bere lana.

1903-an agertu zuen bere burua lehen aldikotz, Prefetaren kontra jazarri zelarik, nahi ukhan zuenean Prefetak debekatu Eskual Herriko apezeri katexima haurrei eskuaraz erakustea.

1904eko maiatzean Herriko bozak Saint Martin Harriague "Morroxko" auzapezaren listan jartzen da eta harekin Herriko etchean sartzen.

Hilabete baten buruko ezkontzen da Amelia Bartchart Amendug Langajeneko-arekin. Bi alaba badiztute, Mayalen eta Yenofa gaur gutartean aurkitzeko ohorea egin daukutena.

1905-ean Morroxko hiltzen da. Broussain presentatzen da auzapezgorat Riton notariaren kontra eta bigarren itzulian auzia eramanik jartzen da.

Urrian, Konseilu Jeneraleko bozak Broussain presentatzen auzapez alkian da Lanaidy-ren kontra. Lehen itzulian

anitzinean izanagatik ez da presentatzen bigarren aldian eta uzten kargua Larraidi-ri. Berehala, lehen bilkuran berean erakusten du, eskuararentzat zuen atxikimendua. Konseiluko laguna aipatzen diote bere bilkuretako hautuak agertzen tanto batzuren bidez. Alde diruak behar duten izkiriatu tanto horietan BA eskuaraz eta butzek EZ gure mintzairan.

Ordu berean, Morroxko-k utzirik 100.000 libera-ko legata humiari, hasten dira Ospitale berriaren neskatokoen eskolaren altxatzea. Urthe undarean Frantziako gobernamenduak hausten Eliza katolikoarekin zuen antolamendua eta kentzen ordu artino emaiten ziozkan laguntzak. Hala nola, Prefetak atheratzen diozkate "Fabrika" deitu Elizako batasuneri, ehortzketen egiteko deretxoa eta emaiten kargu hori herrier. Hortan ere oldartzen Broussain eta dilituatzen du bere konseiluarekin ehortzketak, geldituko direla familien gain anitzinean bezala.

1906etik 1908artean, bere kontseiluarekin egiten ditu hautu batzu baitezpadakoak agertuko direnak geroan:

Zonbait jabek galdeginik herriko oiharretan eremu zenbaiten erosteka, ihardokitzen diote emanez ez direla lur horiek saldu behar banian bai ontu herriari eman dezaten mozkin hobra. Eta lotzen da zuhaitz landatzeari: seurxuripino-gorago.

Orduan du ere hasten konseilu jeneralarekin 2 urthe iraunen duen auzia, Hazparneko burdin bidearen gainetik: Paueko biltzerak nahi zuen eraiki burdin-bide hertxi bat Donibane-Lohizunetik Perporade-raino Hazparnen gaindik. "Tramurray" deitzen duen mota-ko burdinbide hortan ez ziren ibiltzen ahalko jendeak baizik. Hazparneko konseiluak, aldiz, Broussain anitzineko nahi zuen Kanbo-ko burdin bidea luzoatua izan zadin Hazparneraino harat helduko zan treniek gauzak era karreatzeko gisan. Gataska honek erranen du 1908 artino. Azkenean Herriak amor emanen du banian bere baldintzak emanez.

1908-tik 1914artino, Herriko bozetan osoki nagusiturik 1908-an eta 1912an segitzen du bai saila, zanitzen duela artoski lurriaren ontasuna: Paueko erakustokirat ereman nahi ukan zutelarik. Hazparneko Erromanoen hania, gogoregin zuen eta herrian begiratu. Honen gatik osoki idekia dago bere mendeari tokatzen diren gauza berrian muntatzen ditu

mainlamak jendendako Plaza berriko ondoan. Galdatzen du telefona Baionarat xuxen lotua izan zadin, errextasun gehiago izaiteko. Halaber nahi zuen kuriera otoz ekarria izan zadin Hazparnerat eta ez zaldiz lehenago bezala, gisa hortan lantegiek oren erdi bat lehenago ukhanen zutelakoan eta beraz oren erdi hori irabaziko laneko. Berak, Haltxuko enekan, Elhiarreko de Huiz jaunarekin muntatu zuen electrika emaitien zuen lehen mekanika.

Artean, 1910ean kontseilu jeneraleko bozetan presentatzen da Lanaidi-ren kontua eta hunek begiratzen du bere alkia.

1914-etik gala bururatu artinoko urthe tan erakusten du bere grinarik handiena delalunitar behardunen laguntzea. Hainitz gizon gerlan dira. Heien familia beharduner herriak emaiten dakote laguntza berezia: 15 sos eguneko - Gula ondonerat, Garat depretatuak galdeginik, buruak bozkatzen du diruketa bat preso direnen laguntzeko. Honengatik ez ditu ahazten herriaren eta herritarren beharra. Segitzen ditu zuhaitz landatzeak —biden animatzeak. Jendetaz ere badu achola: Galdatzen du ertora, Pau-eko eritigionar soldato joana dena, herritar itzul dadin, Hazpandarren izpirituak solegi ditzan,zula luze honej ilhunduak dituelakotz.

1918-an, gerlan hil izan diren Hazpandarren orhoitzapena gerrari janaikarazteko, Herriko gizonek delituatzen dute orhoit-hari baten altxatzea. Broussain-ek artha atxikitzen du hargintza honek eskualdun ageri bat izan dezan eta itzulian itzuli eman arazten ditu eskualdun hilharrietako, hani bereziak.

1919-ko unian —kontseilu jeneraleko bozak. Egundaniokotan Broussain Lanaidy-ren kontua— lehenaldikotz Broussain nagusitzen da. Ondoko hilabetan, herriko bozetan ere osoki eremaiten du auzia. Banian, lan ontsa egina maite baitu, ez ditu beregani hartu nahi bi karguak eta mozten du auzapezgoa bere lehen ordeari.

1920eko aphiliraren 27an, bapatean hiltzen da orthezeko garan bere familia-koen ikuzterat zoalarik.

* * *

Balitake segur oraino zornahi gauza aipatzea merezi luketenik Broussain-ek egin dituenetan: Plaza Berriko jargiak —mikantak— balorantzaren alde ibili dituen urhatsak (mahats landare amerikanoak sar arazten ditu, phzbloxera zaitzaren zanaitzeko; aberen konkuretan, laugarren gareo bat eekatzen du eta bertze zonbait holakoa). Bere herritar guziez achola handia zuen eta bethi zagon herrien zerbitzeko.

* * *

Horra, larri-larria, zer egin duen Hazparneren eta hazpandarren onetan. Garbiki errakusten daukute nor zen Broussain jauna, zer gogoetako gizona zen. Iduritzen zaut haren egintza guziak hiru erro badiztutala.

Lehena, gizonaren eta herriaren handitasuna egiten dituen gauza, ezin barreatuzko zuen atxikimendua. Eskuaren alde, geldi geldia jokatzen zelarik. Erlisionearen alde denbora nahasi haietan beldurrik gabe agutzen zelarik. Bera herritar sehe eta beharduner bere laguntza ekartzen ziotelarik erakusten zuen zer axola zuen-bakotxearen eta herriaren nortasuna begiratzeaz, lehenagoko ohiduren atxikitzeaz, gizonaren izpirituarentzat baitezpadakoak direlakotz.

Honengatik osoki idekia zen bere denborako gauza berrier: electrika, burdin bidea, telefona, kurriera otoz ekartzea. Horiek denak molde berriak ziren orduko. Bere lurritar asko uzkur zauden molde berri horien alderat. Broussain jaunak berehala ohatzen da errextasun handia ekartzen ahal dutela laneko maneretan eta kuxian sar arazten ditu herrian. Segur, ez zuen Hazparnek, Broussain-en denboran merezituko, ondotik eman dakoten azien-goitia. "Hazparne, bethi noizbait". Erakusten dauku zer moldetan ikusten duen bere herriaren geroa: laborantza laguntzen eta sustengatzen duelarik, lantegietako errextasun guziak bilatzen ditularik (gauzendako burdin bidea, kurriera-rendako otoak), oihanak ontu eta landatu dituelarik montzo zen eta ari zen "ekonomizta" bat bezala. Gogoan hartu eta hantu horiek egiten zituela duela 70 urthe, ohar ditake orduko jende aintzin banio anitzinago zoala Broussain.

Hirugarren erroa ageri da, haste hastetik azken urtheraini, eraman duen guduan bai Pregetaren, bai administra-

zionaren bai Kontseilu Jeneralaren kontua. Herriko Kontseiluko Deliberamenduetan irakur ditake uda 1912-eko agorrilaren 25an eskatu zuen Herriko etxetako harat-hunarak moldatzen zituen legea kanbiatu izan zadin eta galdatu herria athera zitazkunez administrazionearen zangopetik. Ez zezaken onhar huniko harat-hunarak kanpotiarrek molda zizaten. Nahi zuen Hazparne beregain ikusi —bere zuzunen osoki jabe— bere gizonez zaindua.

* * *

Broussain auzapezak erakutsi badu zoin kasko handiko gizona zen, Broussain gizona zen oso ixila —espantu gutikoa— lagunkina barrian ez handikina. Hil ondoan, egunkarietan agutu ziren artikulu guzietan hitz berak aurkitzen ditugu: osoki gizona, gizon ona, xehea, ixila, gozoki eta lañoki denen zerbitzuko emaiten zena.

* * *

Ixila segur eta dudarik gabe sobera. Bartzela izan balitz ez zuten segur 50 urthez ahantziko bere herritarrek eta ixiltasun osoan utziko. Iduritzen zaut ordu litakela huts horren xuxentzea ez bakarrik egungo anuraldi hunen bidez banian emanez karrika edo Plaza bati hazpandar handi horien izena. Merezi duelakotz, bainan ere orhoit giten egin dituen hautuek nola argitu duten Hazparne-ren geroa eta haren urhatsu jarraitatzeko eginibidez uzten daukala.

Gora Hazparren

Gora Euskal Herria!

PIERRE BROUSSAINEN OMENALDIA

Hazparne, 1978 - IV - 16

Jean Haritschelhar

Andereak eta Jaunak,

Euskaltzainkide maiteak,

Egun ohoratzen dugun Ahazparneko seme eta euskaltzain zenak merezi du haundizki egiten diogun omenaldia. Bainan, egia erran, ez nuen uste, omenaldi hunen ideia sortu zelarik, hain haundi agertuko zitzaukula Pierre Broussain. Zer ginakien orai artio: Bai, Ahazparneko alkate eta kontseilari jeneral izana zela, bai ere Euskaltzaindiko lehenbiziko lagunetarik. Bainan badu orai 58 urte hil izan dela eta denborak bere itzal ahanzkorra hedatzen du denetan.

Idazlek beti herexa zerbait uzten dute beren ondotik. Gauza guti aurkitzen dugu Pierre Broussain-en lanetan, nahiz utzi dituen artikuluek baduten beren balio berezia. Zorionez maite zuen Pierre Broussain-ek atxikitzea ukaiten zituen gutunak. Bere bizi guzian atxiki ditu, haren alarguntsak halaber, eta —nolako ait'amak halako alabak— gauza sakratu bat bezala egon dira gutun horiek Jenofa Broussain-Leroy anderearen etxean. Gure eskuetarat etorri dira beraz orduan bizi ziren euskaltzale kartsuen gutunak hala nola Azkue, Sabino Arana Goiri, Koldo Eleizalde, Aranzadi, Lacombe, Hiriart Urruty, Etxepare medikua, Guilbeau eta bertze.

Eskerrak beraz bihotzaren erditik Pierre Broussain zenaren bi alaberi eta, gutartean baititugu, ohora ditzagun beren aitatxi eta beren aitaren orhoitzapenari erakutsi dieten errespetua eta amodioaren gatik.

* * *

Atseginekin eta halako gose batekin irakurtu ditut gutun horiek. Ez dauzkitzuet denak aipatuko. Hautatu ditut zenbait, bereziki Resurrección María de Azkue-renak. Ez dakigu nola sortu zen bien arteko adixkidetasuna bainan erran dezakegu izan dela bi jaun horien artean atxikimendu segur eta leial bat, ezin hautsizko adiskidetasuna. 1899tik eta 1920 artio elgar ikusi dute ardura, eta elgarretarik urrunduak zirelarik gutunek sortzen zuten sekulan bururatzen ez zen elgar hizketa.

1899-1920: 20 urte horien ixtorioa edo kondaira agertzen zauku: zer ziren orduko euskaltzaleen hezkak eta griñak, zer ziren ere heien esperantzak, zer ziren azkenean heien eztabaidak.

Badakit aintzinetik ene egungo mintzaldia, mintzaldi xume bat bakarri dela. Erran nahi dut gauzak ikusiko ditudala gaingiroki, xehetasunetan sartu gabe. Erakutsi nahi nuke bakarrik, gutun horien bitartez, zer euskaltzale suhar, zer euskaltzain garbi izan den Pierre Broussain.

Norbaitek, egun batez, behar luzke orduko euskaltzaleen gutunak bildu eta heietan bereziki Broussain-enak, idatz bailezake orduan XXgarren mende hastapeneko ixtorioa, ez kanpotik agertzen zauzkun gertakariak, bainan egiazko ixtoria, ez axaletik bainan bai barnetik, *la intrahistoria*, hala deitzen baitzuen Unamunok jenden eta populuen kondaira, nola bizi ziren, zer pentsazen zuten, zer zaukaten gogo-bihotzetan.

Badu zonbeit urte Azkuek irabazi duela Bizkaiko diputazioak sortu duen Euskal Katedra. Langile porrokatua da Azkue, euskal gauzetan osoki emana; denbora berean bi lan haundi baditu egiteko: euskal kantuen biltzea eta euskal hiztegia. Bi obra horien bururatzeko behar du Pierre Broussainen laguntza.

Euskal kantueri buruz Azkue-k aipatzen ditu ipar Euskal Herrian bildu dituenak: *"Barda amets egin dut"*, Lekuinen ikasia Broussain-ekin zabilalarik herriz herri Ahazparneko inguruetan eta ere *"Mendekoste bestetan"* (1900-V-22). Denbora pasatzen da eta beste gutun batean idazten du badituela bilduak 1.020 kanta eta lerrokatzen dituelarik kantuak entzun dituen herrien izenak heldu da lehen Ahazparne, bigarren Otxandio, hirugarren Orio (19..-XII-4). Beste batean dio 1.105 aire badituela eta 300 bat gehiago bildu nahi luzkela.

Ahazparne lehen: ez dea aitortzea zer zorretan dagon Broussain adixkidearekin.

Hiztegia: Lehenbiziko gutunetan ez du bertzerik aipatzen Azkuek: "Erakutsiko deutsudaz nire iztegi onen zirriborrak" galdegiten diola joan dadin Donostiako agorrileko bestetarat 1899ean. Eskatzen dio ere galdegin dezan Daranatzi Duvoisin-en hiztegia. Broussain-ek behar ditu bildu hitzak Ahazparneko euskalkian eta galdez ari zaio kasik letra bakotxean. Ez du konprenitzen Azkuek baduela bertzerik egiteko haren lagun onak eta nahi luke ar dadin hura bezala euskarari osoki emana: "Asi como yo soy poco o nada confesor (no me siento en el confesionario) para ser más bascófilo, así Vd. para ser más bascófilo debiera Vd. ser menos doctor. No digo matador..." (1900-XI-21). Badaki –alfer eta nagi deitzen duelarik– zor haunditan dagola halere. Hor daukagu egiazko froga idazten diolarik 1901 eko urriaren 6 an: "Quiere Vd (pero para ello tendrá Vd. que dejar de ser Pierre Loti) que el invierno del año 1902 empecemos los dos a imprimir en París un diccionario basco-español francés? Venderíamos la edición a algún gran editor de París como Gardnière (sic), Aschette (sic), etc... que tienen gran comercio de libros en la América del Sur. Y si no pudiéramos vender bien la edición (que sería lo mejor) la alquilaríamos repartiendo a mitades los gastos y las ganancias. AZKUE y BROUSSAIN o BROUSSAIN y AZKUE (como le pareciere mejor) serían los autores de la obra.

A parte del gran bien que se podría hacer a la lengua tendría yo verdadera satisfacción en que así como los nombres de Cástor y Pollux corren siempre juntos en el firmamento apegados a dos estrellas, así nuestros nombres corriesen siempre unidos apegados a este libro en el humildísimo cielo de la literatura vasca."

Amentsa behar bada, bainan badakigu Azkuek bururatu duela hasi zuen lan ikaragarria. Hortarako zazpi Euskal Herriak iragan ditu eta beti Ahazparneko Broussain-en etxea bere etxea zaukan. Irakurtu behar dira Azkuek emaiten dizkion eskerrak, haren bitartez ezagutu baitzuen Constantin Atharraztarra.

1903-tik harat bilatzen du irakorla bat Azkuek. Denetarat idazten du, bereziki dakielarik Bizkaiko diputazioak pagatuko diola parte bat bederen (25.000 peseta). Pasatzen ditu 4

egun Ahazparnen, Tours, Albi, Bruges, Fribourg eta Ratisbonne-rat joan aintzin.

Galdegiten dio Broussain-i idatz dezon Larousse etxeari. Azkenean hautatzen du Mame etxea Tours hirian dagona. Han biziko da zonbait hilabete 1904 ean. Broussain-en beharra senditzen duelarik galdegiten dio jitea eta Broussain badoa Tours-erat han pasatzen dituela egun batzu.

Bertze aurpegi bat ere badu Broussain-ek eta juja dezakegu zer bihotz oneko gizona zen igortzen diolarik Azkueri 2.000 libera, diru beharretan baitzagon (1904-III-27). 1905 ean eskerrak bihurtzen dizkio Azkuek aipatzen dituela iragan urteko 2.000 liberak eta egun hetan hartu dituen bertze 2.000 libera. Eta agertu zen Azkue-ren hiztegia. Ez duzue uste sustengatzaile bezala agertu zela Pierre Broussain? Nork jakinen zuen hori ez balu bere gutunetan Azkuek berak salatu?

Bertze kezkarik bazuten Azkuek eta Broussain-ek. Nahi zuten Akademia sortu ez baitzen oraino Euskaltzaindi hitza sortua. 1900 garren urtean solas hori derabilate. Mme. D'Abbadie, Antoine d'Abbadie-ren alarguntsari egiten diolarik bisita Azkuek, pentsatzen du zerbait aterako dela Akademiaren onetan (1900-IV-6). Badakigu zer solas-aldia ukan duen Mme. d'Abbadie-rekin, nola aipatu dituzten euskaltzainen izenak, pagatuko dituela gastuak diputazioen baimenak eta laguntzak ukanez geroz. Abbadian pasatzen ditu 15 egun eta handik idazten du: "Ona ni hemen zabal zabal nai bano obeto, archeveque bat eginik". Eta bururatzen du gutuna izenpetuz: Abbadiako apezpikua. 1901 ean biltzen dira Euskaltzaleak Hendaian. Ez niz sartuko orduan izan ziren eztabaidetan bainan hor daude lekuko Azkue, Guilbeau eta Arana Goiri-ren gutunak. Eta gero Hondarrabiko (H ekin idazten du Hondarrabia Sabinok) biltzarra antolatzen dutelarik erakusterat emaiten du Azkuek ez dela ados Arana Goirik nahi duen botazioarekin, diolarik: "Beraz nere atezaiak ere, atezaitzea utzi gabe, erabaki dezake zer egin behar dugun" (1902-II-3).

Eusko ikaskuntza sortzen delarik Broussain hautatzen dute buruzagi ordezko bezala Urquijo-rekin. Bilatzen ditu ipar Euskal Herrian batasun horretako batzarkideak eta nahiz Lacombe eta Frederic de Saint James ez diren ados Broussain-ekin, hunek nahi du izan zubi bat bezala mugaren bi aldetako euskaldunen artean, hala izana baita bere bizi guzian.

Hortakotz hego Euskal Herriko lau diputazioek erabaki zutelarik Euskaltzaindiaren sortzea berehala Broussain-en izena agertzen da. Zendako beraz ez irakur Azkue-ren gutuna, frantsesez idatzia hori, bertze guziak euskaraz edo españolez direlarik:

"Aujourd'hui, je me propose de vous dire quelque chose sur notre Académie... La deuxième réunion préparatrice et constituante a eu lieu avant hier au Palais de Bizkaya.

Les Académiciens chargés de nommer les autres huit pour former ensemble la section philologique sont: Campión, Eleizalde, Urquijo et bibi: je n'en ai que 4 candidats: le maire de Hasparren, le P. Olabide de Vitoria, le P. Azpiazu (linguiste savant)) et Agerre de Pampelune.

Pourriez vous m'en indiquer deux de la régiion basque française? Daranatz et Constatin sont-ils philologues? Lacombe connait-il bien le basque? Est-ce qu'il le parle? Les conditions approuvées par les congressistes d'Oñate pour être académicien sont: que les candidats soient basques de race et de langue. Auront-ils suffisamment de loisir pour s'occuper sérieusement d'affaires de l'Académie? On se réunirait à Saint Sebastien tous les 15 jours sauf 2 mois à l'été."

Euskaltzaindiaren lehen kezka: euskara bateratu edo batu bat beharrezkoa dela. Galdegiten diote beraz Campión eta Broussain-i egin zezaten txosten bat huni buruz. *Euskara* deitzen den Euskaltzaindiaren agerkarian agertu zen 1922 an baina irakurtua izan zen 1920 eko apirilaren 24 ean.

Broussain-ek jadanik epailaren 2 an erakutsi zuen bere helburua orai guk euskaltzain eta euskaltzaleek dugun amentsa eta xedea baita: "L'Académie Basque, fermement résolue à faire de l'euskara une langue nationale parlée par toutes les classes sociales du Pays Basque, réussira à constituer une langue littéraire unifiée, une langue de civilisation qui, grãce aux écoles et aux collèges, deviendra au bout de deux ou trois générations, la langue commune de tous les Basques".

Holako hitzak —atzokoak, egungoak eta biharkoak— entzunez geroz nork uka dezake ez zela Broussain egiazko abertzalea? Bi etsenplu gehiago: Lehena: Azkuek emaiten dio Broussain-i "berri txar bat", Sabino Arana Goiri preso dagoela igorri diolakotz Rossevelt-i denek ezagutzen duten telegra-

ma famatu hura. Zer egiten du Broussain-ek: idazten dio Sabinori. Zer bilakatu den gutun hori ez dakigu. Dakiguna da Azkueren ganik bere gutunetan "Gaur edo biar elduko da zure *carte de visite* Sabino-ren eskuetara (1902 ko ekainaren 6 an) eta bi egun berantago "Zure *carte de visite* eldu da Sabinoren eskuetara".

Bigarrena: Azkuek zorionak igortzen dizkio Broussain-i Ahazparneko alkate egin zutelarik eta aipatzen dio nola beharko duen ezarri frantses hiru koloretako gerrikoa. Eta segitzen du erranez: "Asi como los penitentes se ciñen debajo de fajas de lana cilicios de hierro, Vd. en penitencia de la faja exterior deberá Vd. de ceñirse por dentro una cinta con los colores nacionales vascos".

Mintzaldi hunen hastapenean nion ez nuela uste, omenaldi hunen ideia sortu zelarik, hain haundi agertuko zitzaukula Pierre Broussain. Nihaur miraturik nago ikusi dutalarik zer herri gizona izan den, zer euskaltzale suharra, zer euskaltzain argia eta bikaina, zer abertzalea ere. Holako gizonek ez dute merezi ahantziak izaitea, horiek baitira gure ixtoriaren parte bat eta eginbide dugulakotz ixtoriaren gure ganatzea.

Ager dadila egungo omenaldia, Pierre Broussain-en eta Euskal Herri osoaren ohoretan.

PIERRE BROUSSAINEN OMENALDIA

Hazparne, 1978-IV-16

Janpierre Larremendi

Maddalen Chevalier anderea,
Jenofa Leroy anderea,
Euskaltzain jaunak,
Jaunak, Andereak,

Duela urte bat, hemen berean ginauden, Euskaltzaindian sartu berri Hazpandar bati omenaldiaren egiteko. Aipatu ginituen orduan, aintzinagoko denboretan, Euskararen alde agertu diren Hazpandarrak. Heietarik lehena edo lehenetarik bat, Pierre Broussain jauna, Euskaltzaindia moldatu zuten hamabi gizonetarik bat, Hazparneko auzapez egona. Aitortu behar dut, hori jakina gatik, Pierre Broussain aipatzean, ez nuela asmatzen ere zoin aberatsa zen haren nortasuna, zoin barna utzi duen bere hatza Hazparneko harat-hunatetan, zoin baitezpadakoak izan diren Euskal mintzairaren alde ibili dituen urhatsak. Ez da ene solasa izanen Euskararen alde egin dituenak aipatzea. Zonbait hitzez nahi nuke bakarrik orroitarazi nor zen Pierre Broussain, nola 14 urtez auzapez egon delarik, jokatu den bere herriaren onetan, zer sendimendu eta ideiek sustengatu duten haren obra.

1859-eko agorrilaren 5-ean sortu zen Pierre Broussain, Hazparne Barrandegian. Bere aita Bartolo Broussain, amerikano ohia, hila zen lehentxago, bere ama Marie Salagoity, sortzez Kanboarra. Baziren 5 haurride, 4 anaia eta arreba bat, Guichenné departamenduko deputatuarekin ezkondu zena. Eskolak eginik, Hazparnen, Larresoron, Akizen, eta Bordaleko "Tivolin", badoha Pierre Broussain mutiko gaztea Pariserat, medikuntzako eskoletarat. Hauek bururatzen ditu 1899-an eta orduan heltzen zaio Herriaren deia. Lagun zonbaitek nahi dute Baigorrirat bildu, Hazpandar adixkidek oihu

egiten diote Hazparnetik. Han mediku zagon Durruty jauna hilik, jartzen da haren orde Pikasarrian eta hasten medikuntzan 1900-ean. Ondoko urtean berean erosten du Jauregizaharrenea (oraiko posta) eta han segitzen du bere lana.

1903-an agertu zuen bere burua lehen aldikotz, prefetari jazarri zelarik, hunek nahi ukan zuenean Euskal-Herriko apezeri debekatu katixima haurrer euskaraz erakustea.

1904-eko maiatzean Herriko botzak: Saint-Martin Harriague, "Morroxko" auzapezaren listan jartzen da eta harekin Herriko etxean sartzen. Hilabete baten buruko ezkontzen da Amélie Baratchart Amenduze Larregoyenekoarekin. Bi alaba badituzte, Maddalen eta Jenofa gaur gutartean aurkitzeko ohorea egin daukutenak.

1905-ean Morroxko hiltzen da. Broussain presentatzen da auzapezgorat, Ritou notariaren kontra eta bigarren itzulian auzia eremanik jartzen da auzapez alkian. Urrian kontseilu jeneraleko botzak: Broussain Larraidy-ren kontra. Lehen itzulian aintzinean izanagatik, ez da Broussain presentatzen bigarren aldian eta lekua uzten dio Larraidy-ri.

Herriko etxean, lehen bilkuran berean erakutsi zuen auzapez berriak euskararentzat zuen atxikimendua: bere kontseiluko laguneri aipatzen diote beren bilkuretako hautuak agertzea tanto batzuen bidez. Alde direnek emanen dute BA euskaraz izkiriaturik duen tantoa eta bestek EZ izkiriaturik duena.

Orduan ere Morroxkok utzirik 100.000 libera legata herriari, hasten dira ospitale berriaren lanak eta neskatokoen eskola. Urte hondarrean Frantziako gobernuak hausten ditu Eliza Katolikoarekin zituen antolamenduak eta kentzen ordu artino emaiten ziozkan laguntzak: Prefetak kendu nahi dio Elizako "fabrika"-ri ehorzketak egiteko dretxoa eta eman Herriari. Hortan ere oldartzen da Broussain eta deliberatzen du bere kontseiluarekin ehorzketak geldituko direla familien gain "aintzinean bezala".

1906-etik 1908-artean egiten dira hautu batzu baitezpadakoak agertuko direnak geroan:

Jabe batzuk galdeginik herriko oihanetan eremu zonbaiten erostea, ihardokitzen diote erranez ez direla lur horiek saldu behar bainan bai ontu, herriari eman diezoten mozkin

hobea. Eta lortzen da auzapeza zuhaitz landatzeari herrilurretan, xurxuri, pino eta pago.

Orduan da hasten, bi urte iraunen duen burdin-bidearen auzia, kontseilu jeneralarekin: Pabeko biltzarrak nahi zuen burdin bide hertsi bat ezarri Donibane Lohitzunetik Peihoraderaino, Hazparnen gaindi, "Tramway" mota horrek etzuen erabiliko jenderik baizik. Hazparneko kontseiluak nahi zuen Kanboko trein-bidea luza zadin Hazparneraino, gauzak ere erabiltzeko gisan. Gataska hunek iraunen du 1908-artino. Azkenean herriak amor emanen du bainan bere baldintzak emanez.

Herriko botzetan osoki nagusiturik 1908-an eta 1912-an, Broussain auzapezak segitzen du bere saila 1914-artino: zuhaitz landatze, kartieretako eskolen eraikitze, behardunen laguntze, zainduz beti artoski herriaren ona. Pabeko erakustokirat ereman nahi izan zutelarik Hazparneko "Erromanoen harria", gogor egin zuen eta herrian begiratu delako harria.

Horren gatik osoki idekia zagon Pierre Broussain mendeari tokatzen ziren gauza berrier: muntatzen ditu mainu publikoak Plaza-Berriko ondoan. Galdatzen du telefona Baionarat xuxen lot dezaten. Erreztasun gehiago izaiteko eta lantegiek oren erdi bat irabazteko nahi du kurriera hel dezaten, ez zaldiz lehen bezala, bainan otomobilez. Berak, de Heriz Elhiarreko jaunarekin, muntatu zuen ere elektrika emaiteko lehen mekanika herrian.

Anartean, 1910-ean kontseilu jeneraleko botzetan presentatu zen Larraidy-ren kontra, bainan hunek begiratu zuen bere alkia.

1914-etik gerla bururatu artinoko urtetan Pierre Broussain-ek erakutsi zuen bere griñarik handiena zuela herriko behardunen laguntzea. Etxeko gizonak gerlan direlarik, herriak emaiten dio familia behardunari 15 sos eguneko. Gerla hondarrerat, Garat deputatuak galdeginik, preso direnen laguntzeko herriak bozkatzen du diruketa bat. Ez dira horren gatik ahanzten herriaren beharrak: Zuhaitz landatzeak egiten dira, bideak antolatzen. Jendetaz ere baitu axola, kontseiluak galdatzen du, Pabeko eritegirat soldado joana den herriko erretora itzul dadin, Hazpandarren izpirituak soleitzeko, gerla luze horrek ilundu baititu.

1918-an gerla bururatzean, gerlan hil diren hazpandarren orhoitzapenetan, herriko gizonek deliberatzen dute orhoit-harri bat eraikitzea. Broussain-ek arta hartzen du hargintza horrek euskaldun itxura bat izan dezan eta itzulian-itzuli emanarazten ditu euskaldun harri bereziak.

1919-eko urrian kontseilu jeneraleko botzak, egundainokotan Broussain Larraidy-ren kontra. Broussain nagusitzen da oraikoan. Ondoko egunetan ere herriko botzetan oraino osoki eremaiten du auzia. Bainan lan ontsa egina maite duelakotz, ez ditu bere gain hartu nahi bi karguak eta auzapezgoa uzten dio bere lehen-ordeari. 1920-eko apirilaren 27-an, bapatean hiltzen da Pierre Broussain, Orthez-eko garan, etxekoen ikusterat dohalarik.

Balitake segur oraino zernahi aipatzekorik Broussainek egin dituenetarik: Plaza-Berriko jargiak, inkantak, laborantzaren alde ibili urhatsak (mahats landare amerikanoak sartu baititu "philloxera"ren kaltea garaitzeko). Hots, bere herritar guziez axola zuen eta bazagon beti heien zerbitzuko.

Horra beraz larri-larria zer egin duen Pierre Broussainek Hazparneren eta Hazpandarren onetan. Garbiki ikusten dugu nor zen gure auzapeza eta zer gogoko gizona zen. Iduritzen zait haren egintza guziek hiru erro badituztela.

Lehena, gizonaren eta herriaren handitasuna egiten dituzten gauza guzientzat zuen ezin-barriatuzko atxikimendua: Euskararen alde geldi geldia jokatzen zelarik, Erlisionearen alde egun nahasi hetan agertzen zelarik, bere herritar xehe eta beharduner laguntza ekartzen ziotelarik, beti erakusten zuen zer axola zuen herriaren eta bakotxaren nortasuna begiratzeaz.

Horren gatik osoki idekia zagon bere mendeko beharordu berrier: Elektrika, burdin-bide, telefona, horiek oro molde berriak ziren ordukotz eta herritar asko uzkur zagon molde berriari. Broussain aldiz berehala ohartzen da erreztasun handiak ekartzen ahal dituztela horiek orok eta kuxean ekartzen ditu herrirat. Segur etzuen orduan merezituko Hazparne herriak ondotik eman dioten izen-goitia "Hazparne beti Noizbait". Gogoan hartuz duela 70 urte Broussainek egiten zituen hautuak erran dezakegu orduko aintzinago zohala eta zinez "ekonomista" bat bezala ari zela.

Hirugarrenekorik, haste-hastetik eta azken bururaino ageri da bai prefetaren, bai Administrazionearen, bai Kontseilu Jeneralaren aintzinean xutik zagola Hazparneko auzapeza. Etzezaken onhar kanpotiarrek erabil zetzaten herriko harat-hunatak. Nahi zuen herria bere gain ikusi, bere zuzenen osoki jabe, bere gizonek zaindua. Herriko Kontseiluko deliberamenduetan, 1912-eko agorrilaren 15-ean irakur ditake, herri legeak aldatuko direlarik beharko direla herriak atera administrazionearen eskupetik.

Broussain auzapezak erakutsi du zer kaskoko gizona zen, bainan bestalde oso ixila zen, espantu gutikoa, lagunkina bainan ez handikaria. Hil ondoan, egunkarietako artikulu guzietan hitz berdinak irakurtzen ditugu: "osoki gizona", "gizon ona", "xehea", "ixila", "gozoki eta lañoki denen zerbitzuko zena".

"Ixila" segur eta dudarik gabe sobera. Bestela izan balitz etzuten bere herritarrek 50 urtez ahantziko eta bere ixiltasunean utziko. Iduritzen zait ordu litakeela ixiltasun hortarik ateratzea ez bakarrik egungo omenaldi hunen bidez bainan karrika edo plaza bati emanez hazpandar handi hunen izena. Merezi du orhoit gaiten nola egin dituen hautuek argitu duten herriaren bidea eta bere urhatser jarraikitzeko eginbidea uzten daukula.

Gora Hazparne,

Gora Euskal Herria!

A. PIERRE LAFITTEREN OMENALDIA

PIERRE LAFITTEREN OMENALDIA

Baigorri, 1977 - X - 22

Emile Larre

Bizi hunek zein itsuak dituen bere bideak! Nik segurik ez dut egundaino amestu ere, Pierre LAFITTE jaunaren eskoliera nintzalarik, bere laguntzaile behar ninduela egun batez kasetalaritzan.

Denbora heietakotz, zer gizona ez zen LAFITTE guretzat! Eskola orenaren bururatzeko, edo asteartetan ginuen euskarazko ikasaldiaren biperrestatzeko, hartzen zauzkularik kaseta zahar horitu batzuetan pikatu artikuluak, holakoak hau idatzi eta nik hola ihardetsi, pindarra zaion euskaran, edo beharrez frantses zainart batean, bietan berdin trebe baitzen gure erakasle jakintzun zorrotza.

Ez baitzagon ordukotz geldirik gure Piarres! Uztaritzen, frantses eskoletan beste edozein erakaslek bezenbat eginik ere, bazituen, besteak beste, bere bazterbideak eta zeiharkak, arte-marteka, kasetalaritzan: Eskualduna kaseta astekarian, SOUBELET eta AROTÇARENAREN denboran, bixtan dena, bainan ere tokiko beste kasetetan okasioneaz balia, bereziki han irakurtu ateraldi zenbaiten aintzinean ixilik ezin-egona heldu zitzaiolarik, edo, xoilki, norbait Lafitten argi eta jakitatez behartzen zelarik.

Bainan holako luma erne eta izpiritu aintzinkorra ez bide zirelakotz edozein idazkari prestutan mugatzekoak, izan ditu gazte denboran bere agerkari ausartak ere, bereak: "Le palmipède, organe régionaliste jemenfoutiste relié à Washington par Charenton"... erdaldunentzat.

Hau ere erran behar duta? Kaseta bat egin nahi izan zuten Donibane Lohizuneko andere gazte batzuek: "Le Carillon des jeunes", neskato gaztearen eta emaztearen aurkibide bipila. Ez izanez andere hek berak aski hortakoak, nor uste

duzue hatxeman zutela beren kaseta horren idazle berezi? gure LAFITTE, alabainan!

Halere, nahiz horiek ere merezi duten aipatzea gure gizonak zuen kasetalari-gaiaren eta jitearen konprenitzeko, ez zagon ez hor gure Piarres LAFITTE egiazkoa. Hor baino gehiago zen ageri euskal kasetan idazten zuelarik, bai-eta Euskararen eta Euskal-Herriaren geroari buruz lanean ari zelarik.

Preseski gai horietaz, gogoan zituen guziak, orduko Eskualduna bezalako astekari muntto eta serios eta doi bat prestu batean ezin erranez edo nik dakita zeren gatik?... beste euskal agerkari bat, ilabetekaria, atera zuen 1934-an Lafittek lagun gazte batzuekin. Izena ongi hatxeman zioten: "Aintzina" eta hala zen, orduko beste agerkari, euskaldunak ere baino, aintzinkorragoa egin zuten: abertzaletasuna, emaztearen boz emaiteko gaitasuna, gizartearen sozialtasuna eta langilearen zuzenak, denbora hetan egiten ez zen bezala aipatzen zituen Aintzinak. Lehen lumeroak berak herria eta herrizale-

P. Lafitte eta A. Irigaray.

tasuna goresten zituen, langileen elkargoa eta zindikalismoa ere bai, gazteak agurtzen, eta euskara itotzen duen frantses eskola jaukitzen: 43 urteren buruan iduri du kasik Aintzinak egungo giroaz mintzo zaikula! Nori esker? Ez da galdatze beharrik.

P. Lafitte eta E. Larre.

Biskitatean Eskualduna era bazoan bereari, urrats eztiagoan eta orduko kargudunen ara hobeki kausituz, egia erran! Bainan horra 39-ko gerla. Eta ixtantekotz alemanak gure artean beren urrats pizu zapatzailearekin. Ainitz izpiritu durduzatu den denbora, nahitez. Eta gerla ondoan konduak egin behar! Kaseta askok gerla ondo hortan galtzen dute berriz agertzeko baimena. Eskualduna hetarik da.

Zer egin orduan? Euskaldunak beren astekaria gabe utzi? Ez holakorik! Biltzen dira Milafrangan , Monseigneur Saint Pierre apezpiku euskaldunaren etxean, Leon Leon Uztaritzeko ertora (hau akulatzaile), Moulier-Oxobi ertora, Etche-

verry Milafrangako ertora, Elissalde-Zerbitzari eta Louis Dasance Uztaritzeko auzapeza.

Norbait behar dutela hautatu kaseta berri baten egiteari lotzeko, bainan nor? St. Pierre apezpikuak proposatzen du P. Lafitte apeza: erreziztentzian bermatua, beraz ordu hetan ongi ikusiak ziren gizonetarik izaki! Aipatzen diotelarik, hunek alditz: "Bainan ni errea niz *Aintzina* agerkariarekin (hau gelditua zen, hiru urtez agerturik)". Bestek, ez dela xauxunkerian artzeko ordua. Funtsean hautsi-mautsi bat egiten dute hitzez bederen, elgarren eta kaseta berriaren idaiez; eta ondoko ortzeguneko hitzartzen dira Mgr. St. Pierren etxean berriz bilduko direla.

Kasetari izena hautatu zioten hor. Aipatu zituzten izentzat Argia (baina izen hortakoa Donostian jada izanki), Oiharzuna (baina hori luzexko edo...) eta hautatu zuten HERRIA. Lafitte jauna manatu zuten, behar ziren urratsak egin zitzala: Baionako "Comité de Libération" baitan; Dr. Garat Defos du Rau, Guillaume de Hiriart eta holako batzu ziren hor. Haatik talde horrek debeka ziron agertzetik bainan baimenik ezin eman.

Pauen gaindi alferretan ibilirik, Bordelera jo zuen Lafittek, Rue Judaïque delakoan Sud-Ouest eskualde guziko kasetaritza bulegoa hor baitzen. Hor jakin ez zela baimen beharrik batere, eta gibelerakoan Piarres Lafitte itzuli, erranez... baimena bazuela: alabaina, nun zen hor gezurra, baimenik behar ez bazen?

Gero kaseta egiteko papera behar. Hain xuxen Frantziako minixtro diruzainak mailegu bat egin zuen kaseten laguntzeko. Hori jakin orduko Piarres Lafitte xuxen joan erranez kaseta egiten zuela eta papera galdatzen zuela. Papera? Zenbat? Hiru mila kasetarena galdatu eta denak ukan. Geroztik ez dauku behin errepikatu Piarres Lafittek zoin "zozoa, zozoa, zozoa izan naizen!" ..gehiago ez galdaturik! Hain segur denak ukanen baitzituen.

Eta huna nola 1944-ko hazaroaren 16-an agertu zen lehen herria, erran nahi baitu Eskualduna gelditu-ta kasik hiru ilabeteren buruko. Dirua aldiz Elissalde-Zerbitzari apezak, eta harek bakarrik eman zion Lafitti: 2.000 libera!

Balitake asko erraiteko Herria-ren lehen denboretako ixtorioaz. Denen gostua nola egin, alabainan, Lafitte batek

bereziki? Lehengotz, gerla aintzinean, Aintzina-ren denboran idekidura eta zabaltasun ausartago batean gauzen ikusten zakienak, nola egin betiko geldikarien gostua?...

Hortaz hau dugu guk bakarrik erranen. Bere denboraren ikusle hoin begi xorrotxekoa den izpiritu hunek geroa duela beti gogoan. Hartu dituen laguntzaileetarik batzu han harat deramatza adinak, bera bezala, egia erran. Bainan beti bilatu eta bilatzen ditu Lafittek gazteak bere ondoan. Nahiz lagun fidela eta bihotzekoa den bera bere denborakoentzat, beti nahi izan ditu berriketari berriak, herri bakotxean, eta hobe jaun ertora bera ez bada ez berri-emaile, ez kaseta saltzale.

Orai Herria astekariaren berak egitea ere badu hamar urte utzia duela, lehenik J. Hiriart-Urruty, gaur bikario jeneral dugunari, eta gero nihauri.

Utzia erran dut. Bainan zer da holako langile porrokatu batentzat lan baten uztea? Bi eskuak sakelan etxerat joan-eta lo ederrik egitea? Bainan bihotza su batek hartua delarik, egin ditakea holakorik? Ez! Lafittek Herria utzia izaitea hau da: bere zuzendari ordaina osoki libro utziz, konfiantxa osoa eginez kasik tronpatzen balitz ere, nork daki, biziari eta geroari eta besteri konfiantxa eginez... bizkitatean denbora berean beti hor izaitea bera beti laguntza ixil baten egiteko prest, noiznahi paperño bat eskuan jinez alegia deusez: "Ori! Besterik ez duzuneko! iduritzen bazaitzu!" Eta baterez gaitzikor iduritzen ez balitzait... Edo ere asteart guziz Baionarat jitea, kaseta egiteko egunean, irarkolarat eskainka: Baduzia zerbait korreitzeko"... kasik fagore bat galdatzen balu bezala bera baino gazteagoari, baldin berak ixil ixila oraino ere beharrez lanaren erdia eginen-eta.

Utzia izaitea, hau ere da Lafittentzat. Norbaitek, gazteagoetan, huts egiten badu kasetaren idazleetan, balio haundiko sail bat erortzerat utziz, orduan Lafitte zait heldu, beti bezala: "Nik eginen dautzut hori beste bat hatxeman artean, nahi baduzu!"

Eta horra nola doan Herria Lafittekin, 33 urte huntan. Berak bere lan guzien gaineat hartua, Lafitte bezala artzea onartzen duten langile andana batekin egun hemen zirezten berriketariak bezala: beste lan guzien gainerat eta urririk

amodio xoilez Euskal-Herriarentzat eta gure herrian bizi dadin euskara.

Piarres Lafitte maitea, milesker zuri! Zuk erakutsi bidean ez dugu guk zure heineko urratsa, bainan eskola hor da, nahi duenak segitu. Egunak jin, egunak joan, urak bide egin du eta kasetalaritza ez da duela 40 urtekoa. Kasetak ezpata xorrotxa bezala ziren denboran, xixtakor, alderdikari eta mementoko edo erlisioneko zuzenen zaintzale, ez zinuen nehori zorrik zure tantoaren sakatzeko. Orai aldiz badakizu zuk, nehork jakitekotz, mendea kanbiatu dela. Oh etzaizu, ez, luma lapustu edo kamustu, ez dautzu gatza idaia modakoen ur melekak iretsi. Gostukoa daukazu beti janari azkarra, idaien borroka, bainan badakizu kaseta bereziak sortu direla guduka hortako, zuk Aintzina sortu zinuen bezala eta denak harrapaka irakurtzen ditutzu. Herria aldiz nahi duzu orori idekia, denen argitzaile, gurikeriarik eta eztikeriarik gabe bainan gizonaren, biziaren, egiaren, herriaren errespetua lehen edukiz.

Hots! Zure aspalditikako lanen esperientziarekin, eta zure betiko bizitasunarekin, hor zaude beti gurekin eta hobe! Baitugu zure beharra, bazkari on batek arno xahar on batena bezala.

PIERRE LAFITTEREN OMENALDIA

Baigorri, 1977 - X - 22

Jean Haritschelhar

Euskaltzale jaun andereak,

Baigorrin zirezte beraz egun bilduak zuen urteko biltzar nausiaren egiteko. Ez da lehen aldia Baigorri hautatzen duzuela xede hortako.

Baigorriko mera gisa eta Baigorriar guzien izenean eskerrak bihurtzen derauzkitzuet egin duzuen hautuarentzat. Hautu ona segurki Baigorri errotik euskalduna baita kanpoz eta barnez, axalez eta mamiz, gorputzez eta bihotzez.

Ikusi dituzketzue Baigorriko etxe eta etxaldeak osoki napartarrak, beren harri gorrizko athaburu eta leiho buruekin, bi aldeetako harrizko paretek finkatzen dituztela aintzin alde xurian dauzkaten galeri ederrak. Ikusi duzue ere oixtian eliza, hori ere euskalduna XVII garren mendeko aldare nagusi batez apaindua. Plaza laxoa ere handi eta zabala, laxoan lehenik, errabotean gero, ezagutu baititu pilotak ukan dituen oren orroitgarriak. Ikusiko duzue bazkari denboran herriak eraiki duen trinket berria.

Barnez, mamiz, bihotzez Baigorri euskaldun dago. Nor nahik baino hobeki berrikitan galdu dugun Urepeleko pertsulariak, XALBADOR gure adixkideak, senditu eta erran du Baigorriren eskualtzaletasuna:

Euskal Herri guziko xoko pollitena
Zu zare zu Baigorri, ene maiterena,
Kantari, pilotari, oro dituzuna,
Euskara maiteari fidelik zaudena.

Beha zure umeak zoin zintzo dabiltzan
Astean lanean ta igandez elizan;
Nafarroa gaineko mendien gerizan
Zure Kaskointzerikan ez ditake izan.

Igande arratsaldez zoin den zoragarri
Baigorriko gazteak plazan pilotari!
Handik etxerakoan euskaraz kantari
Etsenplu har dezagun zu baitan Baigorri.

Huna beraz, Baigorri, Baxenabarreko herri euskalduna, ohoratua egun euskaltzaleen biltzar horrekin. Herriaren izenean agurtzen zituztet eta bihotzaren erditik erraiten derautzuet: "ONGI ETORRI DENERI".



P. Lafitte euskaltzain batzurekin.

Mera gisa agurtu balinbaditut egun Baigorrin diren Euskaltzaleak, zu nahi zintuzket orai agurtu: Jaun Kalonje maitea. Eta zutan bereziki Baigorriar baten semea, Baigorrin baituzu zure erroetarik bat, zure aita sortu zelakotz Baigorrin.

1868-an gira. Urdoze Buztinagan bizi da guarda familia bat. Henri Pascal Lafittek berrogoi eta hiru urte ditu. Ezkondua da Catherine Ithurralderekin eta 1868-ko maiatzaren 31-an sortzen zaie seme bat, zure aita izanen dena: Joseph emaiten diote izena.

Beraz zuk ere Oxobi bezala baduzu zer ikusteko Baigorrirekin. Jakin zazu ohore zaukula.

Alabainan izan dea sekulan, gure Euskal Herri maitean, zuk bezenbat egin duenik euskararen alde? Jadanik ikusten dut zimurtzen duzula aurpegia. Egia erran, ez zira ohorez gose eta ez dituzu konplimenduak maite. Eta zuk nahi ala ez egia balitz erraiten dudana. Hartarat noa.

Badu 50 urte baino gehiago euskara erabiltzen, idazten eta lantzen duzula. Egin dituzun lanen tituluek hiruzpalau orrialde betetzen dituzte Jon Bilbaok agertarazi duen bibliografian. Ez ditut denak aipaituko aspergarri baititaike denentzat bainan heietan hautatuko ditut zoinbeit, ene ustez handienak, aberatsenak, baliosenak.

Gure hizkuntza duzu maitatu bereziki. Bainan zer ote da hizkuntza? Da lehenik hitza, hitzarekin erraileak besteari zerbait adiarazten baitako; da gero hitz artekoen joskera, egun guzietako mintzaira baliatuz edo mintzo aberatsagoa bilatuz. Hitza euskaldun gehienek amaren bularretan xurgatu dute eta gero familian lehenik, auzo eta herritarren laguntzarekin aberasten eta joritzen dute. Bainan aski ote dea hori hizkuntza batez jabetzeko? Ez dea eginbide guretzat euskararen lantzea, irakurtuz, ikasiz eta idatziz? Zer bada egin tresnarik gabe, euskal hiztegirik eta gramatikarik gabe?

Ez dut erran nahi zuk baino lehen nehork ez zuela deus egin xede horieri buruz. Hamaseigarren mendetik hunarat badakigu hortaz kezkaturik zaudela euskaldun asko. Heien lanak baliatu dituzu, aitortuz goraki zer ziren zinituen zorrak. Hara beraz aita Lhande-n hiztegia. Nork daki hiztegi hortan frango guti arizan dela aita Lhande, baitzuen orduan bertzerik egiteko eta egiazko langile errabiatuak zirela Aranart jauna eta zu? Ipar Euskal Herrian agertu den hiztegirik aberatsena da. Hamar urte baino gehiago pasatu ditutzue lan hortan, gauak egun eginez behin baino gehiagotan.

Bazinuten bertze asmorik: frantses euskara deitu hiztegi bat egin behar zinutela. Bainan denbora joan zen, gerla etorri. Zorionez bertze euskaltzale bat lotu zen lanari eta egun batez ekarri zauzun egin zuena. Eta zuk, bertze batek ogia eta arrainak hartu zituen bezala eta emendatu, zuk ere hartu zinuen hiztegiño hori eta osoki osatu. Edozoin idazlek bi hizte-

gi horiek bere idazteko mahainaren gainean dauzka. Ez dezake deus egin horiek gabe. Egun guzietako lagunak ditu.

Eta zure gramatika, lapurtar baxenabartar gramatika, ez ote da hori ere ikasleak, erakasleak, idazleak behar duen eskupeko tresna? 500 orrialde eskas ditu eta hor izen, izen lagun, aditz eta edozoin gramatikazko hitzek hartzen dute bizi berezi bat. Badakit ez zirela beti ados orduan erakutsi zinituen gauzekin, 1944 ean agertarazi baitzinuen eta geroztik linguistikak asko aintzinamendu egin duelakotz. Badakik –zuhaurek erranik– berriz egin behar bazinu ez zinezakela berdin egin. Bainan halere hor dago obra balios eta beharrezkoa, bere osotasunean. Zeren eta zernahi aurki ditake liburu hortan: etsenplu bat: Axularren Geroa irakurtzean hatxeman nuen sekulan aurkitu ez nuen hitz bat, aditza iduriz: lekidikaio. Eskuratzen dut zure gramatika (egia erran, aski nuen eskua hedatzea, beti menpean baitaukat) eta 269 garren orrialdean esplikatzen duzu nundik datorren forma hori eta bide nabar erakusten daukuzu gure ahaltasunezko *ke* hizkia *kai* (edo *gai*) etik datorrela.

Hiztegi eta gramatika egile alde batetik bainan literatura argitzaile ere. Berriz biziarazi dituzu hemen nahas mahas emaiten ditudan Adema eta Barbier, Lacombe eta Landerretche, Aita Blaise Babaguy, Julien Heguy apeza, Gasteluzar, Oihenart bere "Art poetique" delakoarekin, Manex Etxamendy, Etchepare, Hiriart-Urruty, gure bikario jeneralaren osaba, Dibarrart, Saint Pierre, Oxobi, Salvat Monho, Lassalle, Arotçarena. Zuri esker heien obrak, olerki ala hitz laxo, denen eskuetan izan ditaizke, hala hola gure kantu xaharrak *Kantaz, Errepikan* edo *Kantu Kanta Kantore* liburuekin Euskal Herriko etxe guzietan sartu baitira.

Horrekin aski, utzi behar baiteiet bertzer, zerbait erraiteko. Hiztegi, gramatika eta literaturari buruz egin obrekin agertzen zira zure bizi guzian izan zirena: erakasle gehien, egiazko maisu. Euskal kulturak ukan du zu baitan sustatzaile paregabea, ez bakarrik egin dituzun lanen gatik bainan sortu dituzun dizipuluekin eta egun eskerdun agertzen zauzu Euskal Herri osoa aitortzen dutela denek zer zorretan dauden zurekin.

Eta ez nezake burura mintzaldi hau buruz burukako bi hitz erran gabe. Orhoit zirea jaun Kalonje maitea; 1955-eko

Uztaila zen. Herria astekarian bulegoan sartu zen gizon gazte bat zu ikusi beharrez. Ez zinuten elgar ezagutzen eta erran zauzun gizon gazteak nahi zituela euskal ixtudioak hasi, nahi zuela euskara landu eta sakondu. Orduan irri goxoño batekin itzuli zinen eta harmairu batetarik hartu zinituen eta hautatu dotzena bat liburu.

—Zonbat zor dauzut, Jauna?

eta zuk:

—Ez dautzut deus galdegiten, bakarrik lanean artzea.

Eskerrak bihurturik joan nintzan. Liburu heien artean Larrasquet-ek Etxahuni buruz eginikako liburua. Ikus dezakezu, jaun Kalonjea, zer ondorioak ukaiten ahal dituen emaitza batek. Eta geroztik beti elgar ikusi dugu, geroztik segitu dituzu ene ikertzeak, eskaini zure kontseiluak, irakurtu ene lanak, xuxendu ene hutsak. Zer atsegina neretzat erakaskuntzako Jaun minixtroak onhartu zuelarik izan ziten Lafon eta Mitxelenarekin ene "tesis"-aren haztatzaile.

Eta egun duela 22 urte egin nauzun galde berbera egiten dauzut:

—Zer zor dauzut Jauna?

—Zuk arraposturik ez.

Eta nik orduan: zor dautzut Jauna dudan euskararen amodioa, hitz batez zor dautzut ene euskaltasuna. Hortakotz bihotzaren zolatik: MILESKER JAUNA!

IZENDEGIA

EUSKAL IZENDEGIARI BURUZKO AGERPENA*

1977 - VIII - 26

J. M.ª Satrustegi

Iragan maiatzeko euskaltzain osoen batzarrean, uste gabeko idazki bat banatu zitzaigun. Julio Urkixo Mintegiko liburutegira iritxi arte ez nuen nik horren berririk. Arratsaldean aurkeztekoa zen "Euskal Izendegiari" buruz egina izan arren.

Egia esan, urte hauetan ohiturik nago era guzitako gutunak jasotzen. Jokabidez, ohar eta argibide ganorazkoak hartu eta piper bixia erantzunik gabe utzi izan dut askotan.

Oraikoan ez da hala. Erantzuna zor zaien izenak eta gizonak bereizten erakutsi zidan aspaldi biziak. Alfontxoren lanean, mingarriz beste alde, bada ikasgairik aski eta argipena eskatzen duen punduren bat edo beste.

Nere asmoa, nola nahi ere, ez da mikatza ozpintzekoa. Uste dut badugula beste egitekorik, bai Euskal Herriari buruz, nahiz Euskaltzaindiaren arazoetan, lana egin nahi dugunok. Bide medarregietan galtzen ahal gintezke bestela. Mezua hartu ondoan beste zerbait uste balu ere norbaitek, 'Euskal Izendegia' egitean jarraitu dudan bidea garbi utzi nahi dut. Egiak ez du bide bat baizik.

Salaketak

Zati bietan banaturik dago Irigoien jaunaren idazkia. Sarrera antzeko orria, alde batetik, eta zonbait izenei buruz

*"Etxeko sua, etxeko hautsarekin estali", esan ohi zuten gure arbasoek. Horrexegatik, gure arteko eztabaida hau argitaratu gabe utzi nahi nuen nik, eta ez "EUSKERA-n" sartu.

Ikusirik orain Alfontxok, bere aldetik, beste aldizkari batzutan erdaraz emandakoa EUSKERA-n ere argitaratu duela, nire izen ta guzti (1977, 561 or.), uste dut beharturik nagoela Euskaltzaindiari egin nion agerpena aldizkari berean argitaratzera.

egindako filologi eta histori kutsuko oharrak. Lehenbizikoaz mintzatuko naiz bakarrik, bigarrena jaso eta kontuan dudalarik noski. Puntu nagusiak aipatuko ditut:

1. *Ofizialtasuna.* Euskal Izendegiaren ofizialtasuna izango litzateke idazkian eztabaidatzen den pundu nagusia. Lanbro antzeko joskera batean esanak dira gauzak eta ez da oso garbi ikusten. Baina, hala dirudi. Lerro artean izkutatuko beste zerbait ere balegoke; baina ikusten dena hauxe da.

Euskaltzaindiari egindako agerpena izan arren, erdaraz zegoen. Ez dakit zergatik. Aipamenak, beraz, dauden eran berraipatuko ditut. Euskal izendegiari buruz esanak dira honako hitz hauek:

> "Lleva la firma de J. M. Satrustegui, si bien más abajo se señala como *Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala.* Esta segunda parte nos atañe a los miembros de la Academia"

Azpimarratua berea da. Lerro batzu aurrerago ofizialtasunaren salaketa bera egingo du:

> "En la primera edición de 1972 simplemente se decía 'edición oficial de la Academia de la Lengua Vasca' y llevaba la firma del autor. En cualquier caso en esta segunda ocasión no se nos enviaron previamente las listas para consulta, si es que pretendía que la Academia como Corporación las aceptase como suyas."

Hutsunea, beraz, larria da. Dirudienez, nere zorrotik atera dut oraikoan ofizialtasun hori. Euskaltzaindiari buruz, lan bastarta; eta bere egilea gezurtia. Eta aitzakiak ez dute balio:

> "La prisa por la demanda existente puede ser un argumento que se esgrima, pero ello no arregla la cuestión."

2. *Batzordea.* Egilea gainera batzordekoa da: Alfontxo, alegia, Euskal Izendegiaren batzordekoa. Ez du ukatzen, noski:

> "Debo señalar que fui nombrado para formar parte de la comisión correspondiente y que asistí a las reuniones celebradas, que, salvo error, fueron dos. Para la primera se nos envió previamente una consulta sobre algunos puntos que se le presentaban dudosos al autor y que si bien no respondí previamente por escrito, como al pare-

cer debía de haber hecho, expuse por mi parte clara y detalladamente mis puntos de vista sobre aquellas cuestiones concretas, las cuales creo que en conjunto fueron atendidas. En la segunda se nos leyó el prólogo que iba a llevar."

Ez da dudarik; salatzailea batzordekoa da. Azpimarratu nahi dut hau, gero esango dudanari begira.

3. *Eritzi personala.* Behin eta berriz adierazi du Irigoien jaunak, hemen eta aldizkarietan, bere eritzi berezia. Gutunean salatzen du. Hobe izango da bere hitzak entzutea:

"Yo por mi parte leí el segundo trabajo que luego apareció en *Punto y Hora de Euskal Herria*, donde exponía un punto de vista de tipo general. Luego, sin más, el asunto tomó el camino de la imprenta."

Gure euskaltzain laguna hizkuntzalaria da, noski, eta hortan ari da, idazkian dioenez. Aitortzen du, hala ere, gutuneko arazo hauek gurasoek beren haurrentzat aukeratu nahi dituzten izenen bidetatik piskaren bat lekutu egiten direla:

"Las observaciones que pude hacer *a priori* no puedo hacerlas más que *a posteriori*. Aprovecho la ocasión para tratar a fondo algunos de los temas en que me ocupo, derivando en intentos de aproximación histórica por tratarse de cuestiones que están necesitadas de aclaración, aunque me aleje un poco del tema de la elección de nombre para sus hijos por parte de los padres o de las personas interesadas."

Hiru pundu dira, beraz, Irigoienek salatzen dituenak: 1) Ofizialtasuna. 2) Batzordea, eta 3) kezka pertsonalak.

Erantzuna

Ez dut uste gauzak nola joan diren adieraztea zaila izango zaidanik. Izan ere urrats guziak Euskaltzaindiaren eskutik emanak ditut eta batzar agirietan jasoak dira. Hauek ditut, beraz, lekuko:

1971

Udako opor garaian Iruñeko adiskide batzu pertsona izen zerrenda bat eskatu zidaten. Ez nien hori egiten hasteko

gogo haundirik agertu. Izan ere, lege kontuan bide oso medarrak genituen. Udazkenean eskari bera egin zidaten, diru etxe batek bere kontu argitaratuko zuela jakinaraziz.

1971

Abenduan egindako euskaltzain osoen goizeko batzarrean, nere asmo honen berri eman nuen, Euskaltzaindiak lana bere babesean hartu nahi bazuen berari eskaintzen.

1971rako lanen egitarauan sartzea erabaki zen. Hitz hauekin jaso zuen agiriak: "Pertsona izenen lista, dokumentaturik, hornitzea eta agertzea".

1972

Otsaileko Euskaltzaindiaren batzarrean, lege giroa nola zegoen eta bidea urratzen nundik hasi zaitekeen ikusiz, nere asmoa konkretoki agertu nuen txosten batean.

Batzar agirian hitz hauekin jasorik dago: "b) *Pertsona izendegiaz*. Satrustegi jaunak txosten bat irakurri du pertsona izendegiari buruz. Izendegi hau Satrustegik berak prestatuko du beste askoren laguntzaz. Izen bakoitza zein dokumentutan agertzen den zehatz argituaz egina izango da. Euskaltzaindiaren babesean Iruñeko diru-etxe bat gertu dago liburu batean bildurik argitaratuaz zabalkunde handia egiteko. Izendegi hau sailka egingo da, lehenengo izendegi ttipia, historikoak, santu izendegikoak eta Andra Mariak".

1972

Irailako batzarrean, urte barruan egindako lanaren berri eman nuen beste txosten batean. Hara zer dion erabakiak: "b) *Giza-emakumeen izendegia*. J. M. Satrustegiren txostena, Euskaltzaindiaren eskarizko izen zerrenda hornitzeko zer bide eta zer aburu jarraitu duen adierazten du, agiri zaharretatik eta gaur hedatuak, izen bakoitzari bere jatorrizko agirien berri emanaz, eta gainerako zenbait xehetasunez adieraziaz. Laguntzailerik izan du aski. Orain arteko izendegiz eta batez ere Nafarroako agiri zaharrez baliatuz hornitu du bere lana".

"Goizean, hontaz, batzordeak bilera berezia izan du eta biltzaileak beren eritziak agertu dituzte izendegi honen alde.

Nafarroako diru-etxe batek 50 mila aleko argitalpena egin nahi du bere kontu duarik zabaltzeko, eta *Euskaltzaindiak bere babes osoa hartzea* erabagi du. Eskerrak ematen zaizkio Satrustegi jaunari egin duen lan handi eta zehatzagatik".

Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren agiriak ere jaso zuen on hartze hau: "Satrustegi euskaltzainak, bere egunean eskaturiko euskal izendegia aurkeztu zuen eta onartua izan zen".

Lehenbiziko argitalpenaren ofizialtasuna, beraz, argi dago.

1976

Apirilaren 30. Arratsaldeko batzarraren deian, honako gai hau dator: "d) J. M. Satrustegi jaunaren txostena "Euskal izendegiaren gaurkotzeaz eta bigarren argitalpenaz".

Egun horretako batzar agirian datorrena: "a) *Euskal izendegia gaurkotzeaz.* Satrustegi jaunak pertsona izenen lege berritzearen asmoak agertzen ditu, eta ondorean euskal izendegi berritzera erabili dituen aburuak azalduaz. Bere asmook ongi ikusiak izan dira eta *bide beretik jarraitzea eskatzen zaio.* Berak, bere aldetik, lehengoaren gehigarriz zerbait eskaini dezatenei laguntza eskarizko deia egiten die. Oraingo berri hau ere Banco de Vasconiak argitaratzea onartu da".

1976.X.29

Sei ilabeteren buruan, urriaren 29an, beste eskabide bat egin nuen bakoitzaren oharrak eskatzen. Goizeko bilkuraren berri ematean honela dio agiriak: "Izendegia hornitzeko, nahiz behar diren zuzenketak egiteko Euskaltzaindiko guziei dei egitea erabaki da, bakoitzak berari deritzan oharrak bialtzeko, nahiz, J. M. Satrustegi jaunari edo nahiz Euskaltzaindiko bulegora".

Zalantzako pundu zenbait aipatuz, hamairu ataleko itaunketa bat zabaldu nuen euskaltzain guzien artean. Arratsaldeko batzarrean "Izendegia berritzeko eta hornitzeko batzordea izendatu zen".

1976.XI.26

Julio Urkixo Mintegiko liburutegian Euskal Izendegiaren batzordea bildurik, eta jasotako oharrak aurrean zirela,

urriaren 29ko batzarrean banatutako itaunketa aztertu zen. Irigoien jaunak hitzez egin zituen bere oharrak eta salaketan dioen bezala, kontuan hartu genizkion (las cuales creo que en conjunto fueron atendidas).

Honen berri ematen du batzar agiriak: "Goizean, euskaltzain osoak, izendegi batzordekoak eta irakaslego batzordekoak bildu dira. Izendegiari buruzkoan J. M. Satrustegik emanak ditu zenbait argitasun".

Arratsaldean azken txostena irakurri nuen. Agiriak honela dio: "b) *Euskal Izendegia ugaritzeaz, gaurkotzeaz eta argitalpen berriaz*. J. M. Satrustegi jaunaren txostena. Gai hontaz jaso zituen iritziak eta oharrak adierazi ondorean bere aburuak agertu ditu, era berean goizeko bilkuran egin diren azterketen berri emanez. Historian zehar eta ohituraz etorri zaizkigun izenez gainera haintzat hartuko dira gure literaturan eta mitologian erabili direnak ere".

Bigarren argitalpenean sartzekoak ziren izenen zerrendarik ez zitzaiela batzordekoei eman, salatzen du Irigoien jaunak. Ez dut uste halakorik egin nuenik. Egun horretan, hain zuzen ere, azaroaren 26eko euskaltzain osoen bilkuran, aurkeztu nuen sartzekoak ziren izenen zerrenda. Eskuz esku ibili zen goizeko bileran, eta honako ohar hau egin zuen Alfontxok arratsaldeko batzarrean: "*Herrikoi* hitza zearo kendu behar da iturri agerpen bezala. Badut nik horren esperientzia frango". Ez dakit nola esan dezakeen gero ez dudala aurrez izen zerrendarik ekarri.

Ofizialtasuna ez dut nik bilatu, ez nehori erregutu. Lana hasi aurretik nuen Euskaltzaindiaren eritzia eskatu, eta bere esanera egin dut lana. Ez nabil neurekeriak aurrera atera nahian. Zer irabaziko nuke horrekin?

1977.I.28

Liburuaren hitzaurrea jakinarazi nuen arratsaldeko bileran, eta Agirian jaso zen: "J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak bere esku utzi zen euskal izendegiaren azalpena egin du, lanak eramango duen hitzaurrea irakurriz". Hau ere ez dut, beraz, nere gauza bezala hartu. Frantzes itzulpena Haritschelhar lehendakari ordezkoak egin zidan, gainera.

Beste ohartxo batzu badaude aipatzekoak diren ez dakidanak. 1972eko argitalpenak "edición de la Academia de la

Lengua Vasca'' soil soilik —simplemente— esaten omen zuen. Oraikoak berriz ''Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala'' esaten omen du. Bai noski, euskarari bere garrantzia ematen hasi nahi genuelako, lehenik euskara ipini dugu argitalpen huntan eta gero beste hizkuntzak. Lehen, gainera, Academia hutsa, eta orain Real Academia. Garaian garaikoak. Beste batez, behar bada, euskaraz bakarrik. Txarrena erdara hutsera itzultzea izango litzateke. Zer hutsune dago hortan?

Irigoien jaunarentzat, presakako lana izan omen da bigarren argitalpena. 1976eko apirilaren 30etik, aurtengo maiatzaren 28ra hamairu ilabete joan dira. Aski luze gehienontzat. Nola nahi dela, eskubide osoa du bakoitzak bere eritzietan.

2. *Batzordea*. Haste hastetik batzorde bat badu Euskaltzaindiak Euskal Izendegia aurrera eramaten laguntzeko. Alfontxo Irigoien barne dago, bai lehenbiziko nahiz bigarren argitalpenerako, joan den bost urtean. Batzordeko bakoitzak bere zorro edo karpeta berezia badu nere artxiboan, eta laguntza oso ona jaso dut gehinengandik. Hor geldituko da ekintza honen historioa egiten den egunerako.

Orain esan behar dudana, ez nuen nik inoiz aipatuko, hitzak hizbide emanik izan ez balitz. Baina, Irigoien jaunaren zorroan ez dut fitxik. Ez dit sekula santan idazkiz ohartxo bat egin. Han ditut, hori bai, batzordez kanpo egin dituen lanak: Euskaltzaindira ekarritako biak, Garaia-ko ''Un punto de onomástica vasca'', Anaitasuna-n argitaratu zuen ''Eta 'Kemen'' zergatik ez, eta maiatzeko salakuntza.

3. *Eritzi pertsonala*. Bere eritzia ez zela haintzat hartu salatzen du Irigoien jaunak. Hori ez da nere gauza. Bidea, Euskal Izendegiak *gaurkotz* jarraitu behar duen bidea —herrikoia, noski— Euskaltzaindiak berak erabaki du. Aldatu ere, Euskaltzaindiak bakarrik aldatu dezake.

Izan ere, Euskaltzaindiak badaki horren berri. 1976eko uztailaren 26an euskaltzain osoen bilerara ekarri zuen txostenean, Irigoienek eskabide hauek dakartza:

''Euskaltzaindiari eskatzen diodana hauxe da:

1. Hontzat (Hrekin) eta zuzen bezala har ditzala euskaldunen artean korritu eta korritzen duten pertsona izen bakoitzaren aldaera guztiak bata bestea baino hobetzat

juzgatu gabe eta ez dadila bere helburua izan pertsona izen bakoitzaren aldaerok forma bakar bat betiko izatera nahi ta nahi ez iritsi behar dutela eta hutz dezala hau etorkizunean bortxatu gabe sortzen diren ohituren arauera.

2. Aipaturikako eritzia bere dotrina bezala harturik agirian ipin dezala, eta, inoiz behar balitz, Estatu istituzionalizatuaren beraren aurrean ere hala ager dezala behar den indar eta zorroztasun osoz, Estatu horren eritzia hala ez balitz ere.

Jakina, Euskal Akademiara kontseilu eske doazenei hark beretzat puntuok dotrina bezala hartzen dituen —hartzen baldin ba ditu— arauera erantzun beharko zaie. Heldu dela ordua halako gauzetan bururik ez makurtzeko diotset euskaldunei eta denon artean Euskal Akademiak bakarrik ezin egin dezakeena egin ahal izango dugula''.

Laburpena

Euskal Izendegiaren lanbidean ez dut neure eritzi pertsonalekin jokatu. Aurrez asmo guzien berri ematen joan naiz Euskaltzaindiari, eta bere erabakien arauera egin dut lana. Beste eritzi batzu badira, noski, gure artean eta Euskaltzaindiak ikusiko du orain arte bezala, zeini jarraitu. Berak hautatuak ez badu ofizialtasunik merezi, zeinentzat gordeko du?

Gertatua gertatu, kontuz ibili beharko dugu. Batzorde baten lana elkarren arteko lana izan ohi da, edo ez da batzordea. Izendatu aurretik, batzartzeko gogorik baduen ikusi behar litzateke lehenik, eta gero hartu ala utzi.

Ordu asko eta asko sartu dudala, esango dizuet; beste lan ugari bazterturik aritu naiz huntan. Ez dut uste eztabaida hunek, euskaltzain lagun bezala ez gizamaila hutsean asko esaten duenik gure alde.

Ez da lana bakarrik, nik hontan utzi dudana; diru asko gosta zait fitxero eta esku arteko guzia. Ehuneka gutun eta galderari erantzuna eman behar izan diot. Badakite hortaz zerbait gure bulegoetako idazkari prestuek. Alemania federakuntzakora izendegia bialtzea 26 pta. gostatzen da. Ipar Ameriketara gehiago. Ez, ez da orduak eta lana bakarrik.

Orain arte ez diot nehori deus eskatu, eta ez dit nehork ere galdetu. Ez naiz diruduna, baina neuretik egin dut. Beti uste izan dut herriaren aurrean erantzunkizun bat badugula, eta nerea bide horretatik doa, edo hortik joan da behintzat.

Gaur, gure arteko giroa ikusita, aspertzen hasia naiz eta ez dakit ez litzatekeen hobe hemendik aurrera etxean gelditzea. Lana badut; ezin buru eman dut. Ez diogu hala elkarri itzalik egingo.

Azkena. Ez dakit eztabaida zoritxarreko hau Euskaltzaindiaren artxiboetan sartzeko asmorik baduzuen ala ez. Nere aldetik ez dago eragozpenik. Euskal Izendegiaren historian behar bada interesgarri izango litzateke.

GRAMATIKA

"EDUCACION" HITZAREN EUSKAL ORDAINAZ C. SANTAMARIA JAUNAREN GALDERARI ERANTZUN AURREKO TXOSTENA

Donostia, 1978 - II - 24

Fr. Luis Villasante

Euskaltzaindiko jaunak:

Carlos Santamaria jauna, euskaltzain laguntzailea, izendatua edo begiz joa izan da kargu handi baterako Euskal Kontseilu Orokor delakoan.

Uste dut berri hau guztiz pozgarria dela gu guztiontzat. Denok dakigu, eta anitzetan frogatu dugu, zein atxikia den jaun hau bai euskarari eta bai Euskaltzaindiari. Ene ustez izendapen hunengatik geure poza agertu behar genioke, eta bai geure laguntza eskeini ere.

Eta huna hemen jaun hunek egiten digun lehen eskaria: "Educación" hitza euskaraz nola esan behar den galdetzen digu. Hori galdetzen dio Euskaltzaindiari. Azkenaldi huntan erabiltzen den *heziketa* hitza ez omen du hain gogoko. Ez zaio atsegin, alegia, erroaren aldetik eta gutxiago oraindik atzizkiaren aldetik. Eta eskatzen dit hurrengo bileran —oraikoan, noski— hortaz mintzatzeko, eta erantzuna berari emateko.

Nik ez dut asti gehiegi izan gai huntaz halako bilakuntza eta azterketa handirik egiteko.

Eskumenean ditudan zenbait tresna edo hiztegitan zer aurkitu dudan eta hura aurkezten dizuet, argibide edo laguntza gisa. Gero denon artean saiatuko gara jaun huni zor diogun erantzuna ematen.

1. Eta has gaitezen Axular-gandik, bildu ditudan datoetan berau baita zaharrena.

Axular-en Hiztegia-n "Educar" hitzaren ordainak bezala hauk datoz: *Hazi, zentzatu.*

Beste hitz hauk ere aipatzen dira:

Haz-lekhu "criadero".

Hazkuntza "costumbre", "crianza".

Ikus dezagun Hiztegi huntan aipatzen den pasarteren bat edo beste:

Ax 217: *Ene eskolan eta konpainian haziak eta ikhasiak, zaretela* ("educados e instruidos").

Ax 59: *Eta berriz bertzea hazi zuen kanpoan, ihiziko orekin batean.*

Berez *hazi* "criar" da, noski, baina hedaduraz "educar" esanahia adierazteko ere egokia bideda.

Axular-en Hiztegian *Hezi* hitza "domar" esanahiaz dator xoilki:

AX 59: *Zamaria gazte deiño hezten da.*

Ax 316: *Diren gauzarik gogorrenak, molde gaitzenak eta hez-gaitzenak ere, hezten, beratzen, moldatzen eta eskueta-ratzeintu amorioak.*

2. LARRAMENDI, *Diccionario Trilingüe,* 1745:

"Educación" *Aziera, azkera, azkuntza, oikantza.*

3. AÑIBARRO, *Voces Bascongadas Diferenciales:*

"Educación" (común) *aziera, aziekera* (sic), *azkera.*
"Educar" (común) *azi.*

4. AZKUE, *Diccionario Vasco Español Francés:*

Hazi. Lehenbiziko esanahia dakar: "criar", "educar", "crecer".

Beste hitz hauk ere badakartzi:

Haziera, hazikera "educación", "crianza". Peru Abarka-ren pasarte hau aipatzen du: *"Toki hau... aziera txarrekoentzat obea da.*

Hazkuntza "costumbre", "hábito"; "alimento".

Hezi "domar". Baina hirugarren adiera bezala hau ematen du:

AN goiz "educar". Beste xehetasunik ez dakar.

5. LHANDE, *Dictionnaire Basque-Français*:

Hazi 1.º "nourrir", 2.º "élever" (hau da, "educar").

Hezi 1.º "dompter les animaux", 2.º "dompter les passions".

6. TOURNIER-LAFITTE, *Lexique Français-Basque:*

"Elever", "éduquer" *eskolatu, altxatu, eraiki, hazi.*

"Eduquer" *altxatu, eskolatu, hazi.*

Altxatu hau Ipar-aldeko idazleetan maiz ikusten da. Uste dut "élever" horren eraginez eratua izango dela.

7. PLACIDO MUGICA, *Diccionario Castellano-Vasco*:

"Educación" 1.º "Acción de educar" *ezitze, aziera* (c), *azkuntza, eziera.* 2.º "Crianza", "enseñanza" *aziera* (c), *aztura* (G), *azkuntza, azkuntze, azikera, ezkuntza.* "Centro de educación" *aztetxe.*

8. KINTANA-TOBAR, *Euskal Hiztegi Modernoa:*

"Educación" Heziera, Hezkuntza.

9. LUIS M.ª MUGICA, *Diccionario General y Técnico:*

"Educación" *Hezketa.*

10. *Diccionario Retana de Autoridades:*

Uztarik joriena hemen aurkitu dut.

Azi. Azkeneko adiera hau dakar: ANc, Bc, Gc, BN, Lc, Sc, "criar", "educar".

Azibide "crianza".

Aziera "educación", "crianza".

Azikaspen "educación". *Nun egozan bere gurasuak azikaspen onagua ez emoteko!* (DURALDE, *Euskal Esnalea* 1923, 171).

Azkera "Educación". *Egiten dau pekatu, obediu nai ezteutzanian senarrari, biar dan gauzaren bat aginduten deutzanian, semien azkera, etxeko gobernu, ondasun eta beste gauza nagusi baten ganian.* (ASTARLOA, *Urteko* I, 270).

Azipide "educación".

Azitasun "educación".

Azitegi, Azitoki "semillero".

Azitetxe "seminario".

Aziriko "educado". Aipamen hau dakar: *Jaungoikuak alan nairik, ezkondu zan Franziska eritxan neskatilla garbi ta ondo azirikuagaz* (J. J. MOGEL, *Etxeko eskola*, 7).

Azkunde 1.º "Desenvolvimiento", 2.º "Educación".

Aztetxe "Colegio". Aipamen hauk dakartzi: *"Colejioai" Aztetxeak deituko nieke. Mutillak eta neskatxak, zuzen eta sendo azitzeko etxeak bai dira "Colejioak". Erderazko "educar", euskeraz azi esan genezake. Ortik dakarkegu azitzeko etxea edo aztetxea.* (G. BIONA, *Euskal Esnalea* 1929, 21). *Donostiako senar-emazteak Lekarotz-ko Aztetxean zeukaten mutilla ikustera.* (A. ANABITARTE, *Poli*, 71).

Jakina, *Diccionario Retana* hunek "E" letra oraindik ez du atera. Ezin jakin, beraz, *Ezi*-ri buruz zer ekarriko lukeen.

11. *Diario Oficial del País Vasco / Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa* (Leopoldo Zugaza-ren argitalpena).

943. orrialdean hau aurkitu dut:

"Educación física" *Soin azikera.*

* * *

Atzizkien artean, gure kasu huntarako zein da egokiena: *-bide/pide, -era/kera, -keta, -kunde, -kuntza, -men/pen/mendu, -tzapen/tapen, -zio/zione?*

Ez dakit. Guri gertatzen zaiguna, ene ustez, hau da: hitzok, enplegu faltaz, ez ohi dutela gure belarrietan errorik aski, eta hasi berritan arrotz iruditzen zaizkigula denak. Baina bat hautatu beharra daukagu eta hura beti erabili. Erabiliaren erabiliz hartuko luke hitzak orai ez duen kutsua.

* * *

Hazi eta Hezi-ren artean, bildu ditugun aitorrerak ikusirik, hau esan behar dela dirudi: *Hazi*-ren alde dagoela tradizioa, eta tradizio hori azkenaldi huntan puskatu dela, *hezi* hautatuz.

* * *

Zer egin, beraz?

Gure Aita Alustiza idazle eta herri predikari jatorrari galdetu diot zer jarriko lukeen berak "Educación" esateko. Eta erantzun hau eman dit: Bat ere dudarik gabe eta gaurko erari jarraituz: *Hezkuntza.*

Eta hunekin bukatzen dut neure txostena.

Orai ikus dezagun denon artean Santamaria jaunari zer erantzun behar diogun.

VERBO VASCO POR "MANAR, FLUIR"
ERION ala JARIO

A. Polikarpo Zarranz
(Iraizoz-koa)

Es conocido el verbo vasco conjugado sintéticamente: *dario, darizkio, zerion, zerizkion*, que significa manar, fluir.

Es un verbo intransitivo con sujeto de la cosa que mana y dativo del objeto al cual le mana. Aunque algunos gramáticos y tratadistas lo hacen transitivo. Y así en vez de *zauriari odola dario*, que es lo correcto, dicen *zauriak odola dario*. El mismo Larramendi lo trata como tal y en su Diccionario le ha inventado una conjugación completa, jamás usada en el pueblo ni en los autores.

Partiendo de las formas populares que tengo anotadas por ahora, es fácil completar la conjugación:

Presente		*Con sujeto singular*	*Pasado*
Niri	odola	darit	zeridan
hiri	odola	darik, darin	zerikan, zerinan
hari	odola	dario	zerion
guri	odola	darigu	zerigun
zuri	odola	darizu	zerizun
zuei	odola	darizue	zerizuen
haiei	odola	dari(ot)e	zeri(ot)en
		Con sujeto plural	
Niri	malkoak	darizkit	zerizkidan
hiri	malkoak	DARIZKIK, DARIZKIN	zerizkikan, zerizkinan
hari	malkoak	darizkio	zerizkion
guri	malkoak	darizkigu	zerizkigun
zuri	malkoak	darizkizu	zerizkizun
zuei	malkoak	darizkizue	zerizkizuen
haiei	malkoak	darizki(ot)e	zerizki(ot)en

¿Cómo se enuncia este verbo o cual es su participio? Se han propuesto varias: *jariatu, jarien, erion, jarion*. Pero nin-

guno de ellos puede dar razón de las formas sintéticas conocidas.

1) *Jariatu.*—Es cosa sabida que ningún verbo de participio en *-tu* admite la conjugación sintética. No son excepción de esta regla los verbos *ezagutu, jarraitu*, y menos aún *egondu, izandu, jakindu*. Son participios secundarios, cuyos primitivos son *ezagun, jarraiki* (jarrain?), *egon, izan, jakin*. Y estos sí que tienen conjugación sintética.

Es verdad que Leizarraga emplea alguna vez *jariatu*, en conjugación perifrástica: *Ur vicizco fluvioak jariaturen zaizca* (Io 7, 38) = le manarán ríos de agua viva. Pero parece una palabra ocasional, inventada por el autor, no usada en el pueblo ni en otros autores. En todo caso no daría razón de las formas sintéticas populares arriba mencionadas.

2) *Jarien.*—En Axular figura una vez el nombre verbal *jarieten*, que supone un participio *jarien* (no *jarietu*, cuyo nombre verbal sería *jarietze*, como de *berretu* ez *berretze*). Y tampoco *jarien* explicaría las formas populares como *dario, darigu, zerion, zeridan*, etc.

3) *Erion, jarion.*—Hay que descartar también estos participios. De ellos no pueden venir las formas sintéticas *darik, darizu, darizkizue*, etc., en que no aparece la *o* del participio, como aparece en la tercera persona. Es que esa *o* no pertenece a la raíz del verbo; es precisamente la *o* que en la conjugación indica el dativo de la tercera persona singular: dari*o* como dagi*o*, narrai*o*, zai*o*, di*o*, etc.

4) *Erin.*—He pensado si será éste el participio que se busca. Formalmente podría serlo. Como de *egin* viene *dagio*, de *erin* podía venir *dario*. Pero es una palabra tan rara! Sólo aparece una vez en RyS (n. 100) en una sentencia, cuyo significado no es nada claro: *Erin gauza geiztoai egin* = purgar a las cosas malas hacer. ¿Qué significa eso? *¿Erin = purgar = manar?*

Descartados esos participios, pienso que el que cumple todos los requisitos es

JARIN

Usados varias veces por Lizarraga de Elcano y otros. Este explica perfectamente todas las formas de la conjugación que se han puesto arriba.

He aquí ahora algunas formas tomadas de Lizarraga y de otros autores y del pueblo:

Participio: San Luis Beltranek abrats baten maiean ogia arturik, kalkatuz odola jarin-arazi zio tantoka = San Luis Beltrán, en la mesa de un rico, tomando el pan y estrujándolo, le hizo manar sangre a gotas (Lizarraga).

Nombre verbal: Au da limosnain grazia ta lorea: aipatu orduko miak nezesidadea, eskuak jaritea karidadesa = Esta es la gracia y la flor de la limosna: que apenas la lengua ha manifestado la necesidad, a la mano le mane (la mano derrame) la caridad (Lizarraga).

Orren eltziari esnia jariten *ez* = Al puchero de ése no le mana leche (es muy avaro, cicatero). Oído en Mezquiriz, valle de Erro, Navarra. En este ejemplo se ve claramente que el verbo es intransitivo: sujeto de la cosa que mana, en nominativo: *esnia*; dativo del objeto a quien le mana: *eltziari*.

Conjugación – Presente:

Darigu.—Nekhatcen gare net, darigula icerdi = nos cansamos completamente, menándonos el sudor (Goyhetche, Fableac, p. 193).

Darik.—Gorriti, ardoa darik begiti, ardanzopa sudurreti = Gorriti, del ojo te mana vino, de la nariz sopas de vino (citado por Azkue, *Euskalerriaren Yakintza*, t. III, p. 145, n. 1576.

Dario.—Le mana. (Passim Lizarraga, etc.): Mendiari sua dario = al monte le mana (el monte echa) fuego.

Dariote.—Les mana. Begietaik sua dariote = Les mana (sale) fuego de los ojos (Lizarraga).

Darizkitzue.—Os manan. Pleñtaric funxgabeenac bethi badarizkitçue = siempre os manan (emitís) las quejas más infundadas (Goyhetche, p. 252).

Darizkio.—Le manan. Inharrac beguietaric phernesian darizcola = manándole (saltándole) chispas de los ojos en frenesí (Goyhetche, p. 300).

Pasado:

Zerida(n).—Izerdia zeridala = manándome sudor (Lizarraga).

Zerio(n).—Le manaba (Lizarraga passim y otros): Izerdia, negarra, sua, kea, urina, apostema zerion, zeriola, etc.

Zeriote(n).—Les manaba. Odola zeriote = les manaba sangre (Lizarraga).

Todas estas formas, que ciertamente no son inventadas por algún gramático o escritor (Lizarraga de Elcano no inventaba), aun suponiendo que el verbo fuera transitivo (que no lo es), no podrían venir de un participio *erion, irion, jarion, jario*, cuya *o* perteneciente al tema debería permanecer a lo largo de toda la conjugación, como permanece la *o* de *egon* por ejemplo. ¿De dónde han salido pues esas palabras?

El verbo por su mismo significado (manar, fluir) sólo se usa con sujeto de tercera persona, singular, plural y dativo de cualquiera persona: negarra darit, malkoak darizkit. Las formas más usadas son sin duda las que tienen tanto el sujeto como el dativo de tercera persona: dario, darizkio. Y yo pienso que de estas formas en *o* como más conocidas y usadas se habrán derivado los falsos participios y nombres de verbales *jarion, erion, jario* = emanación, flujo, gotera, etc.

IRITZI ADITZAREN ERABILKERAZ

Donostia, 1977 ekaina

Txillardegi

Orain dela zazpi urte argitara nuen neure lehenengo "SUSTRAI BILA"-n, azken pundu gisa (5.9) ikutu nuen aditz berezi honen kasua; baina gaingiroki bakarrik.

Eta, Mitxelenak berehala gutunez azaldu zidanez, alegiazko berezketa batzuk onartu nituen; eta, hitz batez, "iritzi"-ren berezitasunak argitu baino, ilundu egin nituela pentsatu nuen.

Berrikiago, aurtengo Apirilean, eztabaida garratzak izan ditugu gure artean Eskaltzaindiak izendatu gintuen Batzorde berezikook; aditz honen kakoari ez baikenion denok batera irizten. Eta ez da harritzekoa, aditz hau aspaldidanik gain behera baitoa ("ces expressions sont mortes" dio Lafittek bere Gramatikan, 333); eta gero eta gutxiago (eta baldarkiago) erabiltzen baita.

Mogelek berak, moldiztegiko hutsik ez badago, nahasketa-aztarnaren bat bederen erakusten du berè "Peru Abarka"n: "orain txito ederto derist", dio Mogelek, P. A. 147; "deritxot" edo esan beharrean.

Larramendi ere zalantza horien lekuko da. "Parecer" artikuluan (II, 232) "deritzat" eta "neritzan" sailak dakazki, eta "uste det"en kidetzat ematen ditu:

deritzat = uste det, me parece

neritzan = uste nuen, me parecía

"deritzat baietz = paréceme que sí".

Baina "agradar" artikuluan (I, 43) antzinako moldetik urrunduz (on daritzut = maite zaitut), arau zaharretik kanpora ematen ditu erdal itzulpenak: "on derizkidazu = tú me agradas; on derizkit = aquél me agrada; on derizkizugu = te

agradamos", eta abar. Are nahasketa handiagoa "aborrecer" artikuluan (I, 7): "te aborrezco = gaitziriztea dizut" irakurtzen dugu (gaitz irizteN irakurri beharrean).

Pundu hau argitu beharra zegoen, hitz batez; eta neure aldetik argitzen saiatuko naiz ondoko lerro hauetan. Eta, noski, argi-bila horretan, atzera joko dugu; aditz hau askoz biziago ego baitzen aspaldiko mendeetan, oraingo euskaldun gizartean baino.

1. *iritz-i (eritz-i, eretx-i) = opinar, estimar, creer que = juger, estimer, penser que.*

Ithurryk ongi azaldu zuenez (Gramm. 339), "iritz-i" aditz honek ba du, noski, NOR/NORI/NORK erabilkera; baina ba du ere NOR/NORK hutsezko erabilkera ere, "eraman", "ekarri", eta bestek biak dituzten bezala: dakart/dakarkiot, ez demala/ez demozula, eta abar.

Iparraldeko euskalkietan gertatu ohi den bezala, "-ritz-" aditz-sustraiaren ondotik, "a" erantsi izan zaio aditza jokatzean; eta "eras-i"k, "deras*a*t" eta "eraunts-i"k "darauntsa" eman dituzten bezala, "iritz-i"k "daritz*a*t" eman du *NOR/NORK sailean*; eta gainerakoak.

Hau ez da hango euskalkietan batere bitxia; eta "NORI"rik somatu beharrik ez dago. Oihenartek "nigorra" (199), "nakarrana" (26), "derahatza" (174), "debaka" (179), "derosa" (180), "dakusat" (151), "dabila" (622), eta abar erabili zituen; baita atsotitz argitsu hura: "otsoak zer baitets*a*/otsemak donhetsa" (Ats. 390). (Kasu honetan ere adizkera hirukuna izan balitz, hau irakurri genukeen: "otsoak zer*i*, otsemak donhets*a*").

Leizarragak ere "dakusa"ren hildotik jokatu zuen "ikusi" ("dacussa", "çacussatenean", "becussa"). Gauza bera Axularrek ere ("eztakusa", XXXI, 1); eta Etxeparek ("diakusazut").

Gaur berton ere "zer darasa horrek ?" eta horrelakoak entzuten dira maiz Iparraldean ("zer debru derasa hunek?', Xalbador, 80).

"Daritza", hitz batez, NOR/NORK adizkerak dira batzutan; besterik ere (HARI-dunak, alegia) batzutan izan badaitezke ere.

1.1. *NOR/NORK era bikun xinple honetan*, eta bizkaierazko aldakuntza ezagunak kontutan hartuta (iritz = eretx), honela aurkez daiteke aditz honen jokabidea:

A1	(nik)	daritzat	B2	neritzan
	(hik)	daritzak		heritzan
	(hark)	daritza		zeritzan
	(guk)	daritzagu		generitzan
	(zuk)	daritzazu		zeneritzan
	(zuek)	daritzazue		zeneritzaten
	(haiek)	daritzate		zeritzaten

zer daritzazu? = ¿qué opinas? ¿qué te parece? = qu'est-ce que tu en penses? = zer uste duzu?

komeni zela neritzan = yo creía que convenía = je croyais que cela convenait = komeni zela uste nuen.

"completiva/complétive" izeneko esaldiak (-la, -nik) osatzeko (1.11), eta iritzi soil bat besterik gabe ematen delarik (1.12), NOR/NORK adizkera *bikun* hauk erabili izan dira euskaraz. Hona adibide batzuk.

1.11. *Konpletibetan* (-la, -nik).

— "*eritzi DUT* etzaokee*la* hemen gaizki", izkiriatzen zuen Oihenartek "Ezkontidearen hil-kexua"ren aintzin-solas gisa (Atsotitzak eta Neurtitzak, 187). DUT horretan garbi agertzen denez, konpletibetan NOR/NORK adizkerak erabiltzen dira.

— "beti joz joz, *daritzana*,
inkudeak bezala
diraukedala? (Oih., 158. orr.).

"daritzana" hori, noski, galde-hitza besterik ez da, "uste duna?" alegia = crees tú, crois-tu que?

— "jaunak hala *badaritza* (Oih., 200) (= hala dela uste badu).

Lehenagoko etsenplurik ere ba dago. Eta Lafonek, nahiz eskuarki NOR/NORI/NORK atxeman, *"ezteçagula on eritzi"* berezten du (= n'aimons pas), eta "sans objet de référence" dela dio; hau da, NOR/NORK sail bikunekoa.

Bide beretik ari izan dira bizkaitarrak.

P. Bartolomek, esate baterako, hauk dakazki; beti ere kasu hauetan "-a-" batez oratuak: deritxAzu, eta ez deritxOzu.

– Onak diriala *deritxazun* kondezinoe (P. Bart =, 40).

– *deritxat*, neure kristinaubak, on modu edo kondezinoe oneek guztiok daukazan persona bat topauko bazendu, naiko zendukiala aren adiskide izatia (P. Bart., 41).

– zer dala *deritxazu* bada, kristinaubak, munduko zuzentasun guztia (P. Bart., 44).

– ze pekatu *deritxazu* dala orditutia? (P. Bart., 273).

Eta gauza bera Añibarrok:

– *baderitxazu* ori izango dala Iaungoikoaren... (Eskul., 16).

Geroagoko bertsolariek ere berdin jokatu izan dute:

– bastante dela *deritzat* nik (Izuela, 73).

– aiekin dagoala / batek *baderitza* (Alzo, 113).

– mantxarik dadukanik / baldin *baderitza* (Izuela, 79).

1.12. *Irizpidea soilik dagoelarik*

Alde batetik, Leizarraga zaharraren itzulpenean aurki daitezke horrelako esaldi batzuk:

– *eztezagula* on eritzi (= n'aimons pas Lafon).

– *badaritzat* (= je pense, Lafon).

– *badaritzak* (= tu penses, Lafon).

Baita Oihenarterengan ere, guztiz "uste dut"en kide gisa:

– Ban' etzar' aski gaitz, *daritzat*,
gaizki horren egiteko (Oih., 181).

Baina bi esakera horien kidetasun zehatz horren etsenplurik argigarriena Gerriko-rengan aurki daiteke agian:

– ala uste dedala eta *deritzadala* (Gerriko, 28), eta *-o//-a* arazoa gerorako utziaz:

– libertadea bakoitzari eman baligu... ondo *deritzoguna* sinisteko... edo gaizki *deritzoguna* ez (Gerr., 287),

eta molde berriagoan (Larramendi-rengan ere bai, dena dela):

– *deizkiyona* esango du (= uste duena).

2. *NOR/NORI/NORK adizkerak*

Juzkatua den gauza edo pertsona hizketan aipatzen delarik, juzkatu izan den hori *datibotan* jarri izan da eskuarki; eta "iritzi" aditza honetara *hirukuna* da (NOR / NORI / NORK).

Lafon-ek *-ritz-* sustraiari buruz ongi azalduak dituen fonetika-aldakuntzak berriro guk hemen onartuz eta erabiliz:

tz + t > zt
tz + k > z
tz + ku > zku
tz + zu > tzu
tz + zue > tzue
tz + te > zte

adizkera sail hau sortzen da *orainaldian*:

2.1.	– (niri)	hik	dariztak / dariztan
		hark	darizt
		zuk	dariztazu
		zuek	dariztazue
		haiek	dariztate
	(hiri)	nik	darizat / dariznat
		hark	darizk / drizna
		guk	darizagu / dariznagu
		haiek	darizate / dariznate
	(hari)	nik	daritzot
		hik	daritzok / daritzon
		hark	daritzo
		guk	daritzogu
		zuk	daritzozu
		zuek	daritzozue
		haiek	daritzote
	(guri)	hik	darizkuk / darizkun
		hark	darizku
		zuk	darizkuzu
		zuek	darizkuzue
		haiek	darizkute
	(zuri)	nik	daritzut
		hark	daritzu
		guk	daritzugu
		haiek	daritzute

(zuei)	nik	daritzuet
	hark	daritzue
	guk	daritzuegu
	haiek	daritzuete
(haiei)	nik	dariztet
	hik	dariztek / darizten
	hark	darizte
	guk	dariztegu
	zuk	dariztezu
	zuek	dariztezue
	haiek	dariztete

Hortaz:

— haiek niri ero *dariztate* = ellos consideran que estoy loco, ils croient que je suis fou.

— nik zuei eder *daritzuet* = creo que vosotras sois bellas, je crois que vous êtes belles.

2.2. — Nahasketa, ordea, eta handia, hirugarren pertsonetan gertatu da: *hari* eta *haiei* adizkeretan.

Jakina denez (eta Josu Oregik burutazio aztergarriak eman bide ditu honi buruz) hirugarren pertsonaren datiboetan beste atzizki batzuk ere erabili izan dira: 3. sing. (-a); eta 3. pl. (-e) kasu hauetan, eta nik arestian emanak ditudan horien ordez hauk ere sor daitezke ("deutsot"ekin batera "deutsat", "zaio"rekin batera "zaika", eta abarren antzera):

A2 (hari)	nik	daritzat
	hik	daritzak / daritzan
	hark	daritza
	guk	daritzagu
	zuk	daritzazu
	zuek	daritzazue
	haiek	daritzate
(haiei)	nik	daritzet
	hik	daritzek / daritzen
	hark	daritze
	guk	daritzegu
	zuk	daritzezu
	zuek	daritzezue
	haiek	daritzete

Hots, irakurleak errepara dezakeenez, (hari)ren adizkera hirukun hauk (A2) eta NOR/NORK adizkera bikun normalak (A1) *berberak* dira, homofonoak dira osoki. Aspaldidanik, hortaz, eta juzkatu nahi izan dena hirugarren pertsona delarik, zalantzabide eta nahasketa franko sortu da.

2.3. – Idazle bakar batek berezi bide zituen garbiki (NOR/NORK) bikuna eta (NOR/NORI/NORK) hirukuna: Prai Bartolome Santa-Teresak. Ondoko adibide honetan eta gorago (1.11) emandakoetan soma daitekeenez:

– neuk bere (sinistu daikezu, irakurlia, *baderitxazu*) ondo *neritxon egitiari (P. B., VI). Lehenengoan NOR/NORK dugu, a* batez; eta bigarrenean, aldiz, NOR/NORI/NORK, *o* batez.

Adizkera bikunak eta hirukunak behin eta berriz berezten ditu:

– onak diriala *deritxazun*... (40).

– *deritxat*... naiko zendukiala... (41).

– zer dala *deritxazu*... (44).

– ze pekatu *deritxazu* dela orditutia (273),

baina horien ondoren hauk dakazki, NOR/NORI/NORK sailekoak:

– jaaten daben kopaubari asko *deritxola* (7).

– otseginaren biarrari gitxi *deritxola* (227).

– ondo *neritxon* egitiari (VI).

Beste idazle guztiengan, nik uste, Leizarraga barne, *deritza / deritzo* bikotea nahasirik agertzen da; edo-ta, beti ere, *deritza* saila erabiltzen dela.

2.4. – Ikus ditzagun orain, sailka, adibide batzuk. Beti ere kontutan hau hartuz: "on iritzi", amar, aimer; eta "gaitz iritzi", odiar, haïr. Gogoan har dezagun esaldi zahar hura: "onerestea daukat biozean sarturik", TAV 122, estoy enamorado, je suis amoureux.

(niri)

– on *dariztak* niri? (Leiz., maite al nauk?).

– hobe *dariztak* (Leiz.).

– norbeitek on *badarizt* niri (Leiz., Norbaitek maite banau).

– niri gaitz *darizt* (Leiz. = gorroto nau).

– hon ezteriztana (Etxep.).

– niri on *eztariztanak* (Leiz.).

(guri)

– guri on *darizkula* (Leiz., maite gaitula).

– baldin norbeitek gaitz *badarizku* (Leiz. = norbaitek gorroto bagaitu).

– zeren on *baitarizku* (Leiz.).

– on *darizkutenak* (Liz.).

– maite gaitu, on *derizku* (Ax., 197).

(hiri)

– on *darizadala* (Leiz., que je t'aime).

– gaitz *deritzanak* irri deraidik, on *deritzanak* hasperren (Oih., 176).

(zuri)

– hon *derizut* (Etxep.).

– hon *baderizut* nik zuri (Etxep., maite bazaitut).

(zuei)

– baldin zuei gaitz *badaritzue* munduak (Leiz.).

– baldin zuei on *daritzuenei* on badariztezue (Leiz.).

(hari) Hiru zatitan emango dugu hau:

a) Aditz laguntzaileaz:

– eure hurkoari *on eritziren draukak* (Leiz.).

– bere anaieri gaitz eritzitea (Leiz.).

– elkharri on *eritzi diezogun* (Leiz.).

– zeinbatek egunazko ikasijari gitxi eritxita (P. Bart., 41).

– ederki *iritzi zion* aren konsejuari (Gerr., 111).

– menturaz askok *eritxiko deutsa* astun (P. B., 278).

– zer *iritzi dio*, Don Martin, atzoko koñakari (Urruz., 138).

– zeure soldateari gitxi eretxirik (Añ., 100).

– obe *eretxi eutsan* ixi-ixilik egoteari, erantzuteari baizen (Añ., 143).

b) "deritza" sailekoak:

— emaiten duenari on *daritza* Iainkoak (Leiz.).

— elkharri on *badaritzagu* (Leiz., elkar maite badugu).

— zembeitek Iainkoari on *badaritza* (Leiz.).

— ezen on *daritzadala* Aitari (Leiz.).

— zer *deritxazue* zuek... lotsagaldu oneri (Añ., 64).

d) "daritzo" sailekoak:

— elkharri on *daritzogun* (Leiz.).

— arropari-ere gaitz *daritzogula* (Leiz).

— bere emazteari on *daritzón* (Leiz.).

— hon *eztaritzozunari* (Oih., 149).

— orain motibo bategatik on *deritzonari*, gero beste motibo bategatik gaizki *deritzo* (Gerr., 89).

— zer *deritzozu*, Praisko, gure Matxalen burutazioai (Urruz., 35).

(haiei)

— Kristgatik ahaidei gaitz eritziteko (Leiz.).

— zuen emaztei on *eriztezue* (Leiz.).

— anaiei on *dariztegu* (Leiz.).

— obrei gaitz *baitariztek* (Leiz.).

— haurrei on *dariztegula* (Leiz.).

— lehen jar lekhuei on *dariztezue* (Leiz.).

— baldin zuei on daritzuenei on *badariztezue* (Leiz.).

— lehen plazei on *darizté* (Leiz. = dariztete).

— haei nik ere gaitz *diarizteat* (Leiz. = dariztet, hika).

— zergatik *darizten* Jainkoak hain gaitz hirur bekhatusuerte haui (Ax., 260).

2.5. — *Iraganaldian*, era berean, adizkera hirukun hauk ateratzen dira:

(niri)	hik	heriztan
	hark	zeriztan
	zuk	zeneriztan
	zuek	zeneriztaten
	haiek	zeriztaten

(hiri)	nik	nerizan / neriznan
	hark	zerizan / zeriznan
	guk	generizan / generiznan
	haiek	zerizaten / zeriznaten
(hari)	nik	neritzon
	hik	heritzon
	hark	zeritzon
	guk	generitzon
	zuk	zeneritzon
	zuek	zeneritzoten
	haiek	zeritzoten
(guri)	hik	herizkun
	hark	zerizkun
	zuk	zenerizkun
	zuek	zenerizkuten
	haiek	zerizkuten
(zuri)	nik	neritzun
	hark	zeritzun
	guk	generitzun
	haiek	zeritzuten
(zuei)	nik	neritzuen
	hark	zeritzuen
	guk	generitzuen
	haiek	zeritzueten
(haiei)	nik	nerizten
	hik	herizten
	hark	zerizten
	guk	generizten
	zuk	zenerizten
	zuek	zenerizteten
	haiek	zerizteten

2.6. — Eta hirugarren pertsonetan (hari), gorago aipaturiko arrazoin berberengatik, hauk ere aurki daitezke nahasketa iturri:

(hari)	neritzan	(haiei)	neritzen
	heritzan		heritzen
	zeritzan		zeritzen
	generitzan		generitzen

zeneritzan	zeneritzen
zeneritzaten	zeneritzeten
zeritzaten	zeritzeten

Adizkera horietatik, teorian bederen (literatura zaharrean noiztenka agertuak), baldintza-adizkerak atera daitezke:

zeriztan > balerizt / leriztake
neritzun > baneritzu / neritzuke

2.7. – Hona hemen adibide batzuk:

– denbora baten on oi *neretxu* (Mikoleta, TAV 134).

– gaitz *zaritzoten* (Leiz., gorroto zuten).

– guri gaitz *zarizkuten* (Leiz., gorroto intuzten).

– baletsa Jaungoikoari
har nenzan zerbitzari,
hark er' eta *leriztan*
hambat on zein nik hari (Oih., 176).

Ongi azaldu zuen aditz honen erabilkeraren kakoa Lafon euskalariak: "Attribution d'un nom ou d'une qualité: tel paraît être le sens fondamental de *eritzi*: la qualité attribuée est tantôt celle de bon et de mauvais, exprimée par *on* et *gaitz*, tantôt celle de vrai: dans ce dernier cas, *eritzi* se suffit à lui-même. Rien n'est attribué expressément au sujet, et l'objet de l'attribution reste indéterminé" (Lafon, Système, I, 290).

3. *Iritzitakoa aipaturik ere NOR/NORK adizkera bikuna?*

Idazle zahar batzuek (Axularrek bereziki), eta geroago bertsolari jator batzuek ere berdin, iritzia edo aburua jasotzen duen gauza edo pertsona *nominatiboan* utzi izan dute, kasu hauetan ere NOR/NORK adizkera bikunak erabiliz.

Jokabide hau desegokitzat jotzen dute gehienek, Mitxelena barne (ikus TAV, 109). Hona hemen, adibidetzat, esaera bitxi horietako batzuk:

– *hura daritza* asko (ax., 44) (= "hari daritza asko" espero zitekeen).

– batzuek bekhatu *badaritzate* ere gauza ebatsien pagatu gabe edukitzea, ez ordea *eztaritzate* bekhatu zor iakinari eta aithortuari luzatzea (Ax., 328; eta "edukitzeari" eta "luzatzeari" espero genituelarik).

Gauza bera Mikoleta zaharrak:

– *alkarr* on *baderetxe* (TAV, 133).

eta Prai Bartolomek berak, adizkera hirukunetan:

– umiak, gurasuak dauken *guztia* gitxi *deritxuela* (P. Bart., 253).

– emoten deutsen janari *kopauba* asko *deritxuela* (P. Bart., 253).

Bertsolariengan ere horrelako batzuk aurki daitezke:

– gaizki *deritzat uztia* (Ausp. 74-75, 110).

– debozioz *entzutea* / maiz on *deritzat* nik (Alzo, 25).

– pasa dan gauza *ukatutzia* / nik ez *deritzat* egoki (P. Err., 60).

– baserrira *joatia* / *etzeritzan* ondo (P. Err., 122).

– eder al *deritzazu* / oiek *esatia*? (Segurako Itxua, 155).

Horietan guztiotan irizten edo juzkatzen den gauza aipatu egiten denez gero (esatea, joatea, eta abar), datibotan espero bide zitezkeen eskuarki: esateari, joateari, eta abar. Eta 2. puntuan azaldu dugunez, desegokitzat hartu behar dira.

4. *"darizt" = me llamo, je m'appelle.*

Hauta ditzagun orain, NOR/NORI/NORK emandako adizkera horietan, *HARK* (niri, hiri, hari, guri, zuri, zuei eta haiei) delakoari dagozkion formak. Eta azpi-multzo hauk ditugu:

4.1. – *orainaldian*

(hark)	niri	darizt
	hiri	darizk / darizna
	hari	daritzo (edo daritza)
	guri	darizku
	zuri	daritzu
	zuei	daritzue
	haiei	darizte (edo daritze)

4.2. – *iraganaldian*

(hark)	niri	zeriztan
	hiri	zerizan / zeriznan
	hari	zeritzon (edo zeritzan)

guri	zerizkun
zuri	zeritzun
zuei	zeritzuen
haiei	zerizten (edo zeritzen)

4.3. — Hots, aspaldiko denboretan, eta hizkuntza askotan Mitxelenak azaldua duenez, zerbaiti buruzko *iritzia* eta zerbait horretxen *izen-bataioa* ELKARREN KIDE HERTSIAK izan dira: "the act of naming and the fact of identity are inseparable" (Dell Hymes, Wishram Chinook-i buruz mintzo delarik).

Gauza bera gertatzen zen euskaraz zalantzarik gabe: aspaldiko euskaldun batek *A* uste bazuen gauza bati buruz, "A" deitzen zuen gauza hori; eta "A" zeritzan, hortaz, bi sentiduotara batera.

Fenomenu hau Mitxelenak azaldua duenez, beraz, garbi agertzen da Leizarragarengan. Behin batez hau izkiriatu batzuen: "Lystra-koek Barnabas-i "Iupiter" *eritzi*, eta Paul-i "Merkurio"" beherexeago beste hau erantsiz:

"eta Barnabas deitzen zutén Iupiter; eta Paul, Merkurio".

Eta Mitxelenaren hitzak honera ekarriz: "Euskaraz, ordea, Listra-koek Barnabasi Jupiter-en *izena* eman bazioten, *Jupiter-tzat* zeukatelako izan zen eta, bestalde, *Jupiter zutelako ustean* baldin baziren, Jupiter *deitu* behar zuten".

Zerbaiti buruzko *ustea*, hortaz, eta zerbait horretxen *izena*, GAUZA BERA izan dira euskara zaharrez; eta bakuntasun hori morfologiazko bakuntasunean ageri zen.

Norbaitek, hortaz (hizketan aipatu beharrik ez dagoen nornahik, beraz) uste hau edo hura baldin badu zerbaiti buruz, horrela *deritzola* edo *zeritzola* esango da euskaraz.

"Yo me llamo A", hortaz, je m'apelle A, (edonork) *niri A darizt* esaten zen euskaraz; eta "nosotros nos llamábamos B", era berean, nous nous apellions B, *guri B zarizkun*. Eta abar.

4.4. — Etsenplurik famatuena Mogelek dakar "Peru Abarka" liburuan:

— alan *derist* Peru Landetako (= niri darizt, nire izena P. L. da).

Eta Leizarragak dakazkien beste batzuk ez dira ilunago: "eta *hari eritziren zaio* Emmanuel", Emmanuel deituko da.

Besterik ere aurki daiteke euskal literaturan barrena; eta ez askoz gutxiago bertsolari herrikoien ahotan:

(hari)

– *oni* nola *deritza*? (Larr., Dicc., I, XLVII).

– *batari deritxo* agorra, ta *bestiari* lina-berria (Mog., 126).

– *oneri deritxo* biotzeko berbaldia (Añ., 15).

– *batari deritxo*... koroia, *besteari deritxo* errosarioa (Añ., 150).

– ta egin eban lelengo emakumia, *zeñi deritxon* Eba (P. B., 14).

– bolsa *oni deritzaio* kapulea (Iturriaga).

– ur *oni deritza* lixiba (Iturr., 99).

– arkitzen *denari deritza* gatzarria (Iturr., 96).

– Kastillan erri *bati / deritzaio* Laño (Alzo, 324).

– or goiko etxe *orri* / Artzabal *deritza* (Sokin, 78).

– Miraballesko etxe *orri* / leen oi *zeritzan* Zapatari (TAV, 127).

(zuri)

– jakin gura neuke zelan *deritxun* (Mog., 40).

(haiei)

– ala *derizte* argizki meetxo biribil batzuez eginikako *bildotxai* (Larr.).

– *semeai derizte*... (Gerriko, 106).

– nola *derizte* patriarka *aei*? (Gerr., 106).

– *oneei deritxee* pelikraneua ta kraneua (Mog., 70).

4.5. – Jakina: beharbada gehiagotan erabiltzen direnez gero, *daritzan / daritzon* (= que se llama, qui s'appelle), eta *zeritzan / zeritzon* (= que se llamaba, qui s'appellait) adizkera errelatiboak hobeki gorde dira:

– "Larri-kalea" *deritxon* Ierusalengo kalera (Añ., 147).

– "Argia" *daritzanari* (Oih., 149).

– Gimnofisita *zerizten* iende batzuek (Ax., 70).

– Udo *zeritzan* bati erran zeikana (Ax., 487).

– Aurelia *zeritzan* andre batekin (Ax., 461).

– Lais *zeritzan* emazte eder bat (Ax., 500).

– "Astiasu" *deritzan* / leku apartian (P. Err., 27).

– "Fuente Hermosa *zeritzan* / iturri batera (P. Err., 53).

– Arantzazu *deritzan* komentu zarrera (P. Err., 111).

– Melitona Muturbeltz *deritzan* bat ill dala gaur (Ausp., 26, II, 65).

5. *Gaurko bilakabidea*

Azken bolada honetan, "deritzo" sailari orain, eta XVIII. mendeaz geroztik dirudienez, "derizkio" saila ari zaio gaineratzen, *-ki-* artizkiaz beraz; eta "zeritzon" sailari, era berean, "zerizkion" saila. Era honetara:

– zer *derizkiozu* horri? (= qué te parece eso, qu'est-ce que tu crois au sujet de...).

– gaizki *nerizkion* (= me parecía mal, il me semblait mal).

– Kepa *zerizkion* (= se llamaba Kepa, il s'appellait Kepa).

– zer *deritxok*? (= qué te parece, qu'est-ce que tu en penses?).

5.1. – Hona hemen adibide batzuk:

– zer *derizkiyok* / txurreruagatik? (Txirrita, 136).

zer *derizkiyozute*? Ondo egin al det nere papera? (Ausp., 26, II, 112).

– zerbait bazala *bazeizkion* / orrek bere buruari (Txirr., 36).

– ondo *zerizkiola* aren asmoari (Urruz., 38).

– al dan moduan *derizkiona* (Alzo, 94).

– *deizkiyona* esango du (Ausp., 66, 87).

Adizkeraren hirukuntasuna (NOR/NORI/NORK) forma berriago hauetan ongi azaltzen duenez gero, esaera desegokiak baztertzen lagun bide dezakete.

6. *Eder iritzi; gozo iritzi; eta abar*

6.1. – Esan dugunez, gaurko "maite izan", "on iritzi" esaten zen lehen; eta "gorroto izan", berriz, "gaitz iritzi". "Onerizkoa" eta "gaitzerizkoa" hitz zaharrak dira; eta esakera horrek aspaldidaniko sustraiak dituela ageri da.

– Iainkoari baino voluptatei hobe erizle –zion Leizarragak, "amateurs de voluptés" esateko.

"Iritzi" eta "etsi" guztiz dira elkarren kideak; eta ederretsi, donetsi, gaitzetsi, berantetsi, eta abar, erabili izan diren bezalaxe, adjetibo asko erabili izan bide da "iritzi" aditzari loturik, makina bat aditz desberdin sortuz: eder iritzi, gozo iritzi, eta abar.

6.2. – Hona hemen joera zabal eta orokor horren adibide bakan batzuk:

– ago *eder iritzita* (Txapel, 39).

– hemen naza orzirik
noizbait *gozo erizirik* (Elegía de Amendux, 1584, TAV 109).

– etorriko naiz, eta
ez *luze iritzi* (P. Err., 130).

– eta frutari *eder iritzirik* (Greg. Arrue).

"Me ha gustado", "cela m'a plu", *ederretsi diot* entzuten den bezala; lehenago "eder iritzi diot" esaten zen.

Azken oharra: Txosten honetan laguntza bikaina zor diodala Josu Oregiri: eskaini didan adibidemordoarengatik , eta elkarrizketa mamitsutan barrena eman dizkidan argiengatik.

LITERATURA

IRAKURTZEN ARI NAIZEN AZKEN POESIAZ

1978 - V - 31

A. Bitoriano Gandiaga

SARRERA:

Nik ezagutu nuen apaiz arabar bat –hila da iadanik–. Euskal gauzetan zaletua nintzela jakin zuenean, hara zer esan zidan: "No tenéis palabras".

Min eman zidan ateraldiak, baina ez nion ezer erantzun. Egia zioela ba nekien eta.

Gure Gandiagak uda bat igaro zuen Madrilen, eta handik gauza bera esaten etorri zaigu.

Jakintzak nahi eta behar dituen bezalako hitzen premia somatzen du berak. Eta premia hori erremediatzeko ahaleginean dabiltzanen lana eskertzen eta txalotzen du.

Nik ez nuen asko pentsatzen olerkari bat etorriko zitzaigunik hori esatera, baina oker nengoen.

Dena den, eskerrak ematen dizkiot Gandiagari zaurian behatza ipini duelako.

Fr. L. Villasante

Joan den Apirilaren 24-an Gernikan jalki nuen ateraldi batek du txosten honen errua. Eta Aita Villasantek. Gernikako mahai-inguru hartan zer hau ere galdetu zidaten: Euskal arte eta kulturaren berreskuratzean poesiak izan duen zeregina.

Bernat Detxepareren Sautrelarekin eman nion erantzunari hasera:

"O Heuskara, lauda ezak Garaziko herria,
Zeren hantik ukhen baituk behar duyan tronuya.
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena". Eta abar.

Bere inguruko, bere herriko eta bere bihotzeko giza antsien oiartzun eta ahots dela poeta, esan nuen. Gure kasuan, euskaltasunaren kontzientzia dela poeta, esan nuen. Euskal gizarteak sortu duen ororen defendatzaile dela poeta.

Arestiren desafioa aipatu nuen: "Nere aitaren etxea defendituko dut". (*Harri eta Herri*, bigarren partea, B letra). Eta beste norbaiten deadar hau:

"Ibarrera, azkar ibarrera,
denok ibarrera:
itotzen ari bait da
euskaldun arima".

Eta baina poeta-poesien lana euskal ondasun ororen berreskuratze zereginaren ekintza zabalaren barrutan kokatu nuen, euskal arazoan diharduten mugimendu guztiekiko dependentziatan jarriz poesiaren zeregina. Baina orduan, batez ere zera hau nabarmendu nuen: euskara kultur arlo guztietan lantzen ari direnen laguntza pare gabea; horiek direlako bereiziki poetaren oinharrizko tresnaren fabrikatzaile. Eta une hontan atera zitzaidan honako hau: "Itxura baten poesiaz hain kanpotiko zientzia hizkera lantzen ari diren gizonak nahi ditut goraipa. Ezin esan halako gusto handiz *irakurtzen ari naizen azken poesia* NATUR ZIENTZIAK, TEKNOLOGIA eta Holandako KRISTAU BIDEA da, espresio bide berri eta zabalak eskaintzen dizkidatelako, eta hitzaren ulerkuntza eta ikuspegi zehatz eta funtsezkoa damaidatelako".

Eta hemen dator Aita Villasanteren errua: Ateraldi hau zehatzagotuz txosten bat idazteko eta idazteko itogin aspergarria.

Hitzaren arazoa oinharrizkoa duela poetak, esan dut. Eta nork ez du oinharrizko?, galdetuko didazute. Gaurko errealitate zientziazko, kulturazko, politikazko, ekonomiazko eta gainerako "azko" asko ta asko euskaraz eman nahi dituenak, ez al du euskarazko terminologiaren beharra behinen behinengoa? Baina poetak beste inork baino gehiago behar duela hitza erantzungo dut nik. Hitz material eta brutoa espiritu mailako esanguratan eraiki behar duelako poetak.

Ez nator, beraz, Paulo Agirrebalzategik NATUR ZIENTZIAK liburuaren atari ederrean "euskarak landu gabea duela oraindik zientzia hizkuntza" baieztu ondoren jarri duen

honekin, alegia, "honek ez du zerikusirik bertsolarien edo olerkarien ez eta saiolarien hizkuntzarekin" 'NATUR ZIENTZIAK, XXXV. horr.). Nola esan zenezake horrelakorik, Paulo? Eta bertsolariek, olerkariek eta saiolariek euren esankizunen neurriak arlo berriz zehar zabaldu nahi baldin badituzte, zer? Ez al dira jakintzara heltzeko eta jakintzari heltzeko eskubidedun gizon? Hala orain arteko euskararen eta euskaraz landu-gaien mugabarrutan bizitzera baino hiltzera behartu nahi al dituzu, lehengo "puzu sakon eta ilunetik" betiko "ur gazi bat nekez" atera ta atera? Ez al duzu uste bertsolariek, olerkariek eta saiolariek oraingo "erreka laister baina pobre" honetatik, eurak ere "ur geza" atera nahi lezaketenik lasai? Eta azken baten, guztion arteko hauzolan nahasian ez bada, nola heldu gindezke "gure oinordekoek ur gozo bat oparo atera" ahal dezaketen "euskara itsaso urdin eta zabala" kreatzera? (Ikus G. Arestiren EUSKAL HARRIA 1968, 51 horr.). Nik olerkari izenean erantzungo dizut eta esango: Nork mugatu behar dio gairik poetari? Nork ezarri behar dio halako edo bestelako hizkuntza mailarik? Norena da hizkuntza osoa poetarena ezik? Hara, Paulo, entzun iezadazu hau:

Hizkuntza, gizonaren kanpoko nahiz barruko errealitate guztiak izendatzeko eta adierazteko gauza denean, hizkuntza horrek poetaren lehendabiziko premiari baino ez dio oraindik erantzun, une hontan hizkuntza, bere esanahi zehatz eta guzti, abiapuntutasunezko materia geldi dugu oraindik. Oraintxe iritsi da poeta poesia eraikitzeko lehen materiale multzora. Hemendik aurrerakoa du poetak bere lankizuna. Hor du hitza —hiztegia, hizkuntza—, bere esanahiz, bere abiapuntutasunez; eta hartzen du eta eragiten hasten zaio: hitzari bere oinharri materialaren gainean eragiten; hitzaren islak estudiatzen, hitzaren hitzarekiko erlazio berriak aurkitzen, hitzaren nahikizun eta iradokizun berriak kreatzen, hitzaren errealtasunari idealismo dimentsioa ematen. Hitzari asmo berriak inguratzea da poetaren eginkizun, hitza bere pasibotasunetik ateraz, haren esanahi materiala neurri berriz aberastea.

"Berbak begi-puntetan,
berba pillo bategaz
ikutu zindudan". 'ELORRI, 31. horr.)

Baina berbarik ez badauka, zegaz behar dio poetak ezeri ikutu? Nola behar du plasmatu gauzen izenak baino harutza-

go dagoen zergauzen onura? Nola atzeman hitzaren jirabira ta gordelekutan bizi den iratxo jakintsu eta miragarria?

"Neure hitzaren billa
—ez gauzetan,
ez jakintzan—,
neure hitzaren billa
nabil... ametsetan.

Ez-bai utsa dan arnas bat
zerak doi aitatzekoa,
berba mugarik bakoa
nai dot: gomuta zaarrek
dakien hizkuntzakoa.

Itzaren oiartzun sorra
—ez muiña,
ez otsa—,
zerbait xamurra
ozta lioken
kili arin aura.

Ez ipuirik. Doi-doi zera:
era bako
itzal gozo...
Ez irudi, aaztutako
pozen miña baiño.

Lotu bako berba nai dot:
soiñu galdu bat lakoa;
usain askatutakoa;
edo kolore pintatu bako
dan ez dan-ezkoa". (ELORRI, 24. horr.)

Baina gauzen izenetan behar du poetak aurkitu bere hitzaren oinharria; jakintzako terminologian aurkitu behar du bere hitzaren funtsa; hitzaren muina eta hotsa behar ditu lehenengo ta behin, inondiko "oiartzun sorrik" nahi baldin badu sortu; hitz ondo inguratu ta trinkoa behar du "ez-bai" ta lurrun besterik ez litekeen hitzik begitandu arazi nahi baldin badu; hitzaren bolumena behar du "era bako itzal" hura sortu nahi baldin badu; hitz ongi finkatu ta zehatza behar du "lotu bako berba" haren lehen erreferentzia-puntu bezala; hitzaren soinu erreala behar du beste "soinu halakoa" sortu nahi baldin badu; hitzaren usain materiazkoa behar du

"usain askatu" hura aditzera emateko; sakonki markatutako hitza behar du "kolore pintatu bako dan ez dan-ezko" hura iruditzera emateko.

EZINAK deitu neure karpetetako batetan hauxe aurkitu dut:

"Momentu honetan jaio naz
—Ekainak 27—
Barajaseko aireportuan.
Urre ontzaren lekuan
Airenautika-textu bat
ipini deuste eskuan;
zoraldi hontan erregalurik
ederrena dot munduan.

Abioiak nau harritzen,
mekanikak arrokatzen;
ta, aztorapen hau
hitzez nahi dot muntatu,
hala nola dituen makinok
piezaz pieza osatu
hegada azkarrerako.

Igotzen, jaisten begiratzen dot
zenbait abioi;
urruti galtzen ikusten,
urrundik heltzen;
ta, hurbildik sortzen deusten zirrarak, zirriz,
idaztera nau behartzen.

Ta, badihardut; jadanik
oso luzaro dihardut
errealitateon eragin
bizkor honen berri
inola ezin emanez.
Eta aspertzen ari naiz,
banoa gogait eginez,
airenautika hitzik ez baidot
airezirrara eraikitzeko
nahi neuken airepoeman.

Gauzaeza naz, diñot. Eta helizeak zalapartan
mugituz ikusten ditut.
Gauzaeza naz, diñot. Eta zarata gorgarriz gortzen
[nabe motoreek,

eta haize bero eta indartsuz atzerantz bultzatzen nau
tututatik darien dar-dartak.

Airenautika textua zabaldu dot.
Airenautika textua hitxi dot.
Erdarak ez deust balio.
Aurrean dodan dinamika irensteari dihardutsat
[oraindik horraitio.

Mugimenduaren arima fisikoa
eder-esten dot lilluraz.
Despegeak txunditzen nau:
fisikako legeak ekilibratu dituen
aziertu berebiziko ta justuak.
Baina euskarak ere ez deust balio,
ez deust modurik, ez erresorte-tresnarik
mekanikatik iatordan harridura honen despegerako.

Hitz elastikuak behar geunkez,
abioien igotzea posibletzen daben
abiagailu hoien antzeko izenak behar geunkez
euskarak eta biok hemen
iluntzeko hamarrak alde eder hontan
airezirrara hau eraikitzeko
nahi neuken airepoeman''.

Gero honen ondoren beste hau ere EZINAK karpetan ageri da:

''Hagiñak urten eusten,
berbeak ez eustan urten.

Bizarrak urten eustan,
berbeak ez eustan urten.

Hasi jat ulea jausten,
baiña ta berbarik ez jat
oraindik hasi urteten.

Berbeak ezin deust urten
ezin deust-eta urten.

Arean
hil ere egingo naz
berbeak urten baiño lehen''.

UDA BATEZ MADRILEN liburuan nahiko erabilia dut hitzaren gai hau. Honela diotsat Juan Mari Lekuonari: ''Lu-

zaroko lana nuke oraindik Madrilek agertu zidan guztia hitzetan taxutzea. Ez da erraza ikuskari ta sentikarien hitzetan urtzea" (4. horr.). "Badakizu inondik ere hitzetik hortzerako kazetaritzaz ari ez natzaizuna. Beste idazjenero hartaz dihardutsut. Ez noski gaia hitzaren bidez eraiki ohi duen literatur mota hartaz, hitza gaiaren bidez eraiki nahi lizukeen hartaz baino. Nik nahi dudana badakizu: Hitza egin ikuskari, gertakari ta sentikarien nagusi, hitzaren pean jarri gaia, gaiak hitzari zerbi diezaiola egin. Basaokanak goian ageri dira oràindik, izpiritua ez zaie oraindik jabe egin, ez ditu oraindik azpitan hartu. Oraindik ez zait ondu Madrilen bildutako basaokan ta gindaz bete nuen ontzirik" (5. horr.). Ez nijoa orain hitzari buruz UDA BATEZ MADRILEN idatzirik ditudanak kopiatzera. Arazoa hemen zera da: Edozein literatur kreakuntzatarako edotariko hitzak behar ditugula, eta edotariko jakintza gaiak ari zaizkigula heltzen euskaraz. Eta hemen bai, Paulo, goratu behar dutala zuek, ELHUYAR-ek eta bestek ari duzuten lana, euskararentzat lurberriak urratzen ari bait zarete. Orain artean euskaraz erabili ez diren eta ezin erabili izan diren gaien erabilpena posibletzen bait duzue. Inguruan bizi dugun errealitatearen euskarazko espresapena bait damaiguzute, euskarazko "itsaso urdin eta zabala" gero ta hurbilagotik posibletuz. Hizkuntzaren poeta deitzen zaituztet nik, zientzia hizkeraren bidez hizkuntza aberasten ari zaretelako, eta zientziarekin batera hizkuntzaren erabilpena irakasten diguzutelako. Hizkuntzaren udaberri baten jarri gaitu gertakizun honek. Hitzen jaiotza oparo baten ernebehar bizkorra bizi dugu fisikan, kimikan, geografian, astronomian, meterologian, mineralogian; landare, animalia to gizoni buruzko hitzen jaiotza; anatomia, fisiologia, medizina, komertzio ta industria-hitzen jaiotza. Baina ez hitzen jaiotza hutsa, baita hizkera baten jaiotza ere. Jaiotza oro poesia da ostera. Horregatik nire alaitasuna NATUR ZIENTZIAK eta TEKNOLOGIA - ta euskaraz irakurtzean. Horregatik deitu nien poesia ere, poesiaren lehen oinharri bait dira eta poesia eraikitzeko gai eder. Beren esanahiz eta asmoz datoz jendearengana, idazlearengana. Poetarengana heltzean, eskuztatu egingo ditu poetak, ingurumena begiratuko die poetak, apur bat zoro bihurtuko ditu poetak, apur bat argitu egingo ditu eta pitin bat ilunduko, errealismuz nabarmenduko ditu puska bat eta idealismuz beste puska bat; egunoroko jantzi arrunta kendu eta asmo berriz jantziko ditu poetak. Bitartean hitzaren sor-

tzaileak ditut poeta, eta euskaraz landutako gai berri oro poesia.

Edozein gaiez ari den idazlek behar du eskuartean hitza; oraindik eskuartenago behar du hitza literaturlariak; areago oraindik poetak. "Ezin daiteke ibil une bakoitzean esankizunen adierazpide materialaren bila, hitz bakoitza sortu beharrez idaztaldi bakoitzean; jadanik erabakia behar luke hitzaren gorabehera hori eta ez luke formaren arazoa besterik hartu behar. Formaren arazoz aurrekoa, hizkuntza materiala, ondo berea behar luke idazleak eta soroaren lana besterik ez luke egin behar, erraiak asebeterik dituen iturri kantari ta kontariarena. Hazia barruan duen soroari bezala, ura erraietan duen iturriari bezala, hitzak berez berez irten behar lioke idazleari, nahiz eta nekez, berez; gutxienik bederatzi hilabetetan osatua ta ondua, paperera orduko bere ahotsaren jabe duelarik hitz bakoitza; eta ez familia gehitu nahi duen bakoitzeko haurra inondik ekarri beharrez, semetzat hartu beharrez, bataiatu beharrez, ekanduko ez ote zaion betiko beldurrez" (UDA BATEZ MADRILEN, 76-77 horr.).

Horregatik dihardut hain gustora zientzi hiztegi eta textuliburuok irakurtzen, hizkuntza irakasten didatelako, hiztegia ugaltzen didatelako, hizkuntza pertsonal eta poetikoa sortzeko zeri heldu gehiago eskaintzen didatelako. Biharko poeten "itsas urdin eta zabaletiko" kruzero ta joanetorrietarako ontzi moderno ta handi egiten ikusten dut euskara. Idatz ditzagun ontzi horren bandera zabaletan zabal Bernat Detxeparen sautrelako profezia ta berri onezko hitzok:

"Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya,
Ezi huyen lengoajia izanen da floria.
Printze eta iaun handiek orok haren galdia".

Nik berriz orduan ahal izango ditut esan Madrileko Plaza Mayor-en idatzi nahiko nituenak, Barajas-eko aireportukoak-eta. Orduz gero ostera ezingo dut jadanik berriro idatzi honelakorik: "Arkitektura, mekanika, komertzio-andana-andanadak begitan. Ikuskizun berri ta miragarriak begitan. Kalea begitan, hiria, makropolia, eta hitzik ez". Orduz gero ezingo dut jadanik egiaz esan: "Ikuskizun eta bizikizun berriz azaldu zaidan hiriarentzat ez dut hiztegirik". Jadanik orduan

"Zergauza bakoitzarentzat izen bana dukegunean,
gauza bakoitzaren izena dakikegunean,
bizitzako gauza bakoitzaren izena nota huts baino
akorde bete dakikegunean,
gure begiok dakuskiguketena,
gure belarrioz datorkigukeena,
adimena uki diezagukeen ororentzat
hitz zehatzak dituzkegunean,
errealitatez eta hitzez jabe gaitezkeenean,
orduan ez dukegu eragozpenik izanen
hitzezko paradisu bat sortzeko.
Bitartean paradisurik ez dago,
bitartean eginberri gara,
oraindik ez dakigu gauzen izenik.
Besakozkor handiak ditugu
baina ez dakigu gauzen izenik,
soldaduzka egina dugu
baina ez dakigu gauzen izenik,
unibertsitatean titulatuak gara
baina ez dakigu gauzen izenik,
ezkondu ere egin ginen eta familia hazi
baina ez dakigu gauzen izenik,
jakin usteko pausoz ari gara
baina ez dakigu gauzen izenik.
Gauzei izenik ezarri aurreko
lehen-garaitan gara oraindik.
Zazpi urteko izpiritu bizitza
bizi dugu oraindik.
Juxtu ohartzen gara geure buruz
juxtu geure buruaren erantzukizunez.
Zazpi urteko gara
eta errealitate ikaragarri handi eta ugari eta
aspaldiko baten erdian bizi gara
eta ez diogu ezarri izenik,
ez diogu asmatu izenik,
ta ez dakigu.
Errealitateak itotzen gaitu gauzaz,
edotariko teoriaz, sorketaz, aurrerapenez,
jakintzaz,
baina guk ez dakigu direnok zehazten
xehapenezko hitzez, eta

gutxi gora behera mintzatzen gara
gorabehera gutxi duenez,
ez baitakigu
gauzen izenik,
euskaraz gauzen
izanik''.

(*Uda batez Madrilen*, 66-67. horr.)

EUSKAL KLASIKOEN ARGITALPENAZ

Donostia, 1978 - III - 31

A. Zavala

Euskal klasikoen argitaratzearen bearra, danok ikusten degu. Beren burua ezertan daukaten izkuntza guziak, lan ori egiñik daukate edo egiten ari dira. Emengo erderak bi sorta ditu orretarako: *Clásicos Castellanos* eta *Colección de Autores Españoles Ribadeneira*. Bidasoa'z beste aldeko erderak ere olako zerbait baduala uste det.

Euskeraren premia larriagoa da. Literatura gutxi degu eta daukagun pizarra baztertua. Liburu askotatik oso ale bakanak, diputazioetako liburutegietan-edo. Zenbait liburutatik ale bakarra ere bai. Iñork irakurri edo lanen bat egin nai badu, liburua nun aurkituko duan ere ez daki. Bin-bitartean, salmentara ateratzen diran liburuak, guk kultura gauzetarako dirurik ez eta Ipar-Amerikako unibersidadeak eraman. Zenbait nazio pobretatik, ango monumento zaarrak arriz-arri eraman oi dituzte nazio aberatsetara. Gure literatura ere, liburuz-liburu kanporatzen ari zaigu, baiñan ez det uste pobre-aitzakirik atera dezakegunik.

Beraz, euskal klasikoen sorta bat, liburutegi bat sortu bearra dago. Langintza ori, berriz, Euskaltzaindiaren egitekoa da, ta garai onik iñoiz izan bada, oraintxe degula dirudi.

Zer egin onetarako, Napoleonek gerrarako nai zituan iru gauza aiek bear dira: dirua, dirua ta dirua. Zenbat bearko dan, ez da asmatzen-erreza izango. Urtean zenbat liburu aterako diran jakin bear litzake leenik. Bi edo iru langille ere bearko dira gutxienez, ta beste eginkizunik ez dutenak gaiñera; liberatuak alegia. Toki berezirik gabe ere jai dago. Beste gastu batzuk ere izango dira noski. Beraz, zenbait milloi bearko dira urtean, ezer pulamentuzkorik egitekotan. Euskal-

tzaindiaren presupuestoak zama berria artuko du. Baiñan ekonomia-zaleentzat bego buru-auste ori.

Klasikoak zein diran ere, asieratik erabaki bear litzake. Nere iritzirako, euskeraz iñoiz lan ederrik egin eta mundu ontatik aldegin dutenak dira. Beraz, D'Etxepare'kin asi eta Txomin Agirre'kin-eta bukatu.

Klasiko oietan bi mota ikusten ditut nik, argitaratzearen aldetik. Lenengo, beren lanak batera argitaratuta dauzkatenak. Alakoak, adibidez, Frai Bartolome, Gerriko, Asteasu'ko Agirre. Oiekikoa egiten oso erreza da: idazlearen bizitzaren eta lanaren berri ondotxo dakian batek itzaurrea egin dezala, ori aurretik erantsi eta ondoren garai bateko argitaraldi zaarra, fotolitoz aterata.

Beste klasiko batzuek, berriz, beren lanak oso sakabanatuta izango dituzte. Felipe Arrese Beitia eta Emeterio Arrese, adibidez. Olakorik asko dago emeretzigarren eta ogeigarren mendean. Euskal aldizkariak orduan asi baitziran, eta idazleak aietara bialtzen zituzten beren lanak. Baiñan fotokopiaren bidez, asko erreztu da biltze-lana gaurko egunetan. Euskaltzaindiak makina oietako bat bereganatu bear luke, eta ondoren, *Euskal-Erria* edo *Euskalduna* aldizkariak adibidez artu, eta ango artikulu, olerki eta lan guziak fotokopiatu, eta idazle bakoitzarenak karpeta banatan sartu. Idazle baten bilduma egindakoan, inprentarako prestatu, bialdu eta argitaratu, itzaurrea aurretik erantsiaz. Olakoetan denbora eta diru geiago bearko da noski.

Nere ustetan, bilduma ori egiten lenbailen asi bear da. Ala ere, bildumarik egin bearrik ez duten beste aiek lenengo argitaratu.

Ezertxo argitaratzen asi aurretik, oso arretaz pentsatu bear dira liburu-sorta berriaren neurriak luze-zabalean, leengo liburu zaarrak fotolitoz argitaratzeko neurririk egokiena arkitu arte.

Rustikaz ala azal lodiekin liburak atera, ori ere ondo ausnartu bear dan gauza da. Rustikaz eginda, merkeago aterako da, baiñan liburuak gutxiago iraungo dute. Alderantziz, ordea, azal lodidunak badira: garestiagoak baiñan iraunkorragoak. Bearbada, erdizka ateratzea litzake onena, erosle bakoitzak naiago duana aukera dezan.

Askotan, idazlearen eungarren urte-mugaz baliatzea ongi litzake. Adibidez, orain bi urte-edo ospatu zan nik asko maite detan idazle batena: Barbier'ena. Festa ederra egin zitzaion. Baiñan idazle bati egin genezaioken omenaldirik bikaiñena, aren lan guziak argitaratzea da. Barbiere onek baditu olerkiak, antzerki bat edo beste, nobela bat, ipuiak, eta abar. Oiek guziak bildu eta atera izan bagenitu, orduan eskeñiko genion benetako omenaldia, eta euskerari mesede ederra egin ere bai.

Euskalkiak ere ondo kontuan artu bear lirake. Probintzi guzietako klasikoak bear ditugula esan nahi det.

Nere lerro auek emen bukatuta, geienai ongi idurituko litzaieke. Baiñan munduko izkera guziak badute beste klasikorik ere, askotan alakotzat artzen ez badira ere. Erriliteratura esan nai det.

Dakizutenez, euskerak ere badu, eta sail ugaria, eremu zabala. Liburu-sorta au asten bada, gure erri-literatura bazterrera uztea itxuskeri aundia litzake. Sorta berean leku eman litzaieke gure ipui zaarrai, esaera zaarrai, eta pastoralai, adibidez.

Gure erri-literaturaren saillik aundienetako bat, bertsolaritza, obeki esateko bertso zaarrak, nere bizkar egon da. Orrek bere bidea egiña du eta ortik jarraitu bearko du. Ez ordea neretzat obe izango dalako. Aztertze lana norbaitek egin bear du eta, egia esan, nere gustoko lana da. Baiñan ekonomia ere nere lepotik egotea, geiegizkoa da. Arpideetatik bakarrik jai degu. Falta dana ezin osaturik, denbora-galtze aundiak etortzen zaizkit, eta makiña bat tratu txar eta lotsa gorri ere eman izan diot nere buruari, liburuak artu eta kinkallero bat bezela bertso-saioetara joanda. Orrela ibiltzez aspertuta nago. Al dedan bitartea, aurrera jarraituko det. Baiñan gaurko au oso egokiera ona iduritzen zait, Euskaltzaindia jakiñaren gaiñean jartzeko: nik ez daukat, orain artean bezela, denbora luzean irauterik.

Erri-literaturaren saillean, bertsolaritzaz kanpora ere, zerbait lan egiña nago: baserritarrai-eta, prosa-liburuak idatzi arazi; *narrativa* alegia; kontaerak. Ori ere, aozko literatura papereratzea da. Salaberria'ren *Neronek tirako nizkin* izan zan lenengoa. Uztapide'ren *Lengo egunak gogoan* eta Txirritaren illobaren *Aien garaia* etorri ziran urrengo. Geroztik bes-

te batzuk ere idatzi dira, baiñan diru-faltaz esku-idatziak antxe dauzkat nere gelan, oñetako-kaja batean sartuta, alper-alperrik. Zortzi bat liburu aundi dira. Ontaz ere jakiñaren gaiñean jartzen det Euskaltzaindia.

Erri-literaturari buruz, beste zerbait. Bertsolari-saioak Euskaltzaindiak magnetofonoz bildu bear lituzke. Nik zerbait badet; Jose Mari Iriondo'k ere bai; garai bateko Mujika'k, aretxek bai mordoa. Beti ere, ortan egin dan lan guzia, partikularrak egin dute. Al dan bildumarik osoena egin bear luke Euskaltzaindiak, euskera itzegiñaren bilduma egiten asi dan antzera, bai leengo saioak bilduz eta bai orain egiten diranak grabatuz ere.

Ikusten dezutenez, langintza aundia, programa zabala eskeintzen det. Nik erabillitako puntu guziak ezin erabakiko dira gaurko arratsaldean bakarrik. Baiñan Euskaltzaindiak on luke bide ortatik abiatzea. Oiek baitira, nere iritzirako beintzat, Akademia baten lanak eta zer egiñak.

EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURAREN LEKUKOAK

Bergara, 1978 - V - 26

Luis Mitxelena

Honi eta hari entzuna diot Euskaltzaindia hasiko ote den liburu edo idazki sorta edo bildumaren bat argitaratzen. Hori dela eta, "Euskal klasikoen" izena edo erabili du norbaitek.

Ezin hobeki deritzat asmoari, erabat harturik. Izena hautatzekotan, haatik, *Euskara eta euskal literaturaren lekukoak* edo horren antzeko deituraren bat nahiago nuke, gurean agertu behar direnak ez baitira beti, ez behar bada maizenik ere, erbestean "klasikotzat" hartuko lituzketen horietakoak izango.

Zer argitara. Ez dugu *embarras du choix* delakoa besterik. Hona zenbait izkribu klase:

a) Gutti ezagun diren idazle trebeak: Etxeberri (*Manual*-a, batez ere), Harizmendi, Chourio, Ubillos, Agirre, Prai Bartolome, etc.

b) Hain bikainak ez izanik, hizkuntzaren aldetik zabaltzea merezi dutenak, hala nola Haranburu, Aranbillaga, O. de Arin, Belapeyre, Beriain-en bi liburuak, Elizalderen Dotrina, eta beste hainbeste eta hainbeste. *Etcheverry "Dorre"*-rena!!

c) Argitara gabe daudenak: Esate baterako, 1800 inguruan egin zien hezkuntzaz eta famili-gobernuazko eskuizkribuak, osorik nahiz zatika: Oñatiko Arrazolanekoak, Iruñean, AGN-en, dagoen antzeko beste bat, Héguiateguy (?) delakoarenak, eta beste hainbeste eta hainbeste.

d) Ahozkoak, Aita Zavala biltzen ari denak bezalakoak, noski baino noskiago.

e) Baita berriagoak ere, behar adina ezagutzen ez badira: Jean Etchepare datorkit gogora, baina ez da bakarra. Aldizkarietan, eta are egunkarietan ere, badago zer bil, urtea

joan eta urtea etorri elkarren gainean metaturık baitaude, inor guttik begiraldiren bat opa diela.

f) Ez da bakarra izango, baina *Peru Abarka* datorkit burura. Ebanjelioa balitz bezala hartzen dugu lehen (liburu bezala) edizioa, gerokoek ez baitute hura aldatu baizik, idatzi baino 80 urtez geroago agertua, esku izkribu batetik eta Jainkoak daki nola. Edizio kritiko bat merezi duela uste dut, ahal bezanbat esku-izkribu horretarako bildurik.

Nola. Facsimilean ez, bestela baizik. Argitaragabeak direnean (J. Lizarragarenak eta abar), *dauden daudenean* atera behar dira. Besteekin ere (eta hori aski garbi ikusi da azken urteotan agertu den edizio batekin edo besterekin) kontuz baino kontuzago ibili behar. Etcheberri edo Belapeyre, esaterako, nik ez nituzke batere aldatuko (oraingotuko, esan nahi dut) eta, liburu baten grafia aldatzea erabakitzen baldin bada, hasitzerako pentsatu noraino egin daitekeen eta nola.

Ez litzateke desegoki zenbait behinipein ohar eta argibidez hornituak ateratzea.

Nork. Hortarako gogoa duenak, noski. Gerta daiteke, beraz, jendea eskas ibiltzea; baita ere, ordea, ugariegi azaltzea. Batzorde ttiki bat hautatu beharko litzateke, zenbait interes klase orekan daudelarik: hizkuntza eta literatura zaleak, neurtitzak eta prosa, gai hau, hori eta hura, zahar eta berriago, etc.

Nolanahi ere den, edizio-apaintzaile izan nahi duenak batzordeari aurkeztuko dio *nola* egin nahi duen egin behar duena eta batzordearen baimena nora-ezekoa izango da horretarako. Ezin dezake lana nork bere gogara egin.

Hori onartzen balitz, batzordea hautatu eta lanean abiatu beharko luke Euskaltzaindiak. Norbaitek, gainera, lumero kontua bere gain hartu beharko du, indarrak ongi neurtzeko hasi baino lehen.

HIZTEGIA

MATEMATIKA HIZTEGIA

(1978ko martxoaren 31an Euskaltzaindiak onartua)

1.	magnitud	magnitude
2.	proporcional	proportzional
3.	proporcionalidad	proportzionaltasun
4.	directamente proporcinal	zuzenki proportzional
5.	inversamente proporcional	alderantziz proportzional
6.	proporción directa	proportzio zuzen
7.	proporción inversa	proportzio alderantzizko
8.	proporcionalidad directa	proportzionaltasun zuzen
9.	proporcionalidad inversa	proportzionaltasun alderantzizko
10.	cantidad	kantitate, kopuru
11.	valor	balio
12.	valor absoluto	balio absolutu
13.	valor relativo	balio erlatibo
14.	valor numérico	balio zenbakizko
15.	contar	zenbatu, kontatu
16.	número natural	zenbaki arrunt
17.	medida de magnitud (resultado)	magnitude baten neurri
18.	medida de una magnitud	magnitude baten neurketa
19.	número ordinal	zenbaki ordinal
20.	número cardinal	zenbaki kardinal
21.	sucesión de los números naturales	zenbaki arrunten segida
22.	número siguiente	hurrengo zenbaki
23.	dos números consecutivos	bi zenbaki kontsekutibo
24.	número precedente	aurreko zenbaki
25.	número posterior	ondorengo zenbaki
26.	número anterior	lehengoko zenbaki
27.	numeración (teoría)	zenbakikuntza
28.	numerar	zenbakitu
30.	base de un sistema de numeración	zenbakikuntz sistema baten oin-(h)arri
31.	numeración (acto de)	zenbakiketa
31/bis.	numeración (resultado)	zenbakidura
32.	sistema de numeración	zenbakikuntz sistema
33.	numeración hablada	zenbakikuntza ahozko
34.	numeración escrita	zenbakikuntza idatzizko
35.	cifra	zifra
36.	cifra significativa	zifra baliodun

37. cero	zero
38. constante (substantivo)	konstante
39. variable (substantivo)	aldagai
40. constante (adjetivo)	iraunkor
41. variable (adjetivo)	aldakor
42. constante de proporcionalidad	proportzionaltasun konstante
43. sistema binario de numeración	zenbakikuntz sistema bitar
44. sistema de numeración de base "n"	zenbakikuntz sistema n-tar
45. escribir en bae "n"	n-oin(h)arriaz idatzi
46. cambio de base	oin(h)arri aldaketa
47. unidades de distinto orden	maila desberdineko unitateak
48. unidades de orden inferior	mailaz beheragoko unitateak
49. unidades de orden superior	mailaz goragoko unitateak
50. igualdad y desigualdad entre los números	zenbakien arteko berdintasun eta desberdintasun
51. (signo) igual (=)	berdin (=)
52. miembros de una igualdad	berdintza baten atalak
53. números iguales	zenbaki berdinak
54. establecer una igualdad	berdintza bat ezarri
55. números desiguales	zenbaki desberdinak
56. miembros de una desigualdad	desberdintza baten atalak
62. propiedad simétrica	simetri propietate
63. propiedad antisimétrica	antisimetri propietate
64. propiedad transitiva	iragate propietate
65. operaciones aritméticas	eragiketa aritmetikoak
67. operar	eragin
68. operación aproximada	eragiketa hurbildu, eragiketa aproximatu
69. operación inversa	eragiketa alderantzizko
70. cálculo	kalkulu
71. calcular	kalkulatu
72. resultado de una operación	eragiketa baten emaitza
73. solución	soluzio
74. leyes de una operación	eragiketa baten legeak
75. propiedades de una operación	eragiketa baten propietateak
76. reglas operatorias	eragiketarako erregelak
77. reglas del cálculo	kalkulu erregelak
78. operación conmutativa	eragiketa trukakor
79. propiedad conmutativa	trukatze propietate
80. operación asociativa	eragiketa elkarkor
81. propiedad asociativa	elkartze propietate
82. propiedad distributiva	banatze propietate
83. operación distributiva	eragiketa banakor
84. la adición tiene la propiedad asociativa	batuketak elkartze propietatea du
85. la adición es conmutativa	batuketa trukakorra da
86. la multiplicación es distributiva respecto a la adición	biderkaketa banakorra da batuketarekiko

87.	elemento neutro respecto de una operación aritmética	eragiketa aritmetiko batekiko elementu neutro
88.	elemento neutro	elementu neutro
89.	signo (positivo, negativo)	zeinu (positivo, negativo)
90.	signo de una operación	eragiketa baten ikur
91.	términos de una operación	eragiketa baten gaiak
92.	tabla de una operación	eragiketa baten taula
93.	tablas de cálculo	kalkulu taulak
94.	resultado	emaitza
95.	total (adjetivo)	guztizko
96.	total (sustantivo)	total
97.	hacer una operación	eragiketa bat egin
98.	operaciones abreviadas	eragiketa laburtuak
99.	comprobar el resultado	emaitza egiztatu
100.	prueba de una operación	eragiketa baten egiztapen
101.	prueba por nueve	bederatzizko egiztapen
102.	operador	eragile
103.	adición	batuketa
104.	aditivo	batukor
105.	suma (operación)	batuketa
106.	suma (resultado)	batura
107.	sumar	batu
108.	sumando	batugai
109.	términos de una suma	batuketa baten gaiak
110.	sumando neutro	batugai neutro
111.	orden de los sumandos	batugaien ordena
112.	tabla de sumar	batuketa taula
113.	regla de la adición	batuketaren lege
114.	suma abreviada	batuketa laburtu
115.	sustracción	kenketa
116.	diferencia	kendura
117.	resta, resto (resultado)	kendura
118.	resta (operación)	kenketa
119.	restar	kendu
120.	minuendo	kenkizun
121.	sustraendo	kentzaile
122.	propiedades de la sustracción	kenketaren propietateak
123.	regla de la sustracción	kenketaren lege
124.	sustracción imposible en el conjunto de los números naturales	kenketa ezinezkoa zenbaki arrunten multzoan
125.	par ordenado de números naturales	zenbaki arrunten bikote ordenatu
126.	equivalencia de pares	bikoteen baliokidetasun
127.	clase de los pares equivalentes	bikote baliokideen klase
128.	número entero	zenbaki oso
129.	número positivo	zenbaki positibo
130.	número negativo	zenbaki negatibo
131.	-3	minus hiru
132.	$+3$	plus hiru

133.	número opuesto	aurkako zenbaki
134.	número simétrico de otro respecto de la suma	batuketarekiko zenbaki baten simetriko
135.	multiplicación (operación)	biderkaketa
136.	multiplicar	biderkatu
137.	factor	biderkagai, faktore
138.	orden de los factores	biderkagaien ordena, faktoreen ordena
139.	multiplicando	biderkakizun
140.	multiplicador	biderkatzaile
141.	múltiplo	multiplo
142.	duplo	bikoitz
143.	triplo	hirukoitz
144.	cuádruplo	laukoitz
145.	n-uplo	n-koitz
146.	duplicar	bikoiztu
147.	triplicar	hirukoiztu
148.	n-plicar	n-koiztu
149.	producto	biderkadura
150.	tabla de multiplicar	biderkaketa taula
151.	tabla de Pitágoras	Pitagorasen taula
152.	leyes de la multiplicación	biderkaketaren legeak
153.	multiplicación abreviada	biderkaketa laburtu
154.	potenciación, elevación a potencia	berreketa
155.	elevar a potencia	berretu, berretzaile batera jaso
156.	elevar a *n*	ber-n-tu, n-ra jaso
157.	elevar al cuadrado	berbitu, karratura jaso
158.	elevar al cubo	ber-hirutu, kubora jaso
159.	elevar al exponente *n*	n berretzaileaz berretu, n berretzailera jaso
160.	elevar al exponente —2	—2 berretzailera jaso
161.	elevar al exponente 3,5	3,5 berretzailera jaso
162.	potencia de un número (resultado)	zenbaki baten berredura
163.	potenciación de un número (operación)	zenbaki baten berreketa
164.	potencia de x	x-en berredura
165.	base de una potencia	berrekizun
166.	grado de una potencia	maila, gradu
167.	exponente	berretzaile
168.	cuadrado	berbidura, karratu
169.	cuadrado perfecto	karratu bete, berbidura bete
170.	elevar tres al cuadrado	hirua berbitu, hirua karratura jaso
171.	cuadrado de tres	hiruaren berbidura, hiruaren karratu
172.	elevar cinco al cuadrado	bosta berbitu, bosta karratura jaso

173. cuadrado de cinco	bostaren berbidura, bostaren karratu
174. cuadrado de una suma	batura baten berbidura, batura baten karratu
175. cubo	kubo
176. n-sima potencia de un número	zenbaki baten ber-n-dura
177. división	zatiketa
178. dividir	zatitu
179. hacer una división	zatiketa bat egin
180. división 36 : 4	36 : 4 zatiketa
181. división exacta	zatiketa hondargabe
182. división entera	zatiketa oso
183. dividendo	zatikizun
184. divisor	zatitzaile
185. cociente	zatidura
186. cociente exacto	zatidura exaktu
187. cociente entero	zatidura oso
188. cociente por defecto	gutxiagozko zatidura
189. cociente por exceso	gehiagozko zatidura
190. resto de una división entera	zatiketa oso baten hondar
192. resto por exceso	gehiagozko hondar
193. resto parcial	tarteko hondar
194. reglas para efectuar la división	zatiketa egiteko erregelak
195. división aproximada	zatiketa hurbildu
196. división abreviada	zatiketa laburtu
197. divisibilidad entre números naturales	zenbaki arrunten arteko zatigarritaun
198. divisible	zatigarri
199. condición de divisibilidad	zatigarritasun baldintza
200. número compuesto	zenbaki konposatu
201. número par	zenbaki bikoiti
202. número impar	zenbaki bakoiti
203. número primo	zenbaki lehen
204. sucesión de los números primos	zenbaki lehenen segida
205. criba de Eratostenes	Eratostenesen bahe
206. sucesión ilimitada	segida mugagabe
207. factor o divisor de un número	zenbaki baten faktore, zenbaki baten zatitzaile
207/A. factorizar	biderkagaitu, faktorizatu
208. factorización (descomposición en factores	biderkagaiketa, faktorizaketa
209. divisor	zatitzaile
210. submultiplo	zatitzaile, azpimultiplo
211. descomposición de un número en sus factores primos	zenbaki baten bidergaiketa lehena
212. factores comunes a dos números	bi zenbakiren biderkagai komunak, bi zenbakiren faktore komunak

213. máximo común divisor	zatitzaile komunetako handien
214. mínimo común múltiplo	multiplo komunetako txikien
215. número racional	zenbaki razional
216. número no entero	zenbaki ez-oso
217. par ordenado de números enteros	zenbaki osoen bikote ordenatu
218. clase de pares equivalentes	bikotebaliokideen klase
219. clase de equivalencia	baliokidetasun klase
220. fracción, quebrado	zatiki, frakzio
221. fracción inversa	zatiki alderantzizko, frakzio alderantzizko
222. número fraccionario	zenbaki frakzionari(o)
223. términos de una fracción	zatiki baten gaiak, frakzio baten gaiak
224. numerador	zenbakitzaile
225. denominador	izendatzaile
226. número mixto	zenbaki nahasi
227. fracciones equivalentes	zatiki baliokideak
228. equivalencia de dos fracciones	bi zatikiren arteko baliokidetza
229. simplificación de una fracción	zatiki baten sinplifikazio
230. simplificar una fracción	zatiki bat sinplifikatu
231. reducir dos fracciones a común denominador	bi zatiki izendatzaile berdinera eraman
232. mínimo común denominador	izendatzaile komunetako txikien
233. fracción irreducible	zatiki sinplifikaezin
234. fracción reducible	zatiki sinplifikagarri
235. fracción reducida	zatiki sinplifikatu
236. razón o relación de dos números	bi zenbakiren arteko erlazio, bi zenbakiren arteko arrazoi
237. antecedente	aurrekari
238. consecuente	atzekari
239. medios y extremos de una proporción	proportzio baten erdikariak eta buruak
240. fracción decimal	zatiki hamartar, frakzio hamartar
241. forma decimal de un número racional	zenbaki razional baten era hamartar
242. fracción periódica	zatiki aldizkako, frakzio aldizkako
243. fracción periódica pura	zatiki aldizkako huts, frakzio aldizkako huts
244. fracción periódica mixta	zatiki aldizkako nahasi, frakzio aldizkako nahasi
245. radicación, extracción de raíces	erroketa
246. extraer la raíz de un número	zenbaki baten erroa atera
247. raíz (resultado)	erro, erro(dura)
248. raíz cuadrada	bigarren erro(dura)
249. raíz cúbica	hirugarren erro(dura)
250. raíz enésima	n-garren erro(dura)

251. radicando	errokizun
252. resto	hondar
253. número irracional	zenbaki ezrazional
253/A. número inconmensurable	zenbaki elkar neurgaitz
254. número real	zenbaki erreal
255. cortadura	ebakidura
256. sucesiones monótonas convergentes	segida joerabakar hurbilkorrak, segida joerabakar konberjenteak
257. forma decimal del número real	zenbaki errealaren era hamartar
258. error	errore
259. error absoluto	errore absolutu
260. error relativo	errore erlatibo

GEOMETRIA ELEMENTAL

261. geometria	geometria
262. geometria plana	geometria laun
263. geometria del espacio	espazioaren geometria
263/A. geometria espacial	geometria espazial
264. extensión	hedadura
265. espacio	espazio
266. altura	altuera
267. largura	luzera
268. anchura	zabalera
269. dimensión	dimentsio
270. longitud	luzera
271. área	azalera
272. volumen	bolumen
273. capacidad	edukiera
274. figura geométrica	irudi geometriko
275. forma geométrica	eite geometriko, forma geometriko
276. figura plana	irudi laun
277. linea	lerro, linea
278. superficie (forma geométrica)	azal
279. cuerpo geométrico	gorputz geometriko
281. trazar	marratu
282. cortar	ebaki
283. orientar una figura	irudi bat norabideratu
284. traza	marra
285. sección o corte	ebakidura
286. transversal	zeharkako
287. longitudinal	luzerazko
288. compás	konpas
289. nonius	nonius
290. regla (de dibujo)	erregela
291. escuadra	eskuaira

292. escala	eskala
293. medida	neurri
294. unidad de medida	neurri unitate
295. medidas de longitud	luzera neurriak
296. metro	metro
297. medidas de superficie	azalera neurriak
298. metro cuadrado	metro karratu, metro koadro
299. medidas agrarias	nekazal neurriak, laborantz neurriak
300. área, hectárea, centiárea	area (neurri unitate), hektarea, zentiarea
301. medidas de volumen	bolumen neurriak
302. metro cúbico	metro barne, metro kubiko
303. medidas de capacidad	edukiera neurriak
304. litro	litro
305. división sexagesimal	zatidura hirurogeitar
306. grado, minuto, segundo	gradu, minutu, segundo
307. gráficamente	grafikoki
308. gráfico, -a (sust)	grafiko
308/A. gráfico (adj)	grafiko
309. punto	puntu
310. puntos en línea recta, puntos alineados	puntu zuzenkatuak
311. lineal	lineal
312. segmento lineal	zuzenki, segmentu
313. extremos de un segmento	zuzenki (baten) buruak, segmentu (baten) buruak
314. segmento orientado	zuzenki norabideratu, segmentu norabideratu
315. origen y extremo de un segmento	zuzenki baten abiaburu eta helburu, segmentu baten abiaburu eta helburu
316. segmentos consecutivos	ondoz-ondoko zuzenkiak, ondoz--ondoko segmentuak
317. distancia de dos puntos	bi punturen arteko distantzia
318. equidistancia	distantzikidetasun
319. puntos equidistantes	puntu distantzikideak
320. punto medio de un segmento	zuzenki baten erdiko puntu, segmentu baten erdiko puntu
321. linea recta	lerro zuzen, linea zuzen
322. a pertenece a A	a, A-n dago
323. a pasa por A	a, A-tik pasatzen da
324. sentido de una recta	zuzen baten norantza
325. recta orientada	zuzen norabideratu
326. semirecta	zuzenerdi
327. dirección de una recta	zuzen baten direkzio
328. plano (sust.)	plano
329. plano (adj.)	laun
330. regiones de un plano	plano baten eskualdeak
331. región interior	barreneko eskualde

332. región exterior	kanpoko eskualde
333. punto de intersección de dos rectas	bi zuzenen ebaki-puntu
334. rectas que se cortan	elkar ebakitzen duten zuzenak
335. concurrencia (en un punto)	elkar topa (puntu batetan)
336. haz de rectas	zuzen sorta
337. haz de rectas concurrentes	zuzen topakor sorta
338. haz de rectas paralelas	zuzen paralelo sorta
339. vértice de un haz	sorta baten erpin
340. rectas paralelas cortadas por una secante	ebakitzaile batez ebakitako zuzen paraleloak
341. segmentos comprendidos entre paralelas	paraleloen arteko zuzenkiak, paraleloen arteko segmentuak
342. ángulo de dos rectas	bi zuzenen arteko angelu
343. vértice de un ángulo	angelu baten erpin
344. lados de un ángulo	angelu baten aldeak
345. lado común a dos ángulos	bi angeluren alde komun
346. ángulo adyacente	alboko angelu
347. ángulo complementario	angelu osagarri
348. ángulo suplementario	angelu betegarri
349. ángulos opuestos por el vértice	erpinez aurkako angeluak
350. ángulo llano	angelu laun
351. ángulo cóncavo	angelu konkabo, angelu ahur
352. ángulo convexo	angelu konbexu, angelu ganbil
353. ángulo recto	angelu zuzen
354. ángulo obtuso	angelu kamuts
355. ángulo agudo	angelu zorrotz
356. ángulo nulo	angelu ezdeus, angelu nulu
357. ángulos entre paralelas	paraleloen arteko angeluak
357/A. ángulos correspondientes entre paralelas	paraleloen arteko angelu aldeberekoak
358. ángulos alternos-internos	txandakako barneangeluak
359. ángulos alternos-externos	txandakako kanpoangeluak
360. perpendicular (sust)	elkartzut, perpendikular(e)
361. oblicua	zeihar
362. vertical (sust)	zut, bertikal(e)
362/A. vertical (adj)	zut, bertikal
363. horizontal (adj)	horizontal
363/A. horizontal (sust)	horizontal(e)
364. semiángulo	angeluerdi
365. bisectriz de un ángulo	angelu baten erdikari
366. triángulo	triangelu, hiruki
367. triángulo rectángulo	triangelu zuzen
368. triángulo oblicuángulo	triangelu zeihar
369. triángulo obtusángulo	triangelu kamuts
370. triángulo acutángulo	triangelu zorrotz
371. cateto	kateto
372. hipotenusa	hipotenusa
373. triángulo equilátero	triangelu aldeberdin

374. base de un triángulo	triangelu baten oin(h)arri
375. altura de un triángulo	triangelu baten altuera
376. mediatriz	erdibitzaile
377. mediana	erdibideko
378. polígono	poligono
379. vértice de un polígono	poligono baten erpin
380. lado de un polígono	poligono baten alde
381. diagonal	diagonal(e)
382. polígono concavo	poligono konkabo, poligono ahur
383. polígono convexo	poligono konbexu, poligono ganbil
384. (lineal) poligonal	(lerro, linea) poligonal
385. perímetro de un polígono	poligono baten perimetro
386. polígonos isoperímetros	perimetro berdineko poligonoak
387. área de un polígono	poligono baten azalera
388. polígonos equivalentes	poligono baliokideak
389. cuadrilátero	lauki
390. cuadrilatero completo	lauki osatu
391. cuadrado	lauki
392. rectángulo	laukizuzen
393. rectangular	zuzenangeluar
394. paralelogramo	paralelogramo
395. rombo	erronbo
396. rómbico	erronbiko
397. trapecio	trapezio
398. base mayor de un trapecio	trapezio baten oin(h)arri handien
399. base menor de un trapecio	trapezio baten oin txikien
400. polígono equilátero	poligono aldeberdin
401. polígono equiángulo	poligono angeluberdin
402. polígono regular	poligono araberatu, poligono erregular
403. centro de un polígono regular	poligono araberatu baten zentru, poligono araberatu baten erdigune, poligono erregular baten zentru, poligono erregular baten erdigune
404. radio de un polígono regular	poligono erregular baten arradio, poligono araberatu baten arradio.
405. apotema de un polígono regular	poligono araberatu baten apotema, poligono erregular baten apotema
406. pentágono	pentagono
407. hexágono	hexagono
408. eptágono	eptagono
409. octógono	oktogono
410. eneágono	eneagono
411. decágono	dekagono
412. pentadecágono	pentadekagono
413. rectas que se cruzan	gurutzatzen diren zuzenak

414. mínima distancia de dos rectas que se cruzan	gurutzatzen diren bi zuzenen arteko distantziarik txikien
415. planos paralelos	plano paraleloak
416. planos que se cortan	elkar ebakitzen duten planoak
417. recta intersección de dos planos	bi planoren arteko ebakidur--zuzen
418. diedro	diedro
419. diedros adyacentes	alboko diedroak
420. diedro recto	diedro zuzen
421. planos perpendiculares	plano elkartzutak
422. plano bisector de un diedro	diedro baten plano erdikari
423. triedro	triedro
424. vértice de un triedro	triedro baten erpin
425. aristas de un triedro	triedro baten ertzak
426. caras de un triedro	triedro baten aurpegiak
427. triedro trirectángulo	triedro zuzen
428. poliedro	poliedro
429. elementos de un poliedro	poliedro baten elementuak
430. vértice	erpin
431. arista	ertz
432. cara	aurpegi
433. base	oin(h)arri
434. arista lateral	alde(ta)ko ertz
435. arista básica	oin(h)arrizko ertz
436. cara lateral	alde(ta)ko aurpegi
437. área lateral	alde(ta)ko azalera
438. área total	guztizko azalera
439. poliedro regular	poliedro araberatu, poliedro erregular
440. tetraedro	tetraedro
441. teatraedro regular	teatraedro araberatu, tetraedro erregular
442. hexaedro	hexaedro
443. paralelepípedo	paralelepipedo
444. paralelepípedo recto	paralelepipedo zuzen
445. paralelepípedo rectángulo	paralelepipedo zuzenangeluar
446. cubo	kubo
447. romboedro	erronboedro
448. prisma	prisma
449. base de un prisma	prisma baten oin(h)arri
450. prisma recto	prisma zuzen
451. prisma oblicuo	prisma zeihar
452. sección recta de un prisma	prisma baten ebakidura zuzen
453. prismatoide	prismatoide
454. pirámide	piramide
455. vértice de una pirámide	piramide baten erpin
456. octaedro	oktaedro
457. icosaedro	ikosaedro
458. pentadodecaedro	pentadodekaedro
459. línea	lerro, linea

460. línea abierta	linea ireki, lerro ireki
461. línea cerrada	linea itxi, lerro itxi
462. línea quebrada	linea hautsi, lerro hautsi
463. línea mixta	linea nahasi, lerro nahasi
464. línea curva	linea makur, linea kurbatu, lerro makur, lerro kurbatu
465. curva	makur, kurba
466. curvo (adj)	kurbatu, makur
467. arco	uztai, arku
468. cuerda	korda
469. curvatura	makurdura, kurbadura
470. tangente	ukitzaile
471. secante	ebakitzaile
472. tangente en un punto	puntu ateko ukitzaile
473. punto de tangencia, punto de contacto	ukitze puntu
474. punto de inflexión	bihurtze puntu
475. cortarse dos líneas	bi lerro elkar ebaki, bi linea elkar ebaki
476. curvas tangentes	makur ukitzaileak, kurba ukitzaileak
477. circunferencia	zirkunferentzia
478. semi-circunferencia	zirkunferentzierdi
479. arco de circunferencia	zirkunferentzi uztai, zirkunferentzi arku
480. flecha de un arco	uztai baten gezi, arku baten gezi
481. centro	erdigune, zentru
482. diámetro	diametro
483. recta exterior	kanpoko zuzen
484. circunferencias concéntricas	zirkunferentzia zentrubideak
485. circunferencias secantes	zirkunferentzia ebakitzaileak
486. circunferencias tangentes	zirkunferentzia ukitzaileak
487. circunferencias exteriores	kanpoko zirkunferentziak
488. circunferencias tangentes exteriormente	zirkunferentzia kanpoz ukitzaileak
489. circunferencia interior a otra	beste baten barreneko zirkunferentzia
490. circunferencia tangente interiormente	zirkunferentzia barrenez ukitzaile
491. ángulo inscrito en una circunferencia	zirkunferentzia batean inskribaturiko angelu
492. ángulo interior	barreneko angelu
493. ángulo exterior	kanpoko angelu
494. polígono inscrito	poligono inskribatu
495. polígono circunscrito	poligono zirkunskribatu
496. incentro	intzentru
497. circuncentro	zikuntzentru
498. círculo	zirkulu
499. círculo cerrado	zirkulu itxi
500. segmento circular	segmentu zirkular

501. sector circular	sektore zirkular
502. semi-círculo	zirkuluerdi
503. elipse	elipse
504. elíptico	eliptiko
505. ejes de una elipse	elipse baten ardatzak
506. focos de una elipse	elipse baten begiak
507. ovalo	obalo
508. espiral	kiribil
509. superficie (forma geométrica)	azal
510. superficie reglada	azal zuzenkoi
511. generatriz	sortzaile
512. directriz	zuzentzaile
513. superficie cilíndrica	azal zilindriko
514. superficie cónica	azal koniko
515. superficie esférica	azal esferiko
516. círculo máximo	zirkulu nagusi
517. polos de un círculo máximo	zirkulu nagusi baten buruak
518. círculo menor	zirkulu labur
519. casquete esférico	txapel esferiko
520. zona esférica	gerri esferiko
521. ángulo esférico	angelu esferiko
522. triángulo esférico	triangelu esferiko, hiruki esferiko
523. poligono esférico	poligono esferiko
525. cono	kono
526. tronco de cono	kono-enbor
527. cilindro	zilindro
528. tronco de cilindro	zilindro-enbor
529. esfera	esfera
530. semiesfera	esferaerdi
531. cuña esférica	ziri esferiko
532. segmento esférico	segmentu esferiko
533. transformación geométrica	transformazio geometriko
534. movimiento	mugimendu, higidura
535. igualdad de figuras	irudien berdintasun
536. figuras iguales	irudi berdinak
537. figuras igualmente orientadas	irudi berdin norabideratuak
538. igualdad directa de figuras	irudien berdintasun zuzen
539. igualdad inversa de figuras	irudien berdintasun alderantzizko
540. figuras inversamente iguales	irudi alderantziz berdinak
542. translación	translazio
543. translación compuesta	translazio konposatu
544. transladar una figura	irudi bat transladatu
545. giro	biraketa
547. centro de giro	biraketa zentru
548. eje de giro	biraketa ardatz
549. simetría	simetria
550. simetría plana	simetria laun
551. simetría espacial	simetria espazial
552. centro de simetría	simetri zentru

553.	eje de simetría	simetri ardatz
554.	plano de simetría	simetri plano
555.	simetría axial	ardatzarekiko simetria
556.	simetría central	zentruarekiko simetria
557.	simetría planaria, respecto a un plano	planoarekiko simetria
558.	figuras simétricas	irudi simetrikoak
559.	figura simétrica respecto a un centro, a un eje, a un plano	zentru, ardatz, plano batekiko irudi simetriko
560.	centro, eje, plano de simetría de una figura	irudi baten simetri zentru, ardatz, plano
561.	semejanza	antzekotasun
562.	razón de semejanza	antzekotasun arrazoi
563.	centro de semejanza	antzekotasun zentru
564.	semejanza directa	antzekotasun zuzen
565.	semejanza inversa	antzekotasun alderantzizko
566.	polígonos semejantes	antzeko poligonoak
567.	figuras semejantes	antzeko irudiak
568.	homotecia	homotezia
569.	centro de homotecia	homotezi zentru
570.	razón de homotecia	homotezi arrazoi
571.	inversión	inbertsio
572.	centro de inversión	inbertsio zentru
573.	potencia de inversión	inbertsio-konstante
574.	círculo de inversión	inbertsio zirkulu
575.	círculo auto-inverso	zirkulu autoinbertso
576.	sistema de coordenadas	koordenatu sistema
577.	coordenadas cartesianas	koordenatu cartesiarrak
578.	coordenadas rectangulares	koordenatu zuzenangeluarrak
579.	coordenadas oblicuas	koordenatu zeiharrak
580.	origen de coordenadas	koordenatu jatorri
581.	eje de abcisas	abzisa ardatz
582.	eje de ordenadas	ordenatu ardatz
583.	abcisa	abzisa
584.	ordenada	ordenatu
584.1.	seno	sinu (sin α)
584.2.	coseno	kosinu (cos α)
584.3.	tangente	tanjente (tan α)
584.4.	cotangente	kotanjente (cot α)
584.5.	secante	sekante (sec α)
584.6.	cosecante	kosekante (cosec α)
584.7.	arco seno	arku sinu (arc sin α)
584.8.	arco coseno	arku kosinu (arc cos α)
584.9.	arco tangente	arku tanjente (arc tan α)
584.10.	arco cotangente	arku kotanjente (arc cot α)
584.11.	arco secante	arku sekante (arc sec α)
584.12.	arco cosecante	arku kosekante (arc cosec α)

BATZAR AGIRIAK

BATZAR AGIRIAK

1977 - XII - 30

Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko Abenduaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. Fdez. Setien, B. Gandiaga, J. Goikoetxea-Maiza, J. Intxausti, R. Kanblong, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M. Mujika, I. Sarasola, P. Xarritton, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak.

Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi du.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azaroko batzar agiria onartu da.

a) HARREMANAK:

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Emaile diren jaun eta argitaratzaile hauei eskerrak ematea erabaki da: P. Lafitte, J. Hiriart-Urruty, J. L. Davant, A. Irigaray, J. M. Satrustegi, B. Gandiaga, Aita J. Riezu, E. Arrillaga, Liturjia batzordea, Bizkaiko Diputazioa eta Everest Editoriala.

Kontaduriaz arduratzen den J. J. Zearreta laguntzaileak hartu diren diru laguntzen berri eman du. Getariako Udalbatzarrak 5.000,– pezeta, Zaldibarko Udalbatzarrak 20.000,–, eta Goiti, S. C. I. Elgoibarko industriak 5.000,– pzta.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Donostiako kale izenen zerrenda aztertu da.

Eusko Ikaskuntzaren gutuna, kideko bat izendatzeaz. Gerra aurrean arau zen bezala, euskaltzainburua eta idazkaria ordezkari bezala proposatzea erabaki da.

Euskal kultur elkarteen arterako sortzeko den Erakundearekin harremana izateko honako ordezkari hauek izendatzen dira: J. M. Satrustegi, J. San Martin, E. Knörr eta J. L. Lizundia. Erakunde hau zertan denari buruz J. M. Satrustegi, J. Intxausti eta bestek informatu dute.

Bergaran 1978ko Irailean, 4tik 9ra, egingo diren Biltzar nagusiak prestatzeaz, aldez aurretik langintzaren planifikazio eratzeko zenbait erabaki hartu dira. Biltzar hortara txostenak bidali nahi dituztenei dei egingo zaie, 1978ko ekainaren azkenerako beren adierazpenak eta txostenak Euskaltzaindiara bidaliak izan beharko direla. Baina, horien adierazpenen laburpenak ekainaren bukaerarako bidaliaz. Biltzar antolakizunak garaiz egin ahal izateko.

d) HIRIETAKO IZENEZ:

J. San Martinen txostena, hiribilduak sortzeaz kale izenak nola hasi ziren, hauek nola erabiliak izan diren eta gaurko eskariei erantzuteko nola behar luketen.

e) EUSKAL HIZKERA ETA EUSKAL NEURKERA

L. Mitxelenaren txostena, literatura zaharrean eta herri kantetan oinarriturik egin dituen ikerketaz euskal hizkeraz eta euskal neurkeraz zenbait ohar, hizkuntzaren joskerarekin zer ikusirik ere baduena.

f) 1978. URTERAKO BATZAR EGUTEGIA:

Idazkari ordeak irakurri du datorren urterako batzar egutegia:urtarrilaren 29an, Iturriagaren omenezko batzarrea, Hernanin; martxoaren 31an, Endrike Knörr jaunaren sarrera batzarrea, Gasteizen; irailean, zortzigarren Euskaltzaindiaren Biltzarrak Bergaran, Eleizalderen omenetan, eta bertan beharrezko izanik, Iraileko batzarrea ere; apirilekoa Hazparneko Euskal Astean, eta Zumaiako Bonifazio Etxegarairen mendeurrenean ere parte hartuko dugu. Gainerako batzarrak ohi bezala hilaren azken ostiraletan Donostian izango dira, azarokoan Intzagarai hasierako euskaltzaina gomutatuz.

g) SISTEMA PERIFRASTIKOAREN LAGUNTZAILE BATZUEN JATORRIAZ:

A. Irigoyenen txostena, latinezko "habeo" bezala erabiltzen zen *E(d)un* delakoaren sustrai bereko *dut, duzu, du* eta abar, gaur egun bizirik dirauten flesioetan oinarriturik egin dituen azterketa oharrak adiarazi ditu.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Idazkaria*
LUIS VILLASANTE — *Juan San Martin*

BATZAR AGIRIAK

1978 - I - 29

Hernanin, Meza Nagusiaren ondoren, Udaletxean bildu dira, 1978.e-ko Urtarrilaren 29an, Agustin Pascual Iturriaga euskal idazlearen 2. mendehurrenaren ospakizuna dela eta:

L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. San Martin idazkari, A. Irigoyen, P. Lafitte eta A. Zabala euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. Fdez. Setien, J. Garmendia Kortadi, X. Kintana, I. Laspiur, J. L. Lizundia, J. M. Mujika, K. Santamaria, I. Sarasola, J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak.

Agintarien aldetik mahaiburuan eseri dira Iruin jauna, herriko alkate, Oyarzabal jauna, Probintziako Gobernadorea, eta Egia jauna, Gipuzkoa Diputazioko lehendakari ordea.

J. L. Davant, X. Diharce, E. Erkiaga, E. Larre eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi dute. E. Knörr, J. M. Satrustegi elurrarengatik ezin etorri izan dira.

Lehendabizi Iruin, Alkate jaunak, Hernaniko herriaren izenez ongi etorria eman du.

Ondoren, Euskaltzainburuak agur batez adierazi du nola Euskaltzaindiak ohitura duen Euskal Herrian zehar honelako batzarre irekiak egitea euskararen alorrean saiatu diren gizon ospetsuen mendehurrenetan, eta, horrela, egun, Hernanira etorri dela bertoko seme Agustin Pascual Iturriagaren 200. urtehurrena gomutatuz.

A. Jose Ignazio Lasak bere hitzaldia eskaini du: "A. Iturriagaren bizitzaz", xehetasun ugari emanez. Bide batez, agintariei eskakizun bat egin zien, halegia, Valladolideko Unibertşitatean dauden Oinatiko Unibertsitate ohiaren "artxibo ondasunak" hona ekartzeko, zeren hara joan behar izan baitzuen P. Iturriagaren datu zehatzen bila.

Ibon Sarasola, euskaltzain laguntzailea, "A. Iturriaga, euskal idazle" gaiaz mintzatu zen, zera nabarmenduz, garai hartako euskal idazleak ohi ez bezala eliz gaietatik kanpoko literatur emaitzetan sakonduz.

J. San Martin, euskaltzaindiko idazkariak, "A. Pascual Iturriaga eta euskararen instituzionalizatzeaz" egin zuen bere hitzaldia. Nola euskara eskoletan sartzeaz eta hizkuntzaren praxisaz aintzindari nola izan zen azaldu zuen batez ere. Hernaniko institutoari Pascual Iturriaga izena jartzea proposatu du azkenik.

J. L. Lizundia, Euskaltzaindiko "Herri Izendegi"-ko batzorde idazkariak Euskal Udalen izendegia aurkeztu du adieraziz nola zuzenketa epea

egun hontan amaitzen zen eta orain batzordeak aztertuko dituen Euskal Herriko Udal batzarrei eta gizakomunikabideei dei bat eginez, hauei zabalkundea eskatuz eta haiei Euskaltzaindiak euskararen aldetik finkatuko duen Izendegi hau beraiek Administralgo alorretik ofizial dezatela.

Bukatzeko Deustuko Unibertsitatean eginiko euskal irakasleen etsamina diploma eta karnet banatzea egin zen.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1978 - II - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978ko Otsailaren 24an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru dela, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Lojendio, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, P. Charritton, J. A. Etxebarria, J. Fdz. Setien, X. Garmendia, J. Intxausti, M. Lasa, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M. Mujika, J. A. Retolaza, I. Sarasola, J. M. Torrealday, M. Ugalde, P. Uribarren, M. Zarate, eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko eta Urtarrileko batzar agiriak onartu dira.

a) HARREMANAK:

Liburuzainak hartu diren liburu eta lanen separaten berri eman du, eta emaile diren P. Irizar, J. A. Etxebarria, L. Mitxelena eta J. San Martin euskaltzaindikoez gainera, A. Manzanares, J. M. Martín Retana, L. Baraiazarra, M. M. Zubiaga eta Gero argitaldariari eskerrak ematea erabaki da.

d) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Bilboko Aurrezki Kutxak bere kontseilaritzarako Euskaltzaindiko ordezkaria eskatu du, eta A. Irigoyen izendatu da kontseilari eta J. J. Zearreta ordezko.

C. Santamaria Euskalerriko Kontseilu Nagusiko izendatu dutenez, *Educación* hitzak euskaraz nola behar duen eskatzen du. *Hezkuntza* aurkitu da erarik jatorrentzat.

Gobernuaren Hezkuntza Ministeriotik euskara eskoletan erakusteko plangintzak ikusteko deia izan dugu eta Ikastola Federazioekin bilkurak egin dira gai hontaz.

Hazparnen apirilaren 16an euskararen eguna izanen da Pierre Broussain zenaren ohorez. Hango 9,30 orenetan mezarekin hasiko da. P. Larzabalek eginen du predikua, eta meza ondotik Herriko Etxean mintzaldiak, hauzapezaren agurrezko hitzak eta J. Haritschelhar Broussain eus-

kaldun eta euskaltzale gaiari loturik. "Euskararen Estudio Sociolinguistikoaren" Iparraldeko aurkezpena ere bertan egingo da.

Apirilaren 28an, San Prudentzio egunez, Gasteizen, Arabako Foru Diputazioko jauregian, E. Knörr jaunak egingo du bere sarrera hitzaldia.

Datorren iraileko biltzarrerako izendatua zen estadistika batzordea bildu da eta bere lanaren plangintza eratu du.

Bitartean, euskaltzainak eta Euskal Udalen Izendegiaren batzordekoek bildurik, iritsi diren oharrak aztertu dituzte, Mitxelenak gai honetaz egin duen txostena ere irakurriz. Izendegia, orokorki onartua gelditzen da, eta bereziki falta diren xehetasun eta udal izenak huts hutsean batzordearen esku ohargileekin batera utzirik.

d) ZENBAIT ERDERATIKAKO ERAGIN EUSKAL SISTEMAN HISTORIAN ZEHAR:

A. Irigoyenen txostena, euskal sistemen historian erderatikako eraginez egin dituen ikerketen berri emanez. Bere ikerketa aintzinako idazle zahar, errefrau eta kantetan oinarritzen da.

e) EUSKALERRIKO KONTSEILU NAGUSIARI EUSKARAREN ALDEKO PLANGINTZA BATEN PROPOSAMENA:

J. San Martinen txostena, euskara indartzeko eta zabaltzeko plangintza orokor baten proposamena egin, plangintza eskaini eta hau aurrera eramateko beharrezko den laguntza eskatu. Honetarako, bi batzorde izendatzea eskatzen du, batzorde tekniko bat administrazio ofizialerako hiztegia egingo duena eta euskararen zabalkundea estudiatuko duena.

Bukaeran, Hernaniko Udalari eskerrak ematea erabaki da, Agustin Pascual Iturriagaren omenaldirako eman zigun laguntzagatik.

Bestalde, euskaltzainburuaren eskariz, batzarkideen zorionak ematea Karlos Santamaria euskaltzain laguntzaileari Euskalerriko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza Kontseiluko buru izendatua izan delako.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

1978 - III - 31

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978ko Martxoaren 31an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru dela, X. Diharce, E. Erkiaga, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; I. Berriatua, J. A. Etxebarria, J. Fernandez Setien, X. Garmendia Etxeberria, J. Garmendia Larrañaga, J. Intxausti, J. M. Iriondo, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. A. Retolaza, P. Uribarren, P. Xarritton eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak J. San Martin idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Larre eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Otsaileko batzar agiria onartzen da.

a) HARREMANAK:

E. Erkiaga diruzainak 1977. urteko diru kontuen berri ematen du. Zertxeladarik aipagarrienak azaltzen ditu eta baita Bilbo eta Donostiako kutxen eta Bankuetako egoera. Kontuen laburpena hau da: zegoena: 888.597,98 pta.; gehitua: 11.551.554,09; urritua: 9.585.273,23; dagoena: 2.854.878,84 pta.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du eta emaile diren J. Zaitegi eta L. M. Mujika Euskaltzaindikoez gainera K. Rotaetxe, J. M. Mujika, J. A. Goiriena, C. Urdangarin eta Lea-Artibai=Kresala emaileei eskerrak ematea erabaki da.

J. San Martin idazkaria, Euskalerriko Kontseilu Nagusiaren Kultur Kontseilaritzan Zientzia eta Kultur Elkarteen zuzendari izendatua izan dela aditzera ematen du euskaltzainburuak eta zorionak ematen zaizkio. Eta San Martinek bere aldetik batzordea izendatzea eskatzen du euskararen alderako plangintza bat egiteko. Zenbait elkarrizketa izanda eritziak emanez, elebitasunari buruz. Hasteko, batzorde horretarako, L. M. Mujika, Txillardegi eta X. Kintana proposatzen ditu, ateak irekirik gelditurik beste norbaitek bere burua eskaini nahi baldin badu, eta hurrengo batzarre batetan erabat finkatzeko.

Euskalerriko Kontseilu Nagusiak itzultzaile eskaria egin zion Euskaltzaindiko Zuzendaritzari eta Martin Ugalde buru dela, Xalbador Garmendia eta Ibon Sarasola izendatu dira.

b) GOIZEKO BILKUREN BERRI:

Idazkariak ematen du bilkura hauen berri: Euskaltzain osoen bileran ekonomi kontseilu laguntzailearen asmoez, Euskaltzaindiaren aldeko kanpaina: Etxe berria eta bestelako premia batzuren alde: Biblioteka, Iker lanak, Hiztegiak, Argitalpenak, eta hain beharrezko ditugun zerbitzu eta ekipoak. Kanpaina onartzen da. Batzarre berean kontseilu horren asmo eta Euskaltzaindiaren plangintza aurrera eramateko eta gerra aurreko ohitura bat berbiztuz, urte honen amaierararte L. Mitxelena, Iker Saileko buru, eta J. San Martin, Jagon Saileko buru, izendatzen dira.

Ondoren Matematika hiztegiaren batzordearekin izan duten bileraren berri ere eman du. Hiztegi honen lehen partea gomendio bidez onartzen da. J. M. Zumalabek, batzordeko K. Santamaria idazkariaren ezin etorria adieraziz, zein plangintzaz baliatu diren azaldu du txosten batetan.

Bergarako Biltzarreko Estadistika eta Soziologia batzordearen proposamena, materialen bilketa eta azterketa Siadeco-k egin dezan, aintzinkontua begiratzen da. Datuen bankurako balioko digunez onartzen da.

Herri Izendegi batzordearen J. L. Lizundia idazkariak, Mitxelena jauna buru delarik bildu den batzorde honen bilkuren berri ematen du. Gasteizen egindako bileran aztertu eta onartu ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Udal izenen oharrak. Gaur goizekoan, Iparraldeko euskaltzainekin batera, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdikoek aztertu eta onartu dira. Orain Nafarroakoen oharrak bakarrik gelditzen dira ikusteko.

J. J. Zearretak, Irakaslego batzordearen idazkari bezala goizean izan duten bilkuraren kontu eman du, ukitu dituzten punduak hauk izanik: Hego Euskal Herriko lau ikastolen federakundeek eskaturik, eskolaurrean lanean ari diren irakasle eta andereiñoentzat Euskaltzaindiak Bazko Astez eratu dituen azterketan ondorioak aztertu dira. 400 bat irakasle aurkeztu da eta erabiltzen duten euskara, batez ere ahozkoa, oso aberatsa da. Bestalde, azken azterketetan irakaslegaien kopurua gehituz doala ikusirik, Irakaslego Batzordea ugaritu beharra ikusten da. Hau dela eta Batzordea jaun hauek osatuko dute: E. Knörr, A. Irigoyen, X. Kintana, J. A. Letamendia, X. Mendiguren, P. Uribarren, I. Laspiur, Txillardegi, J. Atxa, P. Zabaleta, P. Xarritton euskaltzain eta laguntzaile, eta J. L. Goikoetxea, J. M. Mujika eta A. Ozamiz Unibertsitateko irakasleek. Batzordeko idazkaria J. J. Zearreta izango da. Hurrengo etsamin egutegia honela erabaki da: Apirilak 8, Donapaleun; Apirilak 22-29; Uztailak 22-29 eta urriak 21-28.

d) EUSKAL KLASIKOEN ARGITALPENAK:

A. Zavala jaunaren txostena. Lan hau nola eraman, plangintza orokor bat agertzen du, bai kultur literaturaz eta bai herri literaturaz.

Zenbait asmo eztabaidatu dira, eta azkenik A. Zavala buru delarik klasikoen lanak argitaratzeko batzorde bat osatzea erabaki da, txosten honen asmoa oso interesgarritzat jo baita.

e) OINHARRIZKO EUSKARAREN BATZORDEAK PRESTATU DUEN METODUAREN LEHEN AURKEZPENA:

I. Berriatua, batzorde buruaren txostenari, J. J. Zearretak sarreratxo bat egiten dio, ondoren egileak irakurriz. Berriatuak *Hitz egin!* metodua eta *Errekalde kaleko burruka* irakurgaia aurkeztu ditu eta horien erabiltzearen xehetasunak adierazi. Juan Luis Goikoetxea batzordekideak eman ditu ikasteko metodu berri honi buruzko adierazpenak.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1978 - IV - 28

Gasteizen, Arabako Foru Diputazioko jauregian, 1978ko Apirilean 28an, eguerdiko hamabi t-erdietan, bildu dira: Diputazioko buru den Ezkerra jauna eta Euskaltzaindiko lehendakaria buru direla, diputatu foralak, J. A. Maturana kultur kontseilaria; J. Haritschelhar, J. M. Barandiaran, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. D. Intza, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martin, J. M. Satrustegui, euskaltzain osoak; O. Apraiz, euskaltzain ohorezkoa; A. Barrueta, X. Garmendia, J. M. Iriondo, J. Insausti, J. L. Lizundia, P. Martín, J. M. Torrealday, P. Uribarren, M. Ugalde, M. Ruiz Urrestarazu, J. J. Zearreta, euskaltzain laguntzaile jaunak, eta Euskal-Herriko erresuma guztietako jendez gela nagusia beterik.

Euskaltzainburua mintzatu da, lehenik euskaraz, erdaraz gero. Arabarrei agurrez, Aita Olabide euskaltzain zena, O. de Apraiz ohorezkoa eta zenbait laguntzaile aipatu ditu. Ez deritza zuzena Araba euskaltzain oso gabe egotea eta A. Arrue zenak utzi zigun hutsartea betetzera dator E. Knörr, beronek egin merituegatik gehienak hala hautatu dutenez. Sarrera hitzaldi hau bukatzeaz, A. Zabala eta J. L. Davant euskaltzainen besotik dator Enrike Knörr batzarkideen gelara, guziak txaloz hartzen dutelarik.

E. Knörr jauna hasi da bere sarrera hitzaldiaz, kunplimenduzko hitz batzun bidez, izendapenaren ohorea eta zama agertuaz, berak hautatua duen gaiari heldu dio: Federiko Belaustegigoitia, arabar euskaltzain laguntzailea, bere bizitza eta lanak adiaraziz eta goraipatuz.

J. M. Satrustegi euskaltzainak egin du ihardespenezko hitzaldia. E. Knörr euskaltzale suharrak hain gazterik eginak dituen lanak eta bere doain kementsua adieraziaz.

Hitzaldiok bukatzeaz, José Antonio Maturana, E. K. N.-ko Kultur Kontseilariak egin ditu hitz batzuk, Kultur Kontseilaritza euskarari eta euskal kulturari laguntza emateko gertu dagoela agertuaz.

Bukatzeko, Kaietako Ezkerro, Foru Diputazioko lehendakariak agurtu ditu batzarkideak, Euskaltzaindiari, euskarari eta ikastolei eta berdin gainerako euskal zentroei laguntzaz lotuko zaiela agertuaz.

Gero, Argomanizko ostatuan, anaiarteko bazkaria.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1978 - V - 26

Bergaran, U.N.E.D.-ko geletan, 1978ko Maiatzaren 26an, arratsaldeko 4-retan, bildu dira: L. Villasante buru eta J. Haritschelhar buru ordezko direla, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martín eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, B. Gandiaga, J. Intxausti, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M. Mujika, J. Oregi, I. Sarasola, J. M. Torrealday, P. Xarriton eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaileak.

Davant, Hiriart-Urruty, Larre, Larzabal, Lojendio eta Ugalde jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko batzar agiria onartu da.

a) HARREMANAK:

Gilen Larrañaga euskaltzain laguntzailearen hil berria eman du euskaltzain buruak.

Olite-Erriberriko udalari eskerrak ematea, Erdi-Aroko liburu baten azalean hebraierazko testu bat, Rikardo Zierbidek aurkituaren kopia bat igorri digulako. Guk geuk, bertatik ateratako beste kopia bat igorri diogu Jerusalem-eko Hebraiaren Akademiara.

"Andima Ibiñagabeitia saria 1978"-ren berri eman da, sariketaren oinarriak zabalduaz.

Bonifazio Etxegaray euskaltzain zenari, bere ehun urte betetzeaz Zumaian maiatzaren 29tik ekainaren 4ra bitartean eratzen dituzten gorazarrezko hitzaldi eta jaialdien berri eman da.

Hartu diren liburuen zerrenda irakurri da. Eta, idazkariak, argitara berri duen *Gogoz* liburuak zabaldu ditu batzarkideen artean.

Ekainaren 3an, Donostian, Karmele Esnal euskaltzaindiko laguntzaile eta anitz urtez ikastoletako andereño denari omenaldia eskainiko zaio, ikastola erakundeen partetik, eta gure zorionak bialtzea erabaki da.

Instituetako euskara arazoaz mintzatu da. Borondatez euskara ikasteko eskubidea datorren ikastarotik kendua izango omen. Puntu hontaz, idazkariak, erregeagana zuzenean joateko asmoa agertzen du, 573/1976-ko otsaileko Dekretoan onhartuaren eta Moncloa-ko erabakien 4. kapituluaren 3garren partearen aurkakoa denez. Bestalde, Mitxelena Gasteizen geldituko bada, han katedrak sortu beharra dago eta, eta bide batez arazo biak eramatea komeni dela. Honegatik, hurrats batzuk emanak dituela Erregearengana heltzeko bideak irekitzeaz.

Arabako Foru Diputazioko Lehendakariei eskerrak ematea erabaki da E. Knörr-en sarrera hitzaldirako eman zigun laguntzagatik.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Goizeko hamaika t'erdietan Euskaltzaindikoez gainera, Sebastian Agirre, J. Martin Elexpuru, Jerardo Elorza, Fernando Etxeberria, Jesus M.ª Larrazabal bildu dira, irailean Bergaran egingo ditugun batzarretarako laguntzaileak direnez.

Euskaltzainburuak irailean egiteko gareen Bergarako Biltzarraren xedeak agertu ditu: Luis Elizalderen omenez eta euskara idatziaren batasuna gai hartuz, Arantzazun 1968an eta geroztik eman diren batasun arauak aztertzeaz eta birrikusteaz, ortografia hauziak bereziki, eta azkenik batzarrerako deian gomiteak egiteaz.

Ondotik, antolakizun batzordearen azalpenak egin ditu, bertako idazkari izendatu zen J. L. Lizundiak.

Soziologia eta Estadistika batzordearenak, bertako idazkari den Joseba Intxaustik.

Hizkuntza batzordearena J. A. Letamendiak, zenbait txostenen berri emanaz: X. Kintanak; idaztarauak; L. M. Mujika fonemaz; Mikel Zaratek, bizkaieratik batura, eta I. Sarasolak...

Biltzarrerako presupuestoaz hitz egin du J. J. Zearretak.

Eta, azkenik, zenbait elkarrizketaren ondoren, Biltzarreko oinarrizko erregelak onhartu dira.

d) ZULOAGAREN MARRAZKIAZ:

J. San Martinek argitasunezko adierazpenak agertu ditu. Marrazkia Euskaltzaindiko bulegoan ikatzez eta esku onez egina eta Zuloagaren sinaduraz zegoela. Baina, ez zela Inazio Zuloaga berberak izenpetua eta zalantzetatik irteteko egin zuen azterketaz argitu ahal izan duela "Doña Purita" deitu erretratuaren marrazkia dela.

A. Irigoyenek beste zenbait argitasun eman ditu. Marrazki hori berberak aurkitu zuela R. M. Azkue zenaren paperen artean eta markuan sarturik jarri zuela.

e) IRAKURTZEN ARI NAIZEN AZKEN POESIAZ:

B. Gandiagaren txostena. Bere poesigintzan eta batez ere *"Uda batez Madrilen* idazterakoan, zenbait gauzatan aurkitu izan duen hitz egokien faltaz mintzatu da, gai batzutarako euskarak duen ahulezia agertuz. Bere agerpen poetikoan, *Natur Zientziak* liburua eta teknologiako zenbait lan goraipatzen ditu, gure hizkuntzari ahalmena ematera datozenez.

f) EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURAREN LEKUKOAK:

L. Mitxelenaren txostena. Hasteko, ez deritzo ondo gure artean inoiz erabili izan den "Euskal klasikoen" izena, eta hobeto iruditzen zaio lekukoak, euskara eta euskal literaturaren lekukoak, klasiko deitzekorik urri dugunez eta beste obra zahar batzuk baliatu beharrez. Ondorean, zenbait eritzi agertu ditu obra zaharrak berriz argitaratzeaz, zer argitara, nola eta nork, puntuz puntu adieraziaz.

J. M. Satrustegik, "Principe de Viana" Mintegiaren bidez Lizarragaren textoak argitaratzeko Nafarroan duten aukera agertzen du.

Mugalde argitaldarikoek dituzten asmoen berri eman da, zenbait argitalpen salgai jartzeaz, eskuartean beharrezko direnak eta lehenagoko argitalpenen bat dagoenez edo inoiz oraingo grafiaz jarriaz, aukeraren arabera.

Euskaltzaindiak, bere aldetik egin beharrezko duenerako, batzorde bat izendatzea erabaki da, jaun hauek osatzen dutelarik: L. Mitxelena, P. Lafitte, L. Villasante, J. M. Satrustegi, L. Akesolo, N. Alzola eta Jean Haritschelhar.

g) NORBERT TAUER EUSKALTZAIN OHOREZKOAREN AGURRA:

Idazkariak, iragan astean Pragan izan zenez, Norbert Tauer Euskaltzain ohorezkoaren agurra dakar, Euskaltzaindiko guztiei goraintziak eskainiz eta *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia* Hezkuntza Ministeriak argitaratuagatik eskerrik beroenak agertzea agindu ziola. Tauer jaunak ekainaren 6an beteko ditu 80 urte eta guztion zorionak merezi dituenez, bakoitzak bere aldetik idazteko, haren helbidea erakutsi da: Norbert Tauer. Vinohradská, 126. *CS-13000 PRAGA-3* (Tchécoslovaquie).

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1978 - VI - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978ko Ekainaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martín eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J. A. Etxebarria, X. Gereño, J. A. Letamendia, X. Mendiguren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dela.

Diharce, Hiriart-Urruty eta Larzabal jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko eta maiatzeko batzar agiriak onartu dira.

a) HARREMANAK:

Editorial Marín, S. A. argitaletxeko gutuna irakurri da, beren asmoetako liburu batzuk euskaratzeko itzultzaileen izenak eskatzen dituena.

Liburuzain jaunak hartu diren liburuen zerrenda irakurri du eta emaileei eskerrak agertzea erabaki da.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Igazko bigarren alea aurkeztu da (EUSKERA, XXII, 1977, uztailetik abendura). Aurrerantzean atzerapenik ez izateko, aldizkariari buruzkoan, lanen egileak inprimategian parterik ez hartzea erabaki da.

Urrengo zenbakirako lanak: Eusko Kontseilu Nagusiak Euskaltzaindia onartzez igorri duen agiria. E. Knörr jaunaren sarrerako hitzaldia eta J. M. Satrustegi jaunaren ihardespena. A. Ezkurdia eta J. Garate jaunen lanak. Batzar txostenak eta beste zenbait gai labur: Udalen izendegia, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrez, VIII. Biltzarreko barne erregelak; berriak, hil berriak eta liburuak.

Euskaltzaindiak hartu duen idazkiaz zenbait ohar, eta Bergararako txostena eskatzea.

d) IRAKASLEGO BATZORDEAREN AZPIEGITURAZ:

Xabier Mendigurenen txostena. Irakasle titulurako mailak hobeto jartzeaz mintzatu da. Uztailaren 22an Donostian, 27an Iruinean eta abuztuaren 2an Eibarren etsaminak egingo direla, aditzera ematen du. Titulu

eta etsaminen historia agertzen du, orain arte titulua hartu dutenak 1.700 inguru direla D mailan eta 95 B mailan. Orainarteko ekintza aztertzen du, zer onuragarri eta zer'huts izan diren adiaraziaz, eta datozen urteei begira, hobekuntzak nola finkatu behar direnaren eritziak agerrerazten ditu. Baita ere, Unibertsitateko letra sailean euskara irakaskintza jartzeaz, hemendik hiru urteren buruan irakasle berriak atereaz joateko.

Gorago aipaturiko asmo eta eginkizunak aurrera eramateko Irakaslego Batzorde barnean azpibatzorde eragile bat izendatzen da: E. Knörr, X. Mendiguren eta J. J. Zearreta.

e) E.K.N.KO KULTUR KONTSEILARITZAK EUSKALTZAINDIARI ESKATZEN DION EUSKARAREKIKO PLANGINTZAZ:

J. San Martinen txostena. Zortzi puntutan agertu ditu, euskara, egunoroko hizkuntza normal bat bihurtzeko aurkitzen diren premiarik larrienak. Irakaslegintza eta E.G.B.ko eskoletan jartzeaz aparte, hauek Hezkuntza Kontseilaritzak bideratu beharrezkotzat joaz, Alfabetatze eta Euskalduntze lanak, herriz herri, nahiz irratiz edo telebistaz. Horrez gainera, irratsaio eta gainerako programak, bai irratiz eta bai telebistaz, egunetik egunera gehituaz, aldizkari, liburugintza eta abar, gai bakoitzak eskatzen duen plangintza eta langintza markatuaz.

f) "BAI EUSKARARI" KANPAINARI BURUZ:

X. Gereño jaunaren txostena. Kanpainaren kontua emanaz eta ondoko antolamendurako batzorde finantziar eta batzorde linguistikoaren beharra agertuaz. Lehen batzordea kanpaina eratzen ibili direnekin eta Euskaltzaindikoekin osatzeko, eta bigarren Euskaltzaindiaren barruan. Hauen zergatia adiaraziaz.

Hortan parte hartu dutenekin batzar orokor batean gai hau aztertzea erabaki da.

g) EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURAREN LEKUKOAK:

Aurreko batzarretan erabilia den gai hontaz, Euskaltzaindiaren agiria irakurri du euskaltzainburuak, horren antolaketan finkatuaz.

Bestalde, magnetofoizko bilketak bizkortzeko, kaseten sariak gehituz hizkuntza bizia jasotzeko, publizitate etxe baten bidez zabalkunde handiagoa egiteaz hitz egin da.

h) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

J. San Martinek euskaltzainei aditzera emanez, txostentxo bat irakurri du, Konstituzio berriaren asmoetan euskarárentzat hain begirapen guti agertzeaz, eta hizkuntzaren eskubideak azpimarkatu ditu.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

BESTE GAI BATZU

IRAKASLEGO BATZORDEA: ORAIN ARTEKO URRATSAK ETA ETORKIZUN HURBILEKO EGINBEHARRAK

Donostia, 1978 - VI - 30

Xabier Mendiguren

1972. urtean eratu zen "Irakaslego Batzordea", euskararen irakaskuntz alorretik Euskaltzaindiari zetorkion eskariari erantzuten hasteko eta euskal irakaslegoa prestatze lanari norabide eta garantia eskaintzeko.

Xifrei bagagozkie, behintzat, harez gero burutu den lana garrantzi handikoa izan denik ezin uka. Dozenerdi urteotan, 3.500 pertsona inguru aurkeztu dira Euskaltzaindiak antolaturiko azterketetara eta berauetarik 1.700 batek lortu "D" maila izeneko agiria eta 95ek, berriz, "B" maila deitua.

Irakaslego Batzorde honek, bere zerbitzuak eskaini dituneneko sei urteotan, aurrerantzako urrats nabarmenik ere eman du, edota ematen ahalegindu da, behinik behin, aldian aldiko giro eta eskabideetara moldatzen saiatuz.

Behin-behineko programakuntza bat eskaintzetik hasi zen Batzordea eta beronen arabera aipaturiko "D" eta "B" mailetako azterketetarako deiak egiten. Ikaslegoa azterketa hauetarako prestatzeaz arduratzen ziren irakasleen eritzi eta gomendioak entzunik, eta Azterketa berauetako esperientziak jaso ondoren, lehen programakuntza hura zehaztu beharraz, eta azterketa bera burutzeko modua eta ebaluapen sistema ere objektiboago batez zertzearen komenientziaz jabetu zen Batzordea; eta zenbait bileraren ondorioz, programakuntza berrikusi eta zerbait zehaztu ezezik, azterketa bera ere modu objektiboago batez ebaluatu ahal izateko erara moldatu zuen. Jendearen eritziari bagagozkio, aurrera pauso hauek guztiz positiboak izan direla aitortu beharrean gaude.

Bestalde, berriz, haserako azterketak antolatzean

nabarmendu ziren zailtasun eta huts teknikoak gainditu eta konponduz joan da Batzordea, eta azken aldiotako azterketen antolamenduak maila aski onargarria lortu duelakoan gaude, epai mahaikoen kopurua ugaldu denez gero eta kalifikapenen berri ematea lehen baino askozaz bizkorrago egitea posible delarik orain.

TITULUEN HOMOLOGAPENARI BURUZ

Puntu hau bi ikuspegi desberdinetatik uki daitekeenez: hots, tituluen balio ofizialarenetik eta beraiek garantizatzen duten edukiarenetik, oraingo hontan ni bigarren alderdiari lotuko natzaiola jakinerazi nahi dut aurretiaz.

Lehen aipaturiko programakuntz berrikusketan ari ginela, eta edukiak zehazterakoan, hain zuzen, berehala ohartu ginen euskararen irakaskuntzak gero eta profesionaltasun maila hobea lortu nahi baldin bazuen, haseran larriki aipatzen ziren helburu edo edukiak zehaztea ezezik, "titulu" horien nolabaiteko homologapen batetan pentsatzea ere beharrezkoa zela. Horretarako, nerau arduratu nintzen hizkuntza modernoen irakaskuntza nazioartekoan jadanik aski finkaturik dauden mailen edukiak aztertzeaz eta ordura arte "D" mailako irakasle titulutzat hartzen genuen hartaz zer ulertu behar zen argitzeaz.

Batzordearen eritziz, lehen azterketa maila hau gainditzeak "irakasle titulu" baten jabe izateko nolabaiteko eskubidea ematea lekuz kanpoko bezala ikusten zen, zeren eta maila hontan eskatzen ziren ezagerpen eta trebetasunen maila kontutan harturik, gehienez ere hizkuntzaren ezagupen orokor egoki samar bat garantiza baitzezakeen, hortarako agiri edo diploma sail bat aski izaki, baina inola ere ez irakasle titulurik, euskara mintzatuari eta beronen didaktikari ia inolako garrantzirik ematen ez zitzaielarik. Beraz, orain arteko "D" eta "B" mailako titulu izenekoak birmoldatu beharra ikusi da, nola izendapen edo homologapen balioaren aldetik, hala programako edukienetik ere. Asmo honekin, zenbait bilera eginak ditu Batzordeak baina azken tilabeteotako eginbeharren ugaritasunagatik eta batzordekide bakoitzak eskain diezaiokegun denbora urritasunagatik, gauzak airean daudela eta ondorio eginetara ez garela iritsi aitortu beharrean gaude.

PLANGINTZA BERRIAREN AURREAN

Plangintza Berri honek bizpahiru arazori hondotik heltzea eta erabakiak hartzea eskatzen du:

a) Plan Zaharraren arabera "tituluak" atera dituztenen egoera birpentsatzea.

b) Bi maila hauen izendapenaketa edukiak berrikusi eta birmoldatzea.

c) Agian, zenbait erakunderen jokabidea ikusirik, beste aurre maila batzuk finkatzea (Hasera maila-Oinharrizko maila). Hortarako "Modern Language Teaching Association" delakoak finkaturik dituen pareko maila batzu programatzeari heldu beharko genioke, behar bada.

Oraindainokoan "D" maila izan dena, ingelesezko *"Proficiency Knowledge"* (Advanced level) delekoaren ezagupen eta trebetasun mailakoa izango litzateke eta agiri edo diploma batek egiaztatuko luke hizkuntz menderatze hori.

"B" tituluaren izenpean lortu nahi dena, birmoldaketa baten ondoren, egiazko "irakasle titulu" bihur liteke, baina hortarako espezializapen mailako ezagupen eta trebetasunak garantizatu beharko lituzke: hots, hizkuntza mintzatua eta literarioa ez ezik, berau irakasteko beharrezkoa den didaktikazko prestakuntza egokia.

Gaur ez gaude orain dela 6 urtetako egoeran, eta orduan haserako politika bezala onhar zitekeena, honez gero zehaztu eta areagotu beharrean gaude euskararen irakaskuntz maila hobetu nahi baldin badugu, eta errazegi banaturiko tituluen ugaritasunak berauen indarra ahultzerik nahi ez badugu.

Agian, maila hontan, Euskaltzaindiak "itzultzaile" agiri edo diploma bat sortzean ere pentsatu beharko luke, euskaratze lanetan dihardutenen garrantzia kontutan izanik, eta gero eta itzultzaile eskabide handiagoa izango dela ahaztu gabe. Arazo honek ere erantzun bat behar duelakoan nago.

DATOZEN URTEEI BEGIRA

Ikusi dugunez, Irakaslego Batzorde honen zereginak biziki ugalduz joan dira azken urteotan, eta oraindainokoan partaide bakoitzak eskuharki eskaini ahal izan diogun baino dedikapen eta denbora gehiago eskatzen dute zenbait zeregi-

nek premien eskari erritmoari jarraiki nahi izanez gero. Hontaz ez jabetzeak gauzak erdizka egitea eta sarritan premien atzetik ibiltzea esan nahi du, eta ondorioz, jendeak Euskaltzaindiagandik espero lezakeenari uko egitea.

Nire egitekoa ez bada ere dedikapen modu horren zenbatekoa erabakitzea eta finkatzea, gutxienez premia hori argi eta garbi adierazi nahi dut, eta hortarako beharrezko diren pertsona eta finantziar bitartekoak eta ahalbideak aurrikustea eta antolatzea datorren ikasturtea hasi baino lehen burutzeari derriorrezko deritzat. Argiago esan, pertsonaren baten edo batzuren eguneroko dedikapen iraunkorra beharrezko dela uste dut.

Hona hemen, labur esanik, Irakaslego Batzorde honi gainera datozkion egiteko batzuren aipamena edo zerrenda:

a) Diploma eta Tituluen izendapen eta edukiak zehaztu eta erabaki.

b) Berauen homologapenari eta balio ofizialari buruzko xehetasunak gestionatu.

c) Maila desberdinei dagozkien programakuntza zehatzak burutu eta zabaldu.

d) Azterketa hauei begira prestatzen diren ikasturte eta ikastaldiak koordinatu, gainbegiratu eta babestu.

e) Aipaturiko programakuntzak behar bezala interpretatuak izan daitezen, apunte edo textu batzu eragin eta koordinatu.

f) Eusko Kontseilu Orokorreko Hezkunde eta Kulturako Kontseilaritza, ICE, Euskalduntze-Alfabetatze Koordinakundea, Ikastoletako Elkarte eta Konfederakuntza eta antzeko beste erakunde guztiekin lankidetzan, irakaslegoa prestatzeko projektu bateratu eta koordinatu bat aurrera eraman, Euskaltzaindiari dagokion neurrian gidatuz eta babestuz.

g) Euskaltzaindiak bere gain hartu duen "Euskaraz hitz egin" metodoa eta irakurgai mailakatuak aurkeztu, esperimentatu, zabaldu, etab.

h) Gai honi buruzko informazioa bildu eta eskaini; eta halaber, asesorakuntza zerbitzu bat muntatu, pertsona banakoei eta erakundeei begira.

i) Azkenik, orain arte bezala, garai eta toki egokietan azterketak antolatu eta burutu.

Inolako asmo agertzailerik gabe aipatu ditudan puntu hauen inguruan, beste batzu gehiago ere ba daude, eta etengabe sortuko dira.

Nik uste, esanak aski direla Batzorde honen eginbehar ugari eta neketsuaz Euskaltzaindia jaberarazteko eta nahitaezko dituen indar eta baliakizunak kanalizatzen hasteak duen garrantzia azpimarkatzeko. "Bai Euskarari" kanpainaren ondorioz, herriaren laguntza aurrez jaso bada, era berean areagotu da euskara ikasi nahiz eta eskabidea ere, uda hontarako antolatu diren ikastaldien arrakasta eta gainezkatzea lekuko. Guri, Euskaltzaindiari, eta bereziki Irakasle Batzorde honi dagokio, eskariaren araberako erantzuna ematen ahalegintzea eta esperantzak galtzen ez uztea.

EUSKAL-HERRIKO KONTSEILU NAGUSIARI EUSKARAREN ALDEKO PLANGINTZA BATEN PROPOSAMENA

Donostia, 1978 - II - 24

J. San Martin

Urtarrilaren 29an, Ernanin izan genuen batzarrean, Euskal-Herriko Kontseilu Nagusiaren lehendakaria euskalduna jartzearen aldeko eskaria Euskaltzaindiak publikoki agertzea eskatu zuten L. M. Mujika, J. L. Alvarez eta X. Kintana jaunek. Eta eztabaidarik izan genuen hortaz. Orduan, han garai berean agertu nituen zenbait arrazoigatik, mahaian utzi zen arazoa, erabakirik gabe.

Gogoz, erabat nentorren L. M. Mujika, J. L. Alvarez, X. Kintana eta hoien alde agertu zirenekin; baina, han agertu nuen bezala, arazoa politikoa izateaz aparte, lehendakari irtengo zena irtetzen zelarik, hobe genuela modurik onenean euskararen aldeko plangintza baten proposamena egin. Honegatik, gaur, asmo honek nakar txosten labur hau aurkeztera. Baina, lehen lehenik, batzarraren aurrean pundu batzuk argi uztea nahi nuke, nere ukapena zer iritzitan oinarritzen zen jakin dezazuen:

a) Ez Lizarrako Autonomi Arautegian eta ez gerokoetan, ez zen agertzen lehendakaria euskalduna izatea beharrezkoa zenik, eta gure aldetik holako gauza bat eskatzea, legezkoa ez izatetik aparte, alperrikako haserreak eta iskanbilak sortzea zen. Moral aldetik euskalduna behar zen, baina hori politikoak eurak erabaki behar zuten.

b) Gure eskariak zerbait lagunduko zion kandidatu euskaldunari, baina trukean bestearen aurka jartzea zen. Ez zen hori bakarrik: Euskal-Herrian lautik batekorik ez gara euskaldunak, eta gure eskarizko agerpen hori gehienak holako karguetarako kondenatuko genituzken, eta hori arriskugarria iduritzen zitzaidan, era hortako deklarazio batek euska-

rarentzako adiskideak baino etsaiak gehiago sortuko zituenez. Eta Euskal-Herrian euskara garaituko bada, euskararik ez dakiten horiek gureganatu beharra dugu. Gizon bakoitza bere inguruak egina da, eta euskaldun ez direnek ez dute berengan errurik. Horiek konkistatzen lan egin dezagun, baina inoiz ere gugandik uxatzen.

c) Bestalde, herriak hortarako hautatutako parlamentariei eskua hartzea zen, geu politika arazoan nahasturik.

d) Eta, gure agerpena gora-behera, erdalduna irtengo bazen, nola ausartuko ginen gure hizkuntzaren alderako plangintza baten eskaria egitera? Eta, euskarak, azken baten, luzarora begirako plangintza bat martxan jartzea du salbamenerako bide bakarra.

e) Otoi: Autonomi Arautegiaren arabera, inoiz ez baita eskatu karguetarako nahi ta nahiezkoa euskalduna izatea; bai ordea, funtzionarioa izateko preferentzia. Guk, izatekotan ere, honi eutsi behar diogu. Gure Liburu zuriaren 5. zatian ikus daitezke Autonomi arauak.

Gure artean esan beharrik ere ez dugu Euskal-Herria, izen beretik hasita, hizkuntzak bereizten duela beste herriengandik. Baina, zoritxarrez, bestek eratutako hezkuntzapean igaro dira zenbait gizaldi, eta, orain, hezkuntzaren aukerako politika baten bidez lortu beharko dugu Euskal-Herriko semeak bere nortasun jatorrarekin jabetuko badira. Bide luzea izango da, baina gaurkoz ez dugu besterik. Etsipenik gabe bide luze horri oratu beharra eta ekin eta jarrai.

Euskara hilzorian dugu eta, aurrera aterako bada, geroari begira oso pragmatikoak izan behar gara. Autonomia Arautegiak euskarari buruz zer esaten duen ikusi eta egungo egoeratik bideak urratzen hasi. Azken batean, gure herriaren egoera ikusirik, lehendakaria euskalduna izan edo ez izan, sinbolismo hutsa besterik ez da. Euskararen geroa da axola zaiguna eta etorkizunari begira lana egin beharra dugu, eta honetarako Lehendakariaren gogoa irabazi behar dugu. Behar bezala plangintza batean laguntza ematera bultzatuaz. Orduan ikusiko da gizona. Laguntzarik ematen badigu txalotuko dugu, baina ematen ez bada herriaren aurrean salatu.

Ernanin bertan A. Pascual Iturriagari buruz egin nuen hitzaldian, aspaldiko maisu haren hitz batzuk nere egin nituen, eta hitz hoiek gaur berriz gogoratu nahi ditut hemen.

Hau da: "Berotasunak eta errabiak ez dute beiñere gauza iraunkorrik egiten".

Honegatik, berriz ere esango dut, etorkizuna dela axola zaiguna. Eta honetarako plangintza sakon bat eratu beharra dugu. Lehen Madrid-eko Gobernuari eskariak egiten ibili baginen, oraingoan arrazoi gehiagoz eta indartsuago eskatu behar diogu Euskal-Herriko Kontseilu Nagusiari.

Gaur egun, behar bezalako plangintza serio baten aurrean ez lehendakariak eta ez kontseilariak ez dute ezetza ematerik.

Behar bada, lehenbizi, plangintza orokorraren eskema aurkeztu beharko dugu, onartzen dutelarik lanak aurrera eramateko laguntza eman dezaten, eta zenbait gizon, beste gabe, hortaz aritu beharko dira. Lehenengo plangintza hori bideratzen eta gero aurrera eramaten.

Hau burutzeko oinarri batzuk markatu beharko dira. Esate baterako:

1. Lehen lehenik batzorde bat izendatu beharra dago. Ikastola, Alfabetatze, Magisterio eskolako irakasle, eusal kultur munduan euskararekin arduratzen direnak eta batez ere Siadeco-koren bat tarteko dela.
2. Lehenbait lehen plangintzaren eskema osatu: Maisugintza, irakaskintza, Alfabetatze, komunikabide, aministralgoa eta abar, bakoitzean diren premiak edo beharrak zer diren eta zelan bideratu behar diren agertuaz. Siadeco-k osatu digun soziolinguistiko lanak badu materialik aski plangintza hau laster gertatzeko.
3. Premia guziak beharrezko izango direnez, bi mailatan banatu beharko ditugu plangintzok. Epe laburrera begira, beharrezko izango zaigu 5 edo 10 urterakoa; edo luzeagora begira, 20 urteko epean, bostetik bostera begiratuko dena. Berrikuste hoietan begiratuko litzateke ekintzarekin sortzen diren hutsak zuzentzea, hobetuz eta bizkortuz. Puntu honetan, batez ere eskolak ditut gogoan. Euskara salbatuko bada, Euskal-Herriko gazteriaren erdia hogei urteren buruan euskalduntzera heldu behar gara.
4. Era berean, euskararen ofizialkidetasuna zelan eta nondik nora behar den. Geografia guziari ezin diogu

eman tratu berdina eta mugatzea nola eramango den ondo estudiatu beharra dago.

Esan bezala, plangintza guzi hau geroari begira jarri behar dugu. Orain da une egokia. Eta gure ardura nagusia hezkuntzan jarri behar dugu. Behar bada gogortxoa irudituko zaizue, baina euskaldun eskoletan gaztelera ikastera behartuak dauden bezala, erdarazkoetan euskaraz ere ikastera behaturik jarriaz, elebitasuna gordetzen den herrietan behinik pehin; eta, gainerako erresuma guzian asignaturatzat jarriaz, inglesa edo frantsesa irakasten den era berean. Gizarte berean biziko direnentzat beharrezkoa baita.

Euskarari buruzko liburu zurian 4 eta 5. zatietan material ederra aurkituko dugu plangintza honen lagungarri. Bizkor egin dezakeguna da, eta ez dugu denbora galtzerik, orain da momenturik aukerakoena.

E.K.N.-KO KULTUR KONTSEILUAK EUSKALTZAINDIARI ESKATZEN DION EUSKARAREKIKO PLANGINTZAZ

Donostia, 1978 - VI - 30

J. San Martin

1. Hizkuntzaren idazkerazko normatiba markatzea Euskaltzaindiari dagokio, bere arautegiaren lehen artikuluak dakarrenez. Hizkuntzaren eskubideak eta honen ikerketa ditu elkarte honek bete beharrezkoak.
2. Irakasle prestaerarako lanak, ikastetxeetan nola antolatu, Unibertsitate, Magisterio eskola, eta gainerako zenbait ikastetxetan. Irakasleak gertatu ez ezik titulua ematea ere bai. Oraingoz, Euskaltzaindiak du euskara irakasle tituluak emateko eskubidea, 573/1976 otsaileko dekretoaren arabera, eta hasteko hontaz baliatu beharra dugu. Maisuak gertatzeko plangintza on bat martxan jartzen ez badugu, ez dugu eskoletan euskara aurrera eramaterik.

   Gai hau Hezkuntza Kontseilaritzari dagokio eta honekin harremanean edo honen agindupean bete beharko da.

   Goi mailako irakaskuntzan zenbait ikasketan euskararen irakaskintza azpimarkatu beharko dugu. Adibidez, Magisterio, Filosofia eta Letrak, Kazetaritza..., holakoetan agertu beharko da euskararen premia larria hizkuntzaren alorrean, aurrera egingo badugu.
3. Euskara hezkuntzan nola sartu eta erabili. Hemen plangintza orokor eta zehatz bat burutu beharra dugu, haurtzaindegitik hasi eta unibertsitate mailaraino. Baina, epe laburrera begira E. G. B. mailan, haur euskaldunei euskararen bidez ikastaroak, gutienez 6. urtera arte eta 7 eta 8.a erdara-euskara erabiliaz, erdara ere ondo ikas dezaten. Haur erdaldunei ordea, alderantziz egin beharko da Euskalerri

guzian, zortzigarren urterako euskara ikas dezaten. Edo, gutienez ere, euskara asignaturatzat jarriko da haur erdaldunen artean, baina hizkuntzarekin batera honen literatura eta kultur ingurua irakatsiaz.

Gai hau Karlos Santamariari dagokio, Hezkuntza Kontseilaria den aldetik. Baina, plangintza era orokorrez begiratu beharra dugu, sail bakoitzaren gainetik gainegiturazko koordinaketa baten beharrez.

4. Alfabetatze eta Euskalduntze lanak. Hemen: alde batetik, kanpainak aurrera eramateko propagandaren plangintza; eta, bestetik, Euskal Herriko Udalei laguntza eskeak; diruz eta tokizko laguntzak.

   Alfabetatzeak, eskoletan euskaraz irakatsi ez zioten adinekoei irakurtzen eta idazten ikas dezaten. Eta, euskalduntzeak, euskararik ez dakiten adinekoei euskaraz erakusteko. Bi sail hoiek, beren borondatez ikasi nahi dutenei aukerak jartzeko eran antolatu behar dira eta honegatik dute propaganda berezi baten premia. Adinekoak gogoz irabazteko, euskararen premietara mentalizatzeko, beharrezkoa izango zaigu publizitate etxeen harremanez eramatea.

5. Euskara irrati eta telebistan. Irratia eta telebista euskaldun sukaldeetan sartua dagoenez, hoietan euskararentzat toki gehiagoren eskubidea eta beharra dugu, euskarazko programak, berri emateak aparte, Euskalduntze kanpainak, bere toki berezi bat behar dute.

   Baina, saioen eta berri emateen programaketan tarteka marteka behar luke euskaraz emateak; gure hizkuntzaren presentzia une guztietan ager dadin, honek beronekin mentalizatzea dakarrenez.

6. Euskara egunkari eta aldizkarietan. Irrati eta telebistan bezala, euskarak bere tokia behar du Euskal Herriko egunkari eta aldizkarietan, Deia eta Egin markatzen ari diren bidetik. Horregatik, kazetari eskoletan euskararen irakaskuntzak, euskalduntzeak, beharrezkoak ditugu.

   Gai hauek Kultur Kontseilaritzari dagozkio eta oraingoz gure jagon sailetik bideratu beharko ditugu.

7. Zenbait kargutan ere euskara jakitea beharrezkotzat har dezagun, gutienez premia berdinetan edo titulu berdinekin euskaldunak aukera hobea izan dezaten. Funtzionari bezala, herrietako karguetarako euskaraz dakienari punturen bat gehiago jarriaz, eta, inoiz, informazioko gelan, telefono arduradun, idazkaritzan, liburuzain, artxibuzain, eta abar, euskaldunak hautatzea nola bideratu.

   Parte hau ordea, gehien bat, Barne Kontseilaritzari dagokio, baina hizkuntzaren politika bere era orokorrez begiratzeaz, hau ere kontuan hartu beharrezkoa dugu sail bakoitzari berea eskaintzeko.

8. Euskerazko liburuen plangintzak. Laguntza estudiatu eta nola bideratu, arrazoizko preferentzia batzuk jarriaz.

   Diru laguntzak, inpuestoak kentzeaz, argitalpenak gehitzeaz, zabalkundezko propagandaz eta abar.

Orain, Autonomiaren aurrean gertatzen dugunak gerorako ateak zabaltzeko edo geroa bera euskararen alde behartzeko, garai egokia dugu. Gai bakoitzak tratamendu berezi bat eskatzen du, eta gaiak haina batzorde egingo ez badira ere, gai batzuk batean eroan ezinezkoak ez direnez, batzordeak izendatu beharra dugu, eta sail bakoitza bizkor eta ondo eramango baldin bada, batzorde bakoitzak bere arduraduna behar du. Eta denen gainetik plangintza guztiaren koordinaketaz eta ekintzaz arduratuko den bat, behar bada langintza hontarako liberatua. Honek, Karlos Santamaria eta nerekin harremanak izango lituzke eta geroan ere, plangintza bera eurrera eramateko arduradunetako bat izango litzateke.

Plangintza egitetik martxan jartzera lan luzea burutu behar dugu, politikoak bultzaraztetik ekintzetara eroateko. Ondotik, ekintza berak ere zaintzaile ardura emango digu. Asmoak legeratzen baditugu ere, legeak betetzea ere zaindu beharrezkoa zaigu. Baina, ezer baino lehen, berriz ere errepikatu beharra dut, politikaren bidegurutze hontan historiak une egokia eskaintzen digula gure hizkuntzari buruzkoan zirt edo zart egiteko eta bizkor ibili beharra dugula egungo aukera aprobetxatzeko.

Besterik ez.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKAL UDALEN IZENDEGIAREN PROPOSAMENA AURKEZTEAN

Hernaniko Udaletxea, 1978 - I - 29

J. L. Lizundia,
Batzorde idazkaria

Aspaldidanik senti izan du Euskaltzaindiak herri eta herritarren izenak zeharo aztertzeko eta finkatzeko premia. Zinez esan daiteke, batere gehiegikeriarik gabe, Euskaltzaindia haste-hastetik kezkatu zela egiteko honetaz.

Euskaltzaindiarena, eta hainbat euskaltzalerena, izan den interes hau, orain interes *ofiziala* da. Erakunde ofizialak Udal eta Diputazio, alderdi politiko, eta hil honetan bertan RENFE bera ere etorri zaigu euskal izen jatorrak galdetuz.

Berehala, luza gabe, erantzun beharra dugu, beraz. Eta horregatik Euskaltzaindiak bere gain hartu zuen zeregin hau, horretarako propioki batzordea sortuaz.

Batzordeak plangintza oso bat moldatu zuen, eta herrialde bakoitzetik, zenbait eskualde onartu ere. Ikus "EUSKERA" 1976. Baina hor herriak, herrixkak eta hauzoak ageri dira. Luze joko lukelako, batzordeak plan hori zeharo baztertu gabe, udalei soilik lotu da. Horiek bakarrik, 651 baitira Euskal Herrian, enklabeetako hirurak kontatu gabe (Trebiñoko biak eta Billaberde-Turtzioz).

Gainera badirudi udalen sasoia gain gainean dugula, autonomia, Foru Kontseilu, Batzarre Orokorrak eta udal hauteskundeak direla medio. Prest izan behar dugu, beraz, euskal udalen izendegia. Bestela, oraingo nahaspila bera nagusituko da bazter guztietan: udaletan bertan, Kontseilu eta Batzarre horietan, alderdien ormadeitan, eta azken baten, giza komunikabideen poderioz, herrian bertan.

LANERAKO ITURRIAK

Izendegigintzarako dauden iturrietan, hor daude, besteak beste, Orixeren lanak "EUSKERA"n bertan franko goiz agertuak. Azken berrogei urteotan premia larriagotzen ari zela, zerrenda batzuk egin dira, Euskal Herri guztirako nahiz haren zati batetarako: Arabako herriei buruz dokumentazio aberats aberatsa, osoa eta erabatekoa eman digu Gerardo López de Guereñu-k: "Pueblos Alaveses", "Boletín de la Institución Sancho el Sabio" aldizkarian, XIII (1969), 19 s.s. Mugazhandiko herri eta herritarren izendegia egin zuen L. Dassance euskaltzain oraintsu zenduak: L. Dassance, "Herrien eta herritarren izenak eskuaraz", Editions "Gure Herria". Mitxelena, Irigarai, Jon Etxaide, Larresoro, Estornestarrak, San Martin, Irigoyen, eta abarrek, lan franko egin dute sail honetan.

Lagungarri izan zaigu gainerako bibliografia, batez ere testu zaharretakoa, esaterako Corona Baratech, Obieto, García Larragueta, Lakarra, Salazar y Castro, Carrasco Pérez, *Diccionario Histórico Geográfico*, Raymond, Lope García de Salazar, Landazuri, Labairu, Iturriza, Gorosabel, Murga-Mugartegi, etab.

Aintzinako izenei kontu handia izan diegu, baita euskal literaturakoei, eta sortu berriei ere: Sukarrieta, adibide bat jartzekotan. Neologismo eta itzulpenak, berreuskalduntze eragin batek bultzatuak, kontutan izan ditugu, edo gu geuk plazaratu, baina beti ere izarño batekin horrelakoak direla adieraziaz, eta gero herriak esan beza azken hitza.

Euskaltzainburuak 1972ko "EUSKERA"n hau zioen: "Denek aho batez aitortzen dute zer nolako nahaspila den gure artean. Euskal aldizkariak eskutan hartu besterik ez dago, hori ikusteko. Gure herrien izenak euskeraz nola diren askotan ez dakigu, zehatz behintzat. Batek esango dizu *Oñate*, besteak *Oñati*, besteak *Oinati*. Batak *Bilbo*, besteak *Bilbao*. Batak *Galdakano*, besteak *Galdakao*, besteak *Galdako*, ta abar. Herritarren izenaz (hots, gentilizioaz) berdin gertatzen zaigu. Nola esan behar da: *abadiñarra*, ala *abadiñotarra*?; *durangotarra* ala *durangarra*? Xehetasun hauek herrian bertan edo herri hartatik gertu xamar bizi direnak jakiten dituzte, baina urrutikoek ez. Nolanahi ere, "Nomenclator Oficial" baten beharrean gara, eta hori, inork egitekotan, Euskaltzain-

diak behar du egin..." "Ez naiz ni hemen hasiko sail berezi honek dauzkan zailtasun, katramila eta problematika berezia azaltzen. Baina zerbait esan beharra dago, gaiak berak eskatzen duen bezalako batzordea jartzen asma dezagun. Konplejidade handiko saila bait da hau. Lehenik, gaiak biltzen izango ditu lanak. Kontuan eduki beharko ditugu erderazko izen ofiziala, eta erderaz mintzatzean inguru hartakoek erabiltzen dutena (beti ez bait dira berdinak). Euskeraz mintzatzean gaur esaten dena eta behinola esaten zena (hau iskribu zaharretatik jakin behar da). Euskera galdu den eskualdeetan franko aldiz toponima xehean gorde da antzinako euskal izena. Gaiak biltzen bakarrik lan izugarria dago, bada, eta eskualde bakoitzean lankideak bilatu beharko dira".

ADIBIDEAK

Azken lerroetan aipatu diren katramila, berezitasun eta abar aztertzeko lan prozedura bat onhartu zuen batzordeak, eta adibide orokor batzu jar. Gure artean, bakoitzak bere txokoko fenomenoa ezagutzen bait dugu, baina gutxik Euskal Herri osokoa, goiherritar batek badaki *Lazcano*-k *n* galtzen duela baina ez daki hori bera gertatzen dela *Galdacano* edo *Lemoniz*-!!!ekin Bizkaian; *Miñano*-rekin Araban edo *Torrano*-rekin Nafarroan. Txokokerian erorita *Idiazal* onhartzea proposatuko luke *Idiazabal*-en ordez, baina orduan kontrazio guztiak bedeinka beharko genituzke amildegian gain-behera abiatuz gero, eta *Zeani* onhar, *Zeanuri*-ren lekuan edo *Mostrun, Monasterioguren*-en ordez.

Jakina da gure zenbait herrik bi izen dituztela, bata orain euskaraz darabilena: *Billerle, Plentzia, Plaentxia* eta bestea Jaunak edo Erregeak hiri bezala izendatu zuenean izen berri horri ofizialtasuna eman arren "carta puebla"n agertzen den herri izen zaharragoa eta euskaldunagoa. Euskal Bizkundeak berragertu zituen honelako izen asko eta gaur egun hedadura bat hartu dute. Bide bat jarraitu dugu beti hauek bezalakoetan, toponimo zahar berbiztua onhar, baina alboan mendeetan zehar euskal hedadura bat hartua duena ere jar, bera ere onhartuaz, baina forma bakar bat: *Mondragoe, Arrasate*-ren alboan eta ez *Mondrá, Mondrago, Mondragoi* eta *Mondragoe*, guzti hauek erabiltzen bait dira.

Baziren zenbait koska eta hori dela gutun bat bidali genien lankideei: "Hona non, bada, zenbait galdera. Poztuko ginateke zure iritzia jakiteaz: 1.ª Zer egin honelako kasuetan?:

1.ª APERGI ala APERREGI?; IBORRI ala IBARRURI?; IDIAZAL ala IDIAZABAL?; ARBAZU ala ARRU(G)AZU?

1b. ALBEIZ ala ALBENIZ?; LEMONA ala LEMOA?; ZESTUA, ZESTOA ala ZESTONA?; MIÑAU, MIÑAO ala MINANO?; GALDAKA, GALDAKO, GALDAKAO ala GALDAKANO?; LAZKAO, LAZKAU ala LAZKANO?; DORRAO, DORRAU ala TORRANO?

1d. LUNO ala LUMO?; MAGUNA ala MAUMA?

1e. ELUETE ala ELUATE?

2. ARRASATE/MONDRAGOE, MONDRAGOI, MONDRAGO, MONDRA; LEGUTIANO/BILLERLE, VILLARREAL; GAMINIZ/PLACENCIA, PLENCIA, PLENTZI; LIZARRA, LIZARRARA/ESTELLA; eta antzeko kasuetan zer egin? Aintzinako leku-izen bat bada, eta "carta puebla"ren erdal izena gailendu bada, euskal itxura hartuta edo hartu gabe?

3. *H*-ak non sartu behar dira? Zenbaiteraino?

4. *Ñ* eta *LL* bai? Baiezkoan, non eta zenbaiteraino?

5. *e* epentetikaren kasuan, zer egin? Adibidez: AURITZ ala AURITZE; UZTARITZ ala UZTARITZE? GERRIKAITZ ala GERRIKAITZE?

6. Zer egin euskal izenik izan ez duten herriekin? Adib. PEDERNALES ala SUKARRIETA, ala SAMIKOLA?; VILLANUEVA (de Valdegobia) ala URIBARRI!; MONTEGUADO ala MENDIZORROTZA? ala biak jarri, baina neologismoari alboan izartxo bat jarri argi adierazteko eta geroak esan beza?

LANKIDE ETA LEKUKOTASUNA

Tokiko laguntzaile eta lekukotasuna izan dugu askotan, adibidez, Bizkaian herri guztietakoa dugu. Denak ezin bai dira aipatu, Jon Ajuria zaratamoztarra aipatuko genuke, hasi Orozkotik eta Uribe merindadeko Hegoalde guztian lekuko lana egin bait du. Gipuzkoan ere izan dugu zenbait lankide. Araban, Lz. de Gereñuren lanaz gainera, Odon Apraiz eta

Manu Rz. Urrestarazu. Nafarroan, Satrustegik eraman du zuzendaritza, baina Irigarai eta beste zenbaiten lanak eskura izanik. Zuzenketa epean, Aita Iraizoz eta Aita Intzaren oso eritzi estimagarriak jaso ditugu.

Zuzenketa epe honetan, Eusebio Erkiaga, Villasante, Urrestarazu, Kintana, Kapanaga-ren zuzenketak ere jaso ditugu. Batzordekook ere ez dugu zerrenda baketan utzi, borobiltzen eta aberasten aritu gara urtarril honetan.

ONARTZE ETA ARGITALPENA

Euskaltzainei zabaltzean, esaten zitzaien zerrendako izenak *proposamen huts* zirela, eta ez erabaki. Horretaz, baliteke, hobe esan, segur bada, zenbait izen oker edo arin proposatzea. Hilabete hau, zuzenketa garaia izan da, zuzenketa ohar baliosak ere etorri egin dira. Baina aipatu ditugun arrazoinengatik, epea epe da, eta gerokoak sasoiz kanpo datozke.

Orain beste hilabeteetan, batzordekook zuzenketak sailkatu eta aztertu egingo ditugu, datorren batzarre batetan, hasierako onartzea emanez. Orduan Izendegi hau jalgiko da plazara. Halaz guztiz, epeluzeago baten ondoren, emango zaio bigarren onartzea edo birrespena.

Konturatzen gara, noski, denbora, medio eta lankideen urritasunaz, huts nabarmentxoren bat ere pasako zaigula. Horregatik, otoi, eskatzen diogu dakienari, luzamendu gabeko laguntza, otsaileko batzarra baino lehen noski.

ESKAINTZA ETA DEIA

"Izenak" dira gure lan honen gaia. Askotan "izana" ere aldatzeko tentaldia izan dugu, Administralgo arroztu batek "entidade" direlakoetan zentzugabekeria handiak eginak bait ditu. Egiteko kori axola handikoa izanik, ez dirudi Batzorde honena denik. Utz dezagun, hortaz, gure Herriari zor zaion Aginteak egin dezala. Hala eta guztiz ere udal berriak sortzean, tradiziozko eta izen historikoei uko eginez, asmakeria barregarriak egin dituzte, BIDAGOYAN esateko, SAIATZ izen jator et historikoa baztertuz. Galdetu behar zuten gutxienez.

Euskaltzaindiaren Batzorde hau ere, lan hori egiteko prest dago eskatzen zaion guztian, egia esateko hasia da horretan. Batzutan diktamen finkatua eman ahal izango du, beste batzuetan oraindik probisionala, baina ahal denik eta oinharrituena beti ere.

Giza komunikabideen munduari: egunkari, aldizkari, irrati eta beste; irakaskintza munduari: ikastola, alfabetatze-euskalduntze, unibertsitate; eta Herri Administralgo munduari, hots hiru mundu horiei eskaintzen badiegu Izendegi hau, azken batez, euskal gizarte osoarentzat da, euskararen ofizialtasuna hiru ardatz horietan oinarritzen, sendotzen eta zindotzen baita.

Catalunyan udal izenak jator eta katalan ortografiaz jartzen hasiak dira aspalditxodanik horretarako Udalabatzarrak bere erabakiak zehatz hartuz, lege prozedura betez eta Institut d'Estudis Catalans-i bere eritzi edo diktamen delakoa beti eskatuz. Gure Udalek ba dute hemen lanik!

Gaur hemen, Udaletxe batetan garenez, Paskual Iturriagaren jaioterrikoa hain zuzen, DEI egiten diegu euskal udaletako herri gizonei. Euskaltzaindiak euskararen aldetik finkatuko duten IZENDEGIA, beraiek, Administralgo alorretik ofizial eta finka dezatela.

EUSKAL UDALEN IZENDEGIAREN ARGIBIDE BATZU

1) Euskal Herrian 648 udal daude, era honetan banaturik:

51	Araban	75	Nafarroa Beherean
96	Bizkaian	41	Zuberoan
81	Gipuzkoan	40	Lapurdin
264	Nafarroan	156	Ipar Euskal Herrian
492	Hego E. H.an	3	enklabeetan

2) Euskal Udalen Izendegiak, zortzi zerrendatan banatuko ditugu, bat orokorra, alfabeto ordenaz, zein herrialdetakoa den begiratu gabe, baina ondoren ezaugarria jarririk A, B, G, N, NB, Z eta L. Ondoren, beste argitalpen batean bigarren sail baten, beste zazpi zerrendetan herrialdeka jarriko dira zerrendak. Hemen, zerrenden alboan, maiuskulaz merindadearen ezaugarria jarriko da, Nafarroako kasuan, I (Iruñea), L (Lizarra), T (Tutera), Z-A (Zangoza-Agoitz), O-T (Olite-Tafalla).

3) Izendegi honetan, gaur udal maila duten herri edo haran-ibarrak sartzen dira, ez anexionatu direnenak; ordea, gal zorian daudenak, fusio edo anexio planakatik agertzen dira. Bakoitzaren lege egoera alda bezin laister, Izendegian berriz jarri edo kenduko litzateke.

4) *(Leintz-) Gatzaga, (Somorrostro-) Muskiz*, eta antzerakoak Euskal Herrian beste *Gatzaga edo Muskiz* izeneko udal edo herrixka bat baino gehiago izen berekoak direla adierazteko da. Herriak *Markin-Etxebarri* esaten du Galdakao eta Bilbo bitartean dagoen *Uribe-Etxebarri*-rekin bereizteko, nahiz eta honen Uribe merindadetasunaz gaur ahaztuxehea izan.

5) + izarñoa, itzulpena edo neologismoa dela adierazteko da, adibidez: *Sukarrieta* + *Uriona* +

6) = izen berberaren bi bertsio balio berekoak direla adierazteko da, adibidez: *Baños=Mainueta* edo *Legutiano=Bilerle*.

7) - Honek herri bik udal bakarra osotzen dutela adierazten du, *Ezkio-Itsaso*, adib.

8) -a deklinatu egiten dela adierazteko da: *Busturia -a, Matxalen Busturiko*, baina *Busturian bizi da* beraz, inesiboan artikulua hartzen duela, *Bizkaian, Bizkaiko, Bizkaitik*, bezala.

9) ? izena bera dudazkoa dela adierazteko da, *Bidegoian* esate batetarako, oker asmatua dela Batzordearen ustez, edo dudak dituelako, *Iturtzioz*?

10) *Erroibar, Artzibar, Elortzeibar*, kasuetan Erro (valle), Arce (valle), Elorz (valle) adierazten dute eta ez *Erro, Artzi* edo *Elortze*, ibar edo haran bereko herrixkak, *udal-ibarrak* beraz, (*valle-municipio*) direlakoak.

UDAL IZENDEGIA

HITZAURREA

Hona non duzun, irakurle, Euskaltzaindiaren aginduz prestatu berri dugun gure Herriko Udalen euskal izendegia. Hiri eta hiritarren euskal izenak biltzeko eta argitaratzeko sortua izan zen batzorde honen xedea zabalkiago mugatua zegoen lehenbizi hartan. Gero, ordea, ikusi da udal izenak premiazkoago genituela beste gainerako hiri, hirixka eta hauzoenak baino, eta horrexegatik lotu gatzaizkio zerrenda laburrago horri jendaurrean lehen-bait-lehen ager dadin.

Zertarako behar dugun horrelako zerbait eta zertarako behar dugun hain presaka, egun hobe bihar baino, ez da gaitz ikusten. Euskaltzaindiak, eta ez Euskaltzaindiak bakarrik, ehundaka izan ditu deiak, honi edo hari euskaraz nola deritzan jakin nahiz. Hor dabiltza, besteak beste, horrenbeste lurkarta, mapa edo lurtamu, eskualde eta hirien izenak euskaraz omen dakarzkitenak: zorigaitzez, haatik, euskaraz baldin badaude ere, ez dator beti, ezta alderatzeko ere, itxura berean. Orobat gertatzen da, non gehiago non guttiago, liburu, aldizkari eta inolazko paperetan ere.

Euskara ofizialkidetasun bideetan abiatu baino lehen ere, eta luzaro gabe bide horietan barrena sartua beharko du izan gure hizkuntzak, jendea hasi da, nor bere kabuz, direlako izenen euskal ordainak leku askotan agerian ipintzen, lehen zeudenen aldamenean edo lehen zeudenen gainetik. Gero nekez desegingo direnak nork bere gisa egin baino lehen, beraz, egoki iruditu zaio Euskaltzaindiari gidaritza moduko zerbait bere herritarrei eskaintzea, izendapen kontuan guztiok, han eta hemen, bateratsu ibil gaitezen.

Erraz da kontatzen nola antolatu dugun aurrean duzun izen zerrenda hau. Batzordekoon jakitea maiz eskas zelarik, besterengana ere jo dugu, Euskaltzaindian bertan eta Euskaltzainditik kanpora, laguntza bila: beheraxeago aurki dezakezu zorrik nabarmenen aitorra. Halaz guztiz, eginbidea eta erantzunbeharra gure-gureak izanik, egin-ahalak egin ditugu euskal izen horiei dagozkien lekukotasunak oro biltzen eta

ikertzen, nahiz ahozko diren nahiz izkribuzko. Argibideren bat edo beste –nola nahi ere, ez gehiegi– itzuri bazaigu ere, ez da inoiz izan geureak eta bost egin ez ditugulako bilaketan.

Hemen ezin azal ditzakegu froga eta lekuko horiek banan-banan. Nolanahi ere den, hor gelditukо dira sailkatuak eta gordeak, Euskaltzaindira argitasun eske joko balu ere norbaitek. Ez dira, sinets ezazu, abuntun eta arrapazka jasoak eta hautatuak hemen aurki daitezkeen deiturak.

Esanik dago horrenbestez ez dela gurea batze lan hutsa izan: hauta lana zetorren jasotze lanaren ondoan, bestea baino gaitzagoa, balia gintezkeen irizpideak erraz lerratzen baitira baten edo besteren gogora eta gustora. Euskal eta erdal etorkiko izenak (eta euskarazkoak, inoiz edo behin, asmatuxeak), zaharrak eta berriak, paperetako uzta eta aho hizkeratik hartua, dotore eta herrikoiegiak, eta abar. Hitz bitan baizik ez ditugu hemen azalduko batera zein bestera hainbeste aldiz zalantzan jarri gaituzten arrazoiak. Hitz bi horiek, ordea, beharrezko gerta daitezke.

Euskara osoaren legeen arabera eratuak dauden izenak onartu ditugu. *Zestoa* eta honen antzekoak, esate baterako, Euskal Herri osoan galdu baita antzinako *n* bat holako ingurunean suertatzen zenean. Zergatik ez, orduan, galda daiteke, *Zestoa*, orain esaten ez dena, sartu bai, eta esaten den *Zestua* ez? Gure hizkuntzaren lege eta erregelen ondorio zuzena ez ote da, hain zuzen, azkeneko hau?

Ez dugu uste, hona garbi esan, hizkuntzaren erregelen ekoizpena denik *Zestua*, zenbait eskualdetako hizkerarena baizik. Hots, *besua* esaten den tokietan ere besoa idatzi ohi da, *beso bat, beso luzea du*, etc., direla medio garbi ikusten delako *besua*-ren azpian datzana, orain esan ohi den bezala, *beso* + *-a* dela. *Zestoa* da orobat *Zestua*-ren oinarria, erregela horren bitartez *Zestua* bihurtzen dena.

Behin bakarrik, eta Erronkariko izenekin ari ginela, saihestu gara erabateko irizpide horretarik. Bistan da, euskararen legeei bagagozkie, bai halabar inguruetan (Zaraitzun, esate baterako, ez Erronkarin bertan) erabiltzen diren formak gogoan badauzkagu, beste itxura batean agertu behar zuela izen batek baino gehiagok: *Errongari* lehen-lehenik eta *Bidangoze* gero, hartu ditugun *Erronkari* eta *Bidankoze*-ren ordez. Baina hango euskalkiak (xuberoerarekin batera) duen norta-

sun bereziaren ezaugarri bezala, bertako usarioari amore ematea egokiago iruditu zaigu.

Deklinabidearen gora-beherak aurreraxeago agertzen dira zertxobait. Hemen ez da aipatu baizik egingo, bada, artikulua dela eta ez dela, zenbait izenen artean sortzen den bereizkuntza: *Urretxun* eta *Urretxuko*, nahiz gaztelaniaz (oraintsu arte, bederen) *Urrechua* esan, baina *Errenteria* eta *Errenteriako,* berezko duen *-a* hori beti josirik daramala eta, garai batean behinik-behin, *Deustua, Deustuan,* baina *Deustuko*, erdaraz (oraingo erdaraz) *Deusto* izan arren, *-a* horren jokoa artikulu mugatzailearena berbera delako. Horrelatsu, izen propioetarik kanpo, esaten da *buru-a*, buru-a-n, baina *buru-ko*, *-a*-rik gabe.

Izen zahar, berri eta berriagoekin ere izan dugu hauzi latza. *Errenteria* izan da betidanik, zenbait erregela berri gora-behera, Gipuzkoako hiriarenaz gainera, Bizkaiko bi hauzoren izena. *Errenderi* sortu zuten gero, ordea, XXgn. mende honetan bertan, izenak, zaharragoa izan balitz, izan zukeen itxuran aldaturik: *han* + *-ko, Erronkari-Zuberoetan* izan ezik, *hango* bihurtu den gisan, alegia. Bazegoen, gainera, hirugarren izena (*Arrasate* edo *Soraluze*-ren antzekoa), Alfonso XIgarrenak Oiartzunen kaltetan *Villanueva de Oiarso* izenez sortu nahi zuen hiriaren jaio-lekuarena: *Orereta*.

Holakoetan, eta holakoak ez dira urri hazi gure artean, ezker-eskuin jokatu behar izan dugu, ez baikenuen zimentarririk aski erabateko erabaki funtsezkorik hartzeko. Kasuzkasu eta izenez-izen aztertu ditugu eta maiz aski, bakar bat hautetsi beharrean, bi edo utzi ditugu paperean. Aukera, horrelakoetan, besteren esku dago, ez gure irispidean.

Beste zenbaitetan, berriz, erdal izen arruntak soil-soilik ez ematearren, euskal ordainak edo sortu dira: hobeki esan, bestetatik, euskal lurretik, hartu dira eta erdal herrian txertatu. Honelakoek, haatik, badaramate beti izartxo baten bereizgarria ezker-aldean. Bazen horietan erdarazkoa hutshutsik edota euskarazkoa bakarrik nahi zuenik. Erdi alderuntz jo dugu gehienbat, bata eta bestea zerrendan, baina ordenaz bata bestearen hurren, gelditzen direlarik.

Gidari gisa, lehen esan bezala, bide-erakusle bezala edo, agertu gatzaizkizue. Bideren bat eskaini nahi genuke, egungo eguneko premiei erantzunaz. Ez da gure listan duda egin edo

uki ezin daitekeen punturik. Euskal herriak onartu –nahiz arbuiatu– beharko ditu izenok, eta hiri era eskualde bakoitzak berari dagokiona aurren-aurrenik. Onar, alda edo arbuia daitekeena, hauxe da gure eskaririk gartsuena, ez dadila behintzat itsumustuaren beroaldian onartua, aldatua edo arbuiatua izan. Euskal leku izenak euskaldun guztion aberastasun eta aberasgarri baitira, ez herri bakoitzeko herritarren ondasun soil.

Azkeneko hitza, noski, herriak izango du, eta mintzatuko zaigu hontaz eta hartaz ezin bestean izango ditugun herri agintarien bitartez. Eta nabari da udal izenen hauzian ez dugula gorengo mailako aginte beharrik. Horrelako erabakiak –izanari baino izenari estuago lotuak– hartzeko aski baita aginte eta eskurik xumeena ere.

Koldo Mitxelena
Batzorde Burua
Gasteiz, 1978

UDAL IZENDEGIA

GAURKO IZEN OFIZIALA	EUSKAL IZENA	HERRITARRENA
1. Abadiano—B	Abadino	abadinar
2. Abaigar—N	Abaigar	abaigartar
3. Abalcisqueta—G	Abaltzisketa	abaltzisketar
4. Abanto y Ciérvana—B	Abanto-Zierbena	abantar, zierbenar
5. Abarzuza—N	Abartzuza	abartzuzar
6. Abaurrea Alta—N	Abaurregaina -a	abaurtar
7. Abaurrea Baja—N	Abaurrepea -a	abaurtar
8. Aberin—N	Aberin	aberindar
9. Ablitas—N	Ablitas	ablitastar
10. Adios—N	Adioz	adiztar
11. Aduna—G	Aduna	adunar
12. Aguilar de Codes—N	Agilar= Arranotegi*	agilartar=arranotegitar*
13. Ahaxe-Alciette-Bascassan—NB	Ahatsa-Altzieta-Bazkazane	ahatsar-altzietar-bazkazandar
14. Ahetze—L	Ahetze	aheztar
15. Aibar—N	Oibarre	oibartar
16. Aicirits—NB	Aiziritze	aiziriztar
17. Aincille—NB	Aintzila	aintzildar
18. Ainharpe—Z	Aiñharbe	aiñharbiar
19. Ainhice-Mongelos—NB	Ainhize-Monjolose	ainhiztiar-monjolostar
20. Ainhoa—L	Ainhoa	ainhoar

* * *

21. Aizarnazabal—G	Aizarnazabal	aizarnazabaldar
22. Albiztur—G	Albiztur	albiztutar
23. Alçay-Alçabehty-Sunharrete—Z	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	altzaiar-altzabehetiar-zunharretar
24. Aldudes—NB	Aldude	aldudar
25. Alegria—A	Dulantzi	dulantziar
26. Alegria de Oria—G	Alegia	alegiar

27. Alos-	Aloze-	aloztar-
Sibas-	Ziboze-	ziboztar-
Abense—Z	Omize-gañia	omiztar
28. Alquiza—G	Alkiza	alkizar
29. Alsasua—N	Altsasu	altsasuar
30. Alzo—G	Altzo	altzotar
31. Allin—N	Allin	allindar
32. Allo—N	Allo	alloar
33. Amendeuix-	Amenduze-	amenduztar-
Oneix—NB	Unaso	unastar
34. Amescoa Baja—N	Amezkoa-behekoa	amezkoar
35. Amezqueta—G	Amezketa	amezketar
36. Amorebieta		
Echano—B	Zornotza	zornotzar
37. Amoroto—B	Amoroto	amorotar
38. Amorots-	Amorotze-	amoroztar-
Succos—NB	Zokhozü	zokhoztar
39. Amurrio—A	Amurrio	amurriar
40. Ancin—N	Antzin	antzindar

* * *

41. Andoain—G	Andoain	andoaindar
42. Andosilla—N	Andosilla	andosillar
43. Anglet—L	Angelu	angeluar
44. Anhaux—NB	Anhauze	anhauztar
45. Anoeta—G	Anoeta	anoetar
46. Ansoain—N	Antsoain	antsoaindar
47. Anue—N	Anue	Anuetar
48. Anzuola—G	Antzuola	antzuolar
49. Añorbe—N	Añorbe	añorbear
50. Aoiz—N	Agoitz	agoiztar=agoizko
51. Aracaldo—B	Arakaldo	arakaldar
52. Araiz—N	Araitz	araiztar
53. Arama—G	Arama	aramar
54. Aramayona—A	Aramaio	aramaiar, aramai(o)ar
55. Arancou—NB	Erango	erangoar
56. Aranarache—N	Aranaratxe	aranaratxear
57. Aranaz—N	Arantza	arantzar
58. Aranguren—N	Aranguren	arangurendar
59. Arano—N	Arano	aranoar
60. Aránzazu—B	(Arrati)-Arantzazu	arantzazuar

* * *

61. Araquil—N	Arakil	arakildar
62. Aras—N	Aras	arastar
63. Arbacegui y		
Guerricaiz—B	Munitibar	munitibartar

64. Arberats-Sillegue—NB	Arberatze-Zilhekoa	arberaztar-zilhekoar
65. Arbizu—N	Arbizu	arbizuar
66. Arbonne—L	Arbona	arbonar
67. Arbouet-Sussaute—NB	Arboti-Zohota	arboitar-zohotar
68. Arcangues—L	Arrangoitze	arrangoiztar
69. Arce—N	Artzibar	arbitzartar
70. Arceniega—A	Artziniega	artziniegar
71. Arcentales—B	Artzentales	artzentalestar
72. Arcos (Los)—N	Losarkos=Urantzia	urantziar
73. Arechavaleta—G	Aretxabaleta	aretxabaletar
74. Arellano—N	Arellano	arellanoar
75. Areso—N	Areso	aresoar
76. Arguedas—N	Argetas	argetastar
77. Arhansus—NB	Arhauntsusi	arhansusitar, arhansusiar
78. Aria—N	Aria	ariatar
79. Arive—N	Aribe	aribetar
80. Armañanzas—N	Armañantzas	armañanzastar

* * *

81. Armendarits—NB	Armendaritze	armendariztar
82. Armiñon—A	Aramiñon	aramiñondar
83. Arneguy—NB	Arnegi	arnegitar
84. Aroue-Ithorrots-Olhaiby—Z	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	arüetar-ithorroztar-olhaibiar
85. Arrancudiaga—B	Arrankudiaga	arrankudiagar
86. Arrast-Larrebieu—Z	Urrüxtoi-Larrabile	urrüxtoitar-larrabiltar
87. Arraute-Charrite—Z	Arruta-Sarrikota-gañia	arrutar-sarrikotar
88. Arrazua-Ubarrundia—A	Arratzu-Ubarrundia	arratzuar-ubarrundiar
89. Arrieta—B	Arrieta	arrietar
90. Arrigorriaga—B	Arrigorriaga	arrigorriagar
91. Arroniz—N	Arroniz	arroniztar
92. Arruazu—N	Arruazu	arruazuar
93. Artajona—N	Artaxona	artaxonar
94. Artazu—N	Artazu	artazuar
95. Ascain—L	Azkaine	azkaindar
96. Ascarat—NB	Azkarate	azkaratiar
97. Asparrena—A	Asparren	asparrendar
98. Asteasu—G	Asteasu	asteasuar
99. Ataun—G	Ataun	ataundar
100. Atez—N	Atez	ateztar

* * *

101. Aussurucq—Z	Altzürükü	altzürükütar
102. Aya—G	Aia	aiar
103. Ayala—A	Aiara	aiarar
104. Ayegui—N	Aiegi	aiegiar
105. Ayherre—NB	Aiherra	aihertar
106. Azagra—N	Azagra	azagrar
107. Azcoitia—G	Azkoitia-a	azkoitiar
108. Azpeitia—G	Azpeitia -a	azpeitiar
109. Azuelo—N	Azuelo	azueloar
110. Bacaicoa—N	Bakaiku	bakaikuar
111. Banca—NB	Banka	bankar
112. Baños de Ebro—A	Baños=Mainueta*	bañostar=mainuetar*
113. Baquio—B	Bakio	bakiotar
114. Baracaldo—B	Barakaldo	barakaldar
115. Barasoain—N	Barasoain	barasoaindar
116. Barbarin—N	Barbarin	barbarindar
117. Barcus—Z	Barkoxe	barkoxtar
118. Bardos—L	Bardoze	bardoztar
119. Bargota—N	Bargota	bargotar
120. Barillas—N	Barillas	barillastar

* * *

121. Barrica—B	Barrika	barrikoztar=barrikar
122. Barrundia—A	Barrundia	barrundiar
123. Basaburua Mayor—N	Basaburua -a	basaburuar
124. Basauri—B	Basauri	basauriar
125. Bassussarry—L	Basusarri	basusartar
126. Bayonne—L	Baiona	baionar
127. Baztan—N	Baztan	baztandar
128. Beasain—G	Beasain	beasaindar
129. Beguios—NB	Behauze	behauztar
130. Behasque-Lapiste	Behaskane-Laphizketa	behaskandar-laphizketar
131. Behorleguy—NB	Behorlegi	behorlegitar
132. Beire—N	Beire	beiretar
133. Beizama—G	Beizama	beizamar
134. Belascoain—N	Belaskoain	belaskoaindar
135. Belaunza—G	Belauntza	belauntzar
136. Berango—B	Berango	berangoztar=berangar
137. Berantevilla—A	Beranturi	beranturiar
138. Berastegui—G	Berastegi	berastegiar
139. Berbinzana—N	Berbintzana	berbintzandar
140. Bergouey-Viellenave—NB	Burgue-Erreiti	burguetar-erreitiar

* * *

141. Bermeo—B	Bermeo	bermeotar
142. Bernedo—A	Bernedo	bernedar
143. Berriz—B	Berriz	berriztar
144. Berrobi—G	Berrobi	berrobitar
145. Berrogain-Laruns—Z	Berrogañe-Lahüntze	berrogaintar-lahünztar
146. Bertiz-Arana—N	Bertizarana	bertizarandar
147. Betelu—N	Betelu	beteluar
148. Beyrie-sur-Joyeuse—NB	Mithiriña	mithiriñdar
149. Biarritz—L	Miarritze	miarriztar
150. Bidache—NB	Bidaxune	bidaxundar
151. Bidarray—NB	Bidarrai	bidarraitar
152. Bidart—L	Bidarte	bidartar
153. Bidegoyan—G	Bidegoian? (Saiatz)	bidaniar, goiaztar
154. Bilbao—B	Bilbo	bilbotar
155. Biriatou—L	Biriatu	biriatuar
156. Biurrun-Olcoz—N	Biurrun-Olkotz	biurrundar-olkoztar
157. Bonlonc—L	Lekuine	lekuindar
158. Boucau—L	Bokale	bokaldar
159. Briscous—L	Beskoitze	beskoiztar
160. Bunus—NB	Bunuze	bunuztar

* * *

161. Buñuel—N	Buñuel	buñueldar
162. Burguete—N	Auritz	auriztar
163. Burgui—N	Burgi	burgiar
164. Burlada—N	Burlata	burlatar
165. Bussunarits-Sarrasquette—NB	Duzunaritze-Sarrasketa	duzunariztar-sarasketar
166. Bustince-Iriberry—NB	Buztintze-Iriberri	buztintziar-iribertar
167. Busto (El)—N	Busto	bustoar
168. Busturia—B	Busturia -a	busturiar
169. Cabanillas—N	Kabanillas=Kapanaga*	kabanillastar=kapanagar*
170. Cabredo—N	Kabredo=Ahuntzegi*	kabredoar=ahuntzegitar*
171. Cadreita—N	Kadereita	kadereitar
172. Cambo-les-Bains—L	Kanbo	kanboar
173. Came—NB	Akamarre	akamartar
174. Camou-Cihigue—Z	Gamere-Zihiga	gamerear-zihigar
175. Camou-Mixe-Suhast—NB	Gamue-Zohazti	gamuar-zohaztiar
176. Campezo—A	Kanpezu	kanpezuar
177. Caparroso—N	Kaparroso	kaparrosoar
178. Carcar—N	Karkar=Karakarre	karkartar=karakarretar

179. Carcastillo—N	Zarrakaztelu	zarrakazteluar
180. Çaro—NB	Zaro	zaroar

* * *

181. Carranza—B	Karrantza	karrantzar
182. Cascante—N	Kaskante	kaskantar
183. Caseda—N	Kaseda	kasedar
184. Castejón—N	Kastejon	kastejondar
185. Castillo y Elejabeitia—B	(Arrati)-Arteaga	arteagaztar=arteagar
186. Castillo Nuevo—N	Gazteluberri	gazteluberriar
187. Ceanuri—B	Zeanuri	zeanuriztar=zeanuritar
188. Ceberio—B	Zeberio	zeberioztar=zeberiar
189. Cegama—G	Zegama	zegamar
190. Cerain—G	Zerain	zeraindar
191. Cestona—G	Zestoa	zestoar
192. Ciboure—L	Ziburu	ziburutar
193. Cigoitia—A	Zigoitia -a	zigoitiar
194. Cintruenigo—N	Zentroniko	zentronikoar
195. Ciordia—N	Ziordi	ziordiar
196. Cirauqui—N	Zirauki	ziraukiar
197. Ciriza—N	Ziritza	ziritzar
198. Cizur—N	Zizur	zizurtar
199. Cizurquil—G	Zizurkil	zizurkildar
200. Corella—N	Korella	korellar

* * *

201. Cortes—N	Kortes	kortestar
202. Cripan—A	Kripan	kripandar
203. Cuartango—A	Koartango	koartangar
204. Charritte-de-Bas—Z	Sarrikota-pia	sarrikotar
205. Cheraute—Z	Sohüta	sohütar
206. Deva—G	Deba	debar
207. Desojo—N	Desoio	desoiar
208. Dicastillo—N	Deikaztelu	deikazteluar
209. Dima—B	Dima	dimoztar=dimar
210. Donamaría—N	Donamaria	donamariar
211. Durango—B	Durango	durangar
212. Ea—B	Ea	eatar
213. Echalar—N	Etxalar	etxalartar
214. Echarri—N	(Etxauri)-Etxarri	etxarriar
215. Echarri Aranaz—N	Etxarri-Aranatz	etxarriar
216. Echauri—N	Etxauri	etxauriar
217. Echevarri—B	(Uribe)-Etxebarri	etxebarritar
218. Echevarria—B	(Markin)-Etxebarri	etxebarritar

219. Egües—N	Egues	eguestar
220. Eibar—G	Eibar	eibartar

* * *

221. Elanchove—B	Elantxobe	elantxobetar
222. Elburgo—A	Burgelu	burgeluar
223. Elciego—A	Eltziego	eltziegar
224. Elduayen—G	Elduain	elduaindar
225. Elgoibar—G	Elgoibar	elgoibartar
226. Elgorriaga—N	Elgorriaga	elgorriagar
227. Elgueta—G	Elgeta	elgetar
228. Elorrio—B	Elorrio	elorriar
229. Elorz—N	Elortzibar	elortzibartar
230. Elvillar—A	Bilar	bilartar
231. Eneriz—N	Eneritz	eneriztar
232. Erasun—N	Erasun	erasundar
233. Ereño—B	Ereño	ereñar
234. Ergoyena—N	Ergoien	ergoiendar=ergondar
235. Ermua—B	Ermua -a	ermuar
236. Erro—N	Erroibar	erroibartar
237. Escaroz—N	Ezkaroze	ezkaroztar
238. Escoriaza—G	Eskoriatza	eskoriatzar
239. Eslava—N	Eslaba	eslabar
240. Esparza—N	Espartza	espartzar

* * *

241. Espelette—L	Ezpeleta	ezpeletar
242. Espes-Undurein—Z	Ezpeize-Undüreiñe	ezpeiztar-undüreintar
243. Espronceda—N	Esprontzeda	esprontzedar
244. Esquiule—Z	Eskiula	eskiulatar
245. Estella—N	Lizarra	lizarratar
246. Esterençuby—NB	Ezterenzubi	ezterenzubiar
247. Esteribar—N	Esteribar	esteribartar
248. Etayo—N	Etaiu	etaiuar
249. Etcharry—Z	(Zuberoa)-Etxarri	etxarriar
250. Etchebar—Z	Etxebarre	etxebartar
251. Eulate—N	Eulate	eulatear
252. Ezcabarte—N	Ezkabarte	ezkabartear
253. Ezcurra—N	Ezkurra	ezkurrar
254. Ezprogui—N	Ezporogi	ezporogiar
255. Ezquioga-Ichaso—G	Ezkio-Itsaso	ezkiotar-itsasoar
256. Falces—N	Faltzes	faltzestar
257. Fitero—N	Fitero	fiteroar
258. Fontellas—N	Fontellas	fontellastar

259. Fruniz—B	Fruiz	fruiztar
260. Fuenterrabia—G	Hondarribia -a	hondarribiar

* * *

261. Funes—N	Funes	funestar
262. Fustiñana—N	Fustiñana	fustiñanar
263. Gabat—NB	Gabadi	gabadiar
264. Gainza—G	Gaintza	gaintzar
265. Galar—N	Galar	galartar
266. Galdácano—B	Galdakao	galdakoztar=galdakar
267. Galdames—B	Galdames	galdamestar
268. Gallipienzo—N	Galipentzu	galipentzuar
269. Gallues—N	Galoze	galoztar
270. Gamarthe—NB	Gamarte	gamartiar
271. Gamiz-Fica—B	Gamiz-Fika	gamiztar-fikar
272. Garay—B	Garai	garaitar
273. Garayoa—N	Garaioa	garaioar
274. Garde—N	Garde	gardar
275. Garindein—Z	Garindañe	garindaintar
276. Garinoain—N	Garinoain	garinoaindar
277. Garralda—N	Garralda	garraldar
278. Gatica—B	Gatika	gatikar
279. Gauteguiz de Arteaga—B	(Gautegiz)-Arteaga	arteagar
280. Gaviria—G	Gabiria	gabiriar

* * *

281. Genevilla—N	Uxanuri	uxanuriar
282. Gestas—Z	Jestaze	jestaztar
283. Goizueta—N	Goizueta	goizuetar
284. Goñi—N	Goñibar	goñibartar
285. Gordejuela—B	Gordoxola	gordoxolar
286. Gorliz—B	Gorliz	gorliztar
287. Gotein-Libarrenx—Z	Gotañe-Irabarne	gotaintar-irabarnetar
288. Guecho—B	Getxo	getxoztar=getxotar
289. Güeñes—B	Guenes	guendar=guenestar
290. Guernica y Luno—B	Gernika-Lumo	gernikar-lumotar
291. Güesa—N	Gorza	gorztar
292. Guesalaz—N	Gesalaz	gesalaztar
293. Guetaria—G	(Gipuzkoa)-Getaria	getariar
294. Guethary—L	(Lapurdi)-Getaria	getariar
295. Guiche—L	Gixune	gixundar
296. Guirguillano—N	Girgillano	girgillanoar

297. Guizaburuaga—B	Gizaburuaga	gizaburuagar
298. Halsou—L	Haltsu	haltsuiar
299. Hasparren—L	Hazparne	hazpandar
300. Haux—Z	Hauze	hauztar

* * *

301. Helette—NB	Heleta	heletar
302. Hendaye—L	Hendaia	hendaiar
303. Hernani—G	Hernani	hernaniar
304. Hernialde—G	Hernialde	hernialdetar
305. Hosta—NB	Hozta	hoztar
306. Huarte—N	Uharte	uhartear
307. Huarte Araquil—N	Uharte-Arakil	uhartear
308. Ibargoiti—N	Ibargoiti	ibargoitiar
309. Ibarolle—NB	Ibarla	ibarlar
310. Ibarra—G	Ibarra	ibartar
311. Ibarranguelua—B	Ibarrangelu	ibarrangelutar
312. Idaux-Mendy—Z	Idauze-Mendi	idauztar-mendiar
313. Idiazabal—G	Idiazabal	idiazabaldar
314. Iguzquiza—N	Iguzkitza	iguzkitzar
315. Iholdy—NB	Iholdi	iholdiar
316. Ilharre—NB	Ilharre	ilhartar
317. Imoz—N	Imotz	imoztar
318. Irañeta—N	Irañeta	irañetar
319. Irissarry—NB	Irisarri	irisartar
320. Irouleguy—NB	Irulegi	irulegitar

* * *

321. Iruerrieta—G	Iruerrieta?	iruerrietar?
322. Irun—G	Irun	irundar
323. Iruña de Oca—A	(Oka)-Iruñea -a	iruindar
324. Irura—G	Irura	irurar
325. Iruraiz-Gauna—A	Iruraitz-Gauna	iruraiztar-gaunar
326. Isaba—N	Izaba	izabar
327. Isasondo—G	Itsasondo	itsasondoar
328. Ispaster—B	I(z)pazter	i(z)paztertar
329. Ispoure—NB	Izpura	izpurar
330. Ituren—N	Ituren	iturendar
331. Isturits—NB	Isturitze	isturiztar
332. Iturmendi—N	Iturmendi	iturmendiar
333. Itxassou—L	Itsasu	itsasuiar
334. Iza—N	Itza	itzatar
335. Izagaondoa—N	Itzagaondoa -a	itzagaondoar
336. Izalzu—N	Itzaltzu	itzaltzuar

337. Izurza—B	Izurtza	izurtzar
338. Jatxou—L	(Lapurdi)-Jatsu	jatsuiar
339. Jaurrieta—N	Eaurta	eaurtar
340. Javier—N	Xabier	xabiertar

* * *

341. Jaxu—NB	(Garazi)-Jatsu	jatsiar
342. Juslapeña—N	Xulapain	xulapaindar
343. Juxue—NB	Jutsi	jutsitar
344. Labastida—A	(Araba)-Bastida	bastidar
345. Labastide-Clairence—NB	(Nafarroa beherea) Bastida	bastidar
346. Labayen—N	Labaien	labaiendar
347. Labets-Biscay—NB	Labetze-Bizkai	labeztar-bizkaitiar
348. Lacarre—NB	Lakarra	lakartar
349. Lacarry-Arhan-Charrite de Haut—Z	Lakarri-Arhane-Sarrikota	lakartar-arhantar-sarrikotar
350. Lacunza—N	Lakuntza	lakuntzar
351. Lagran—A	Lagran	lagrandar
352. Laguardia—A	Biasteri	biasteriar
353. Laguinge-Restoue—Z	Liginaga-Astüe	liginagar-astüar
354. Lana—N	Lana	lanar
355. Lanciego—A	Lantziego	lantziegar
356. Lanestosa—B	Lanestosa-Isasti*	lanestosar-isastiar*
357. Lantabat—NB	Landibarre	landibartar
358. Lantarón—A	Lantaron	lantarondar
359. Lanz—N	Lantz	lanztar
360. Lapoblación—N	Meanuri*	meanuriar*

* * *

361. Lapuebla de Labarca—A	La Puebla de la Barca	lapueblar
362. Larceveau-Arros-Cibits—NB	Larzabale-Arroze-Zibitze-	larzabaldar-arroztar-zibiztar-
363. Larrabezua—B	Larrabetzu	larrabetzuar
364. Larraga—N	Larraga	larragar
365. Larraona—N	Larraona	larraonar
366. Larrau—Z	Larrañe	larraintar
367. Larraul—G	Larraul	larrauldar
368. Larraun—N	Larraun	larraundar
369. Larressore—L	Larresoro	larresoar

370. Larribar-Sorhapuru—NB	Larribarre-Sorhapürü	larribartar-sorhapürtar
371. Lasse—NB	Lasa	lasar
372. Lauquiniz—B	Laukiz	laukiztar
373. Lazagurria—N	Lizagorria -a	lizagorriar
374. Lazcano—G	Lazkao	lazkaotar
375. Leaburu-Gaztelu—G	Leaburu-Gaztelu	leaburuar-gazteluar
376. Leache—N	Leatxe	leatxear
377. Lecumberry—NB	(Garazi)-Lekunberri	lekunbertar
378. Legarda—N	Legarda	legardar
379. Legaria—N	Legaria	legariar
380. Legazpia—G	Legazpi	legazpiar

* * *

381. Legorreta—G	Legorreta	legorretar
382. Leiza—N	Leitza	leitzar
383. Lejona—B	Leioa	leioztar=leioar
384. Lemona—B	Lemoa	leioaztar=leioar
385. Lemoniz—B	Lemoiz	lemoiztar
386. Leoz—N	Leotz	leoztar
387. Lequeitio—B	Lekeitio	lekeitiar
388. Lerga—N	Lerga	lergar
389. Lerin—N	Lerin	lerindar
390. Lesaca—N	Lesaka	lesakar
391. Leza—A	Leza	lezar
392. Lezaun—N	Lezaun	lezaundar
393. Lezo—G	Lezo	lezoar
394. L'Hopital Saint Blaise—Z	Ospitale-pia	ospitales
395. Lichans-Sunhar—Z	Lexantzü-Zünharre	lexanztar-zunharrar
396. Licq-Atherey—Z	Ligi-Atherei	ligiar-atheiar
397. Liedena—N	Ledia	lediar
398. Lizarza—G	Lizartza	lizartzar
399. Lizoain—N	Lizoain	lizoaindar
400. Lodosa—N	Lodosa	lodosar

* * *

401. Lohitzun-Oyhercq—Z	Lohitzüne-Oihergi	lohitzündar-oihergiar
402. Longuida—N	Longida	longidar
403. Louhossoa—L	Luhoso	luhosoar
404. Lumbier—N	Irunberri	irunberriar
405. Luquin—N	Lukiain	lukiaindar

406. Luxe-Seumberaute-NB	Lukuze-Altzumarta	lukuztar-altzumartar
407. Llodio—A	Laudio	laudiar
408. Macaye—L	Makea	makear
409. Maestu—A	Maeztu	maeztuar
410. Mallavia—B	Mallabia-a	mallabitar
411. Mañaria—B	Mañaria-a	mañariar
412. Mañeru—N	Mañeru	mañeruar
413. Marañón—N	Marañon	maranondar
414. Marcilla—N	Martzilla	martzillar
415. Marquina-Jemein—B	Markina-Xemein	markinar-xemeindar
416. Maruri—B	Jatabe	jatabetar
417. Masparraute—NB	Martxuta	martxutar
418. Mauleon-Licharre—Z	Maule-Lextarre	mauletar-lextarrestar
419. Meharin—NB	Meharine	meharindar
420. Mélida—N	Melida	melidar

* * *

421. Mendata—B	Mendata	mendetar
422. Mendavia—N	Mendabia	mendabiar
423. Mendaza—N	Mendaza	mendazar
424. Mendeja—B	Mendexa	mendexar
425. Mendigorria—N	Mendigorria	mendigorriar
426. Mendionde—L	Lekorne	lekondar
427. Menditte—Z	Mendikota	mendikotar
428. Mendive—NB	Mendibe	mendibar
429. Meñaca—B	Meñaka	meñakar
430. Metauten—N	Metauten	metautendar
431. Milagro—N	Milagro	milagroar
432. Mirafuentes—N	Mirafuentes=Iturriaga*	mirafuentestar=iturriagar*
433. Miranda de Arga—N	(Arga)-Miranda	mirandar
434. Miravalles—B	Ugao=Miraballes	ugaotar=miraballestar
435. Moncayolle-Larrory-Mendibieu—Z	Mithikile-Larrori-Mendibile	mithikiltar-larroritar-mendibiltar
436. Mondragón—G	Arrasate=Mondragoe	arrasatear=mondragoetar
437. Monreal—N	Elo	eloar
438. Monteagudo—N	Monteagudo=Mendikute*	monteagudoar=mendikutear*
439. Moreda de Alava—A	Moreta	moretar
440. Morentin—N	Morentiain	morentiaindar

* * *

441. Morga—B	Morga	morgar
442. Motrico—G	Mutriku	mutrikuar
443. Mouguerre—L	Mugerre	mugertar
444. Mues—N	Mues	muestar
445. Mugica—B	Muxika	muxikar
446. Mundaca—B	Mundaka	mundakar
447. Munguia—B	Mungia	mungiar
448. Murchante—N	Murtxante	murtxantear
449. Murelaga—B	Aulesti	aulestiar
450. Murieta—N	Murieta	murietar
451. Murillo el Cuende—N	Murelu-(Konde)*	mureluar*
452. Murillo el Fruto—N	Murelu-(Hautsi)*	mureluar
453. Muruzabal—N	Muruzabal	muruzabaldar
454. Musculdy—Z	Muskildi	muskildiar
455. Musques—B	(Somorrostro)-Muskiz	muskiztar
456. Mutiloa—G	Mutiloa -a	mutiloar
457. Navaridas—A	Nabaridas	nabaridastar
458. Navascues—N	Nabaskoze	nabaskoztar
459. Nazar—N	Nazar	nazartar
460. Obanos—N	Obanos	obanostar

* * *

461. Oco—N	Oko	okoar
462. Ochagavia—N	Otsagi	otsagiar
463. Ochandiano—B	Otxandio	otxandiar
464. Odieta—N	Odieta	odietar
465. Oiz—N	Oitz	oiztar
466. Olaberria—G	Olaberria	olaberritar
467. Olaibar—N	Olaibar	olaibartar
468. Olazagutia—N	Olazti	olaztiar
469. Olejua—N	Olexoa	olexoar
470. Olite—N	Olite-(Erriberri)	olitear
471. Oloriz—N	Oloritz	oloriztar
472. Olza—N	Oltza	oltzar
473. Ollo—N	Ollaran	ollarandar
474. Ondárroa—B	Ondarroa	ondarroar=ondarrutar
475. Oñate—G	Oñati	oñatiar
476. Oquendo—A	Okondo	okondar
477. Orbaiceta—N	Orbaizta	orbaiztar
478. Orbara—N	Orbara	orbartar
479. Ordiarp—Z	Urdiñarbe	urdiñarbetar
480. Orduña—B	Urduña	urduñar

* * *

481. Oregue—NB	Oragarre	oragartar
482. Oreja—G	Orexa	orexar

483. Orio—G	Orio	oriotar
484. Orisoain—N	Orisoain	orisoaindar
485. Ormaiztegui—G	Ormaiztegi	ormaiztegiar
486. Oronz—N	Orontze	oronztar
487. Oroz-Betelu—N	Oroz-Betelu	orozbeteluar
488. Orozco—B	Orozko	orozkar=orozkomar
489. Orsanco—NB	Ostankoa	ostankoar
490. Ossas-Suhare—Z	Ozaze-Zühara	ozaztar-züharatar
491. Osserain-Rivareyte—Z	Ozeraiñe-Erribareita	ozeraiñtar-erribareitar
492. Osses—NB	Orzaize	orzaiztar
493. Ostabat-Asme—NB	Izura-Azme	izuratar-azmetar
494. Oteiza—N	Oteitza	oteitzar
495. Oyarzun—G	Oiartzun	oiartzuar
496. Oyon—A	Oion	oiondar
497. Pagolle—NB	Phagola	phagolar
498. Pamplona—N	Iruñea -a	iruindar=irunxeme
499. Pasajes—G	Pasaia	pasaitar
500. Pedernales—B	Sukarrieta*=Samikola	sukarrietar*=samikolar

* * *

501. Peñacerrada—A	Urizaharra -a	urizahartar
502. Peralta—N	Azkoien	azkoiendar
503. Petilla de Aragón—N	Petilla	petillar
504. Piedramillera—N	Piedramillera Miliarri*	piedramillerar miliarriar*
505. Pitillas—N	Pitillas	pitillastar
506. Placencia—G	Soraluze=Plaentzia	soraluzetar=plaentziar
507. Plencia—B	Plentzia=Gaminiz	plentzitar=gaminiztar
508. Portugalete—B	Portugalete	portugaletetar
509. Puente la Reina—N	Gares	garestar
510. Pueyo—N	Puio	puioar
511. Regil—G	Errezil	errezildar
512. Rentería—G	Errenteria	errenteriar
513. Ribaforada—N	Ribaforada Erripazuloaga*	ribaforadar erripazuloagar*
514. Ribera Alta—A	Erribera Goitia -a*	erriberar
515. Ribera Baja—A	Erribera Beitia -a*	erriberar
516. Rigoitia—B	Errigoiti	errigoitiar
517. Romanzado—N	Urraul Ekialdekoa	urrauldar
518. Roncal—N	Erronkari	erronkariar

519. Roncesvalles—N	Orreaga	orreagar
520. Roquiague—Z	Arrokiaga	arrokiages

* * *

521. Sada de Sangüesa—N	Zare	zarear
522. Saint-Esteben—NB	Donestiri	donestiritar
523. Saint-Etienne de Baïgorry—NB	Baigorri	baigorriar
524. Saint-Jean de Luz—L	Donibane-Lohizune	donibandar
525. Saint-Jean-le Vieux—NB	Donazaharre	donazahartar
526. Saint-Jean-Pied-de-Port—NB	Donibane-Garazi	doniandar
527. Saint-Just-Ibarre—NB	Donaixti-Ibarre	donaixtiar-ibartar
528. Saint-Martin d'Arberoue—NB	Donamartiri	donamartiritar
529. Saint-Martin d'Arrossa—NB	Arrosa	arrosatar
530. Saint-Michel—NB	Eiheralarre	eiheralartar
531. Saint-Palais—NB	Donapaleu	donapaleutar
532. Saint-Pee-sur-Nivelle—L	Senpere	senpertar
533. Saint-Pierre d'Irube—L	Hiriburu	hiriburutar
534. Sainte Engrace—Z	Santa-Grazi	santagraztar
535. Saldias—N	Saldias	saldiastar
536. Salinas de Añana—A	(Añana)-Gesaltza	gesaltzar
537. Salinas de Léniz—G	(Leintz)-Gatzaga	gatzagar
538. Salinas de Oro—N	Jaitz	jaiztar
539. Salvatierra—A	Agurain	aguraindar
540. Samaniego—A	Samaniego	samaniegar

* * *

541. Sames—NB	Samatze	samaztar
542. San Adrian—N	San Adrian	sanadriandar
543. Sangüesa—N	Zangoza	zangozar
544. San Martin de Unx—N	Donamartiri-Untz	donamartiriar
545. San Milan—A	Donemiliàga	donemiliagar
546. San Salvador del Valle—B	Trapaga	trapagar

547. San Sebastian—G	Donostia	donostiar
548. Sansol—N	Santzol	santzoldar
549. Santacara—N	Santakara	santakarar
550. Santa Maria de Lezama—B	(Txoriherri)-Lezama	lezamar
551. Santesteban—N	Doneztebe	doneztebar
552. Santurce-Antiguo—B	Santurtzi	santurtziar
553. Santurce-Ortuella—B	Urtuella	urtuellar
554. Sare—L	Sara	saratar
555. Sarriés—N	Sarze	sarztar
556. Sartaguda—N	Sartaguda	sartagudar
557. Sauguis-Saint—Etienne—Z	Zalgize-Doneztebe	zalgiztar-doneztebear
558. Segura—G	Segura	segurar
559. Sesma—N	Sesma	sesmar
560. Sestao—B	Sestao	sestaoar

* * *

561. Sopelana—B	Sopela	sopelaztar=sopelar
562. Sopuerta—B	Sopuerta=Garape*	sopuertar=garapear*
563. Sorlada—N	Suruslada	surusladar
564. Souraide—L	Zuraide	zuraidar
565. Suhescun—NB	Suhuskune	suhuskundar
566. Sumbilla—N	Sunbilla	sunbildar
567. Tafalla—N	Tafalla	tafallar
568. Tardets-Sorholus—Z	Atharratze-Sorholüze	atharraztar-sorholüztar
569. Tiebas-Muruarte de Reta—N	Tiebas-Muru Artederreta	muruartederretar
570. Tirapu—N	Tirapu	tirapuar
571. Tolosa—G	Tolosa	tolosar
572. Torralba del Río—N	Torralba	torralbar
573. Torres del Río—N	Torres=Dorreaga*	torrestar=dorreagar*
574. Trois-Villes—Z	Iruri	iruritar
575. Trucios—B	Turtzioz	turtzioztar
576. Tudela—N	Tutera=Muskaria □	tuterar=muskariar □
577. Tulebras—N	Tulebras	tulebrastar
578. Ucar—N	Ukar	ukartar
579. Ubidea—B	Ubide	ubidear
580. Uhart-Cize—NB	Uharte-Garazi	uhartiar

* * *

581. Uhart-Mixe—NB	Uharte-Hiri	uhartiar
582. Ujue—N	Usua	usuar
583. Ulzama—N	Ultzama	ultzamar
584. Unciti—N	Untzitibar	untzitibartar
585. Unzue—N	Untzue	untzuetar
586. Urcabustaiz—A	Urkabustaiz	urkabustaiztar
587. Urcuit—L	Urketa	urketar
588. Urdax—N	Urdazubi	urdazubiar
589. Urdiain—N	Urdiain	urdiaindar
590. Urduliz—B	Urduliz	urduliztar
591. Urepel—NB	Urepele	urepeldar
592. Urnieta—G	Urnieta	urnietar
593. Urraul Alto—N	Urraul Goikoa	urrauldar
594. Urraul Bajo—N	Urraul Behekoa	urrauldar
595. Urroz—N	(Lizoain)-Urrotz	urroztar
596. Urroz de Santesteban—N	(Malda-erreka)-Urrotz	urroztar
597. Urrugne—L	Urruña	urruñar
598. Urt—L	Ahurti	ahurtiar
599. Urzainqui—N	Urzainki	urzainkiar
600. Ustaritz—L	Uztaritze	uztariztar

* * *

601. Usúrbil—G	Usurbil	usurbildar
602. Uterga—N	Uterga	utergar
603. Uztarroz—N	Uztarroze	uztarroztar
604. Valcarlos—N	Luzaide	luzaidar
605. Valdegovia—A	Gaubea	gaubear
606. Valmaseda—B	Balmaseda	balmasedar
607. Valtierra—N	Balterra	balterratar
608. Valle de Arana—A	Harana -a	harandar
609. Valle de Achondo—B	Atxondo	atxondar
610. Vedia—B	Bedia	bediaztar=bediar
611. Vera de Bidasoa—N	Bera	beratar
612. Vergara—G	Bergara	bergarar
613. Viana—N	Biana	bianar
614. Vidangoz—N	Bidankoze	bidankoztar
615. Vidaurreta—N	Bidaurreta	bidaurretar
616. Villabona—G	Billabona	billabonatar
617. Villabuena de Alava—A	Uriona*	urionar*
618. Villafranca—N	Alesbes	alesbestar
619. Villafranca de Ordicia—G	Ordizia	ordiziar

* * *

620. Villamayor de Monjardin—N	Doneztebe-Deio	doneztebar
621. Villanueva—N	(Aezkoa)-Iriberri	iribertar
622. Villaro—B	Areatza= Billaro	areatzar= billaroztar
623 Villarreal de Alava—A	Legutio= Bilerle	legutiar= bilerlar
624. Villarreal de Urrechu—G	Urretxu	urretxuar
625. Villatuerta—N	Bilatorta	bilatortar
626. Villava—N	Atarrabia= Billaba	atarrabiar= billabar
627. Villefranque—L	Milafranga	milafrangar
628. Viodos-Abense de Bas—Z	Bildoze-Onizepia	bildoztar-oniztar
629. Vitoria—A	Gasteiz	gasteiztar
630. Yanci—N	Igantzi	igantziar
631. Yecora—A	Ekora	ekorar
632. Yerri—N	Deierri	deierriar
633. Yesa—N	Esa	esar
634. Yurre—B	Igorre	igorreztar=igorretar
635. Zabalza—N	Zabaltza	zabaltzar
636. Zaldibar—B	Zaldibar	zaldibartar
637. Zaldibia—G	Zaldibia	zaldibiar
638. Zalduendo de Alava—A	Zalduondo	zalduondar
639. Zalla—B	Zalla	zallar

* * *

640. Zambrana—A	Zanbrana	zanbranar
641. Zaratamo—B	Zaratamo	zaratamoztar=zaratamar
642. Zarauz—G	Zarautz	zarauztar
643. Zubieta—N	Zubieta	zubietar
644. Zugarramurdi—N	Zugarramurdi	zugarramurdiar
645. Zumarraga—G	Zumarraga	zumarragar
646. Zumaya—G	Zumaia	zumaiar
647. Zuñiga—N	Eztuniga	eztunigar
648. Zuya—A	Zuia	zuiar

ENKLABEAK

1. La Puebla de Arganzón	Argantzun	argantzundar
2. Treviño	Trebiño	trebiñar
3. Villaverde de Trucíos	(Turtzioz)-Billaberde	turtzioztar

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRA DELA ETA

Bergara, 1978 - V - 26

Fr. L. Villasante

Jaunak:

Dakizuten bezala, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra irailean egin nahi dugu, hemen, Bergaran. Biltzar hori prestatzeko jarri ziren hiru batzordeek gaur bilera orokorra egiten dute, orai arte egindako lanen berri bata besteari emateko eta guztion artean Biltzarraren egitura gorpuztu edo mamitzeko.

Batzorde bakoitza bere kontu emate lan hortan hasi baino lehen, hitz labur batzuk esan nahi ditut Biltzar horren zenbait puntu nagusi eta zeregin gogoratzeko.

Segur aski, nik esango ditudanez gainera, beste gauza asko ere azalduko dira batzorde bakoitzak egingo duen kontu emate hortan. Osatuko ahal dugu guztiokin plan bat ahalik eta erabatekoena!

1. *Biltzarraren xedea ondo mugatu beharra*

Biltzarraren mugak ondo jartzea: hau da lehenbiziko eginkizuna.

Euskaltzaindiak bi Biltzar egiteko erabakia hartu zuen: aurten Bergaran bat eta heldu den urtean Arrasaten beste bat. Bi Biltzar hoien gaia ere nolabait izendaturik dago. Arrasatekoak euskal gramatika izango du gaitzat. Bergarako hunek, berriz, orai hamar urte batasunari buruz Arantzazun emandako arauak bir-aztertzea, eta hala behar dela ikusiko balitz, sendotzea, osatzea, etab.

Beraz, duela hamar urte batasunari buruz eman ziren arauen inguruan da Biltzar hau, baina, jakina, gai hau berau zabalago edo estuago har daiteke.

Gaiak mugatzea guztiz beharrezkoa da, gaien ugaritasunaz gainez eginak gerta ez gaitezen.

Euskal gramatika baten premia, esate baterako, gaur ditugun premietan handienetakoa da, eta Euskaltzaindiaren zereginetan zerbait zuzen-zuzenean eta bete-betean sartzen baldin bada, Gramatika hori egitea da, noski. Baina hau Arrasaterako utziko da.

Bergarako Biltzarrean, batasunari buruz emanak diren arauak bir-ikustea, eta beharbada zehaztutzea eta osatzea, izango da gai bakarra.

Egia da hori ere Gramatika dela azken batean, baina mugaketa nolabait egin behar da eta horrela eginen dugu.

Arantzazuko Biltzarrean orai 10 urte eman ziren arauak Ortografi sailekoak izan ziren batez ere. Deklinabidea ere bere lerro nagusietan onartu zen. Hitzen arazoa ere ukitu zen, eta Biltzarraren ondorio bezala atera zen gero Batasunerako hiztegia. Ikus *Euskera* (1968), 250 eta 251 orrietan.

Ortografiaren sail berean ondoko urteetan beste zenbait Idatz Arau ere eman ziren: "Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri": *Euskera* (1971), 150. Harridura eta galdera markak non jarri, zenbaki numeralak eta ordinalak nola adierazi, apostrofo eta marratxoari buruz erreglak, etab.

"Loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak": *Euskera* (1971), 156.

"*Ez, Ba* eta *Bait*-en idazkera": *Euskera* (1972), 168.

Nik ez dakit Idatz Arau hauen hauzia berriz ikusi behar den ala ez. Esate baterako, *bait-* aurrizkiaren idazkera aidean gelditu zen, deus erabaki gabe. Marratxoa erabiltzeko eman ziren erreglak ez dakit praktikan balio duten. Beraz, Idatz Arau hauen kontua Biltzarreko gaietan sartu behar den ez den, zuek esan.

Orobat Deklinabidea eta hitzen arazoa ere sartuko ote den, eta sartzekotan zer neurritan, gaur erabaki beharko da.

2. *Batasunerako beste bideren bat eskeintzen dutenei gomit egin beharra*

Hemen, jakina, bada gauza bat ahantzi behar ez dugu-na. Euskaltzaindiak gomendatzen duen batasun bideaz gaine-ra, agian beste bide batzuk ere badirela. Behintzat gurea onartzen ez dutenak badira. Hor da Liturgi Batzordea, hor dira Kardaberaztarrak, hor "Goiz-Argi", Derio, etab. Eta bes-

te batzuek, Euskaltzaindia onartzen dutela esan, eta gero beren bidetik ibili ohi dira maiz.

Esan nahi dudanari igarriko zenioten hunez gero.

Badirudi batasunerako beste bide edo aukera bat, edo bat baino gehiago eskeini nahiz dabiltzala batzuk. Hoiei ere gomit egin beharko litzaieke beren bide hori Bergaran aurkez dezaten, eta denon artean eztabaida dadin.

Uste dut ahaleginak egin behar ditugula –eta hortarako Bergarako Biltzarra ez da une txarra– ahaleginak benetazko batasuna lortzeko euskara maite eta lantzen dugun guztion artean. Denek izan dezatela hitz egiteko era. Hori, noski, erreglamentu baten barnean egin behar da. Iritzietan batasun batera heltzeko ahaleginak egin. Eta hortarako beste bide batzuk dituzten hoiei ere gomit egin.

Bestela badakigu zer gertatuko den: guri bat ere jaramonik egin gabe beren bidetik segituko dutela.

Eta hori gerta ez dadin gure ahala egitera beharturik gaude.

3. *Zenbait hauzi Biltzarrak ukitu beharko dituenak, eta beste zenbait agian ukitzekoak izan daitezkeenak*

Hor dugu, hasteko, H letraren istilua. Duda gabe hau izan da sesio eta eztabaida gehiago piztu duena.

Gaur eguneon ere badira talde batzuk H bat bakarra ikusi eta onartu nahi ez dutenak.

Eta onartzen dutenen artean ere ez dago erabateko batasunik beronen erabilkeran. Eta hortik aitzakia hartuz, farre egiten dute gero bat ere erabiltzen ez dutenek. "Ikusten duzue? –diote–. Berek ere ez dakite noiz eta non erabili behar den. Beraz, hobe bat ere ez erabiltzea"...

Anarkia zerbait badela H-ren idazkeran ezin ukatua da.

Adibide batzuk jar ditzadan: *Alegia* batzuek H-kin idazten dute, beste batzuek gabe; *Aro* batzuek H-kin, beste batzuek gabe; *On* (bueno) batzuek H-kin, beste batzuek gabe; *Ur* (agua) ere ikusi dut inoiz H-kin, etab.

Kontsonante ondokoak kendu beharko zirela ere esan zen, baina gero erregla hori ere ez da beti gordetzen. Hitz konposatu direnetan behintzat ikusten dira hunelako idazkerak: *oinharri, onhartu, Euskalherri,* etab.

Diptongo ondoko *H*-ei inoiz entzun dut kontsonante ondokoei bezalako tratamendua eman behar zaiela. Hori hala baldin bada, badirudi *oihan, oihartzun, saihets* eta horrelako hitzetan ageri den H-a kendu beharko litzatekeela, baina maizenik hoiek ere jartzen dira, nahiz eta ez beti behar den tokian.

Gero hor dago beste auzi hori ere: kultur hitzetan kontsonante ondoko H-a gorde behar den ez den: *Theologia*, etab. Hor ere ez da batasunik ikusten.

Nik behin esan nuen batzarre batean zein probetxugarri izango zen une huntan monografia bat H letrari buruz egin baledi. Dibulgazio mailakoa, noski, baina ondo egina, letra hunen aldeko arrazoiak, etab. emanez eta gero beronen erabilkera legeak zehatz eta argi jarri eta H-dun hitzen zerrenda osoa eginez. Baina lan hori ez du inork egin.

Uste dut letra hunen arazoa ondo lotzeko garaia heldu dela. Beharbada hau da Bergarako Biltzarrak egin lezakeen gauzarik handiena eta beharrezkoena. Ez dut esaten Biltzarrean bertan edo egun hoietan dena ahal izango denik, baina Biltzarraren fruitu edo segida bezala puntu hau ongi lotu eta zehaztua geldi dadila, behintzat.

* * *

Zenbait Euskaltzaindikok eginiko gutuna *Euskera*-n agertu zen: *Euskera* (1977), 207.

Jaun hoiek eskatzen zuten diptongoa hausten den kasuetan eta izen ordeetan bakarrik jar dadila H.

Halaber, bustidura edo palatalizazioa adieraztearen alde agertzen ziren.

Eta orobat, ikastoletan euskalkia euskera batua baino lehen erakustearen alde.

Idazki huni erantzunez Alfontso Irigoienek txosten bat eta nik beste bat egin genuen: Ikus *Euskera* (1977), 208 eta 213.

Eta Alfontso Irigoienek bere txosten horretan kontraproposamen bat egin zion Euskaltzaindiari bustidura adierazten duten marka edo letrak kentzeko erabaki dezala eskatuz, eta bere eskari horren arrazoiak emanez. Beraz, puntu hau ere Biltzarrean ukitu beharko da, agian.

Euskalkiak eta euskara batua: horra beste arazo bat, ene ustez, zerbait argitu beharra dagoena. Euskaltzaindia ez dago euskalki literarioak lantzearen aurka, eta hori garbi utzi zuen Aditz Laguntzaile Batua onartu zeneko agirian. Ikus *Euskera* (1973), 11. Segur aski, idazki mueta batzuetarako egokiagoak dira euskalkiak euskara batua baino. Dena dela, lekua dago bai batarentzat eta bai bestearentzat.

Haatik gauza bat utzi behar da hemen argi: batasunari buruz hartzen diren ortografi arauek euskalkiekin ere badutela zer-ikusi, zeren ortografia bat eta berbera behar baitugu hizkuntza osoan, nahiz eta gainerako gauzetan euskalkian idatzi.

Beste oker-aditu bat ere ikusten da sarri euskalki eta euskara batuari buruz: sinestarazi nahi da, alegia, euskara batua artifiziala, eta euskalkia herriko euskara dela, eta arrazoiketa horrekin jendea azkeneko hunen alde jarri nahi da. Baina euskalki literarioak ere euskara batu batzuk dira, neurri batean artifizialak edo konbentzionalak eta herriko euskaratik aldenduak, mundu zabalean idazteko erabiltzen diren hizkera guztiak bezala.

Hortik atera nahi den pedagogi argumentua ere erdi ustela da, bada. Hortaz zerbait esan nuen Zaldibarko hitzaldian: Ikus *Euskera* (1977), 39. Alegia, gauza bat dela toki jakin batean egiten den ahozko euskera modua, beste bat euskalki literarioa eta beste bat euskara batua. Zer jokabide segitu behar duen irakasleak, hori pedagogi arazoa da, eta erabakitzea ez dakit guri dagokigun. Hala ere, beharbada hortaz argibide batzuk ematea ez legoke gaizki, zeren tiroak hortik ere etortzen zaizkigu: tokiko euskarari bat ere jaramonik egin gabe ari direla batzuk haurrei euskara batua irakasten, etab.

"Euskara batua" izen hau erabiltzen dut konbentzionalki zabaldua eta onartua ikusten dudalako. Zinez, nork asmatua den ez dakit. Azken urteotako kontua dela uste dut. Guztiz egokia den izen hori ere ez nuke esango. Arrasateko baserritar batek hau esan omen zuen behin: "Ze euskera batua, euskera zabaldua behar dogu..." Itxuren arabera, hitz horrek beste zerbait zekarkion hari burura. Dena dela, izenak erroak egin ditu, eta bego hortan.

* * *

A itsatsi edo organikoaren arazoa ere beharbada ukitu beharko da. Hori ere batzuek uste dute euskara batuarena dela eta euskalkian dutelarik arbuiatzen dute. Zenbat gauza holako, baina dena aipatzerik ez dago.

Gero badira beste zenbait letra ere duda sortzen dutenak: C V G J Y Q W izen propio eta kulturazkoetan ageri direnean. Adibidez, nola idatzi behar da: *Vaticano, Vatikano* ala *Batikano*? *Egipto* ala *Ejipto*? *Cuba* ala *Kuba*? *Argentina* ala *Arjentina*? *Iraq* ala *Irak*? *Biologia* ala *Biolojia*?, *Genesis* ala *Jenesis*? *Mystika* ala *Mistika*? *Corpus Christi* ala *Korpus Kristi*? Hitz hasieran beti J jarri behar ahal da, ala inoiz I edo Y ere bai? Esate baterako *jadanik, iaio, yoran* nola idatzi behar dira? Etab.

Demostratiboei buruz ere zerbait erabakitzea beharbada ez legoke gaizki, desberdintasun handiak ikusten baitira: *honek/hunek, hauk, hauek, hoiek, hoik, horik, haik*. Etab.

Demostratibo hoien forma reflexiboaren erabilkeraz ere era berriak —hobeki esateko zaharrak eta orai berrituak— zabaltzen ari dira. *Neure, heure, eure, zeure, zeuen, haren* eta *bere*-ren erabilkera esan nahi dut. Hortaz zerbait esan behar ote du Biltzarrak? Galdez ari naiz.

Ikusten duzuenez, aztertzeko dugun eremua aski zabala da.

4. *Hitzaldiak agintzea*

Biltzarreko hitzaldi ofizialak eta beroien egileak ere ahal dela gaur izendatu beharko dira.

Barne Erregelek diotenez, hitzaldiak batzorde bakoitzak gertatuko ditu eta hizlaria ere berak aukeratua izango da.

Biltzarraren sarrera, nik uste, Mitxelena jaunak beharko luke egin.

Txillardegik egina eta bidalia du jadanik txosten bat Biltzarrerako: "Fonetika batuari buruz" du titulua. Eta beste lan bat agintzen du azentoaz.

5. *Biltzarraren erreglamentua prestatzea*

Azkenik, Biltzarraren erreglamentua edo arautegia ere beharko da arduraz egin, segituko diren prozedura legeak etab. garbi eta zehatz aldez aurretik ezarriz, gauzak zalapartan, itsumustuan edo ezustean egin ez daitezen; baina, beste

aldetik, ordena baten barnean iritziak agertzeko, hauziak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko ibilpide lege batzuen arabera tokia uzten delarik.

Eta hauk dira, jaunak, gaurko bilera dela eta, esan nahi nituenak.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA:

"EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURAREN LEKUKOAK" LIBURU-BILDUMA SORTZEAZ

1978 - VI - 30

Fr. L. Villasante

Mendez-mende, edozein euskalki eta edozein literatur muetatan euskara landu duten autore eta hizlariekin liburu bilduma bat osatu nahi du Euskaltzaindiak —arrazoi bategatik edo bestegatik estudiatuak izatea merezi duten testuak izan beharko dute, noski—. Bilduma hunen titulua: "Euskara eta euskal literaturaren lekukoak". Bilduma huni esker, euskararen lekuko hoiek gaurko ikasle, irakasle, idazle, euskaltzale, euskalari eta abarren eskuetan jartzeko aukera egongo da.

Maiatzeko batzarrean, L. Mitxelena euskaltzainak egindako txostena entzun eta eztabaidatu ondoan, hala erabaki zuen Euskaltzaindiak. Batzarre hortan bertan erabaki zen, baita ere, batzorde bat hortarako jartzea eta egiteko hau batzorde horren esku uztea. Batzordea osatuko duten jaunak ere batzarrean onartu ziren.

Egia esan, kontu hau maiatzeko batzarrean mamitu bazen ere, lehenagokoa da. Martxoko batzarrean Aita Antonio Zavala euskaltzainak beste txosten bat ekarri zuen gai huntaz, eta apirilekoan ere, batzar eguneko bazkal ostean, elkar hizketa zerbait izan zen gai huni buruz.

Bilduma hunen garrantziaz eta beharraz luze mintzatu beharrik ez dago, zeren edonork baitaki, gaur, gure idazle gehienen obrak gehienentzat eskuragaitz direla.

Begien bistan dago, beste aldetik, liburu hauek ez dituztela, gehienetan behintzat, beren buruak ordainduko. Haatik,

euskal literatura eta euskal estudioak bultzatzeko, beharrezkoak dira. Eta gaurkoz, inori izatekotan, badirudi Euskaltzaindiari dagokiola ekintza huntaz arduratzea.

* * *

Orai baino lehen ere izan dira hunelako asmoak eta ahaleginak. Esate baterako, Azkue jaunak, joan mendeko azken urteetan, Añibarro, Ubillos eta beste zenbaiten liburuak —euskararen lekukoak zirelako, noski— bere kontura bir-argitara zituen. Arrazoi berberagatik Urquijok hainbeste liburu zahar eman zigun. Vinson, Dodgson eta beste zenbait ere argitara lan hoietan aritu izan dira.

Ibar-ek *Genio y Lengua* bere liburuan idazle zahar hoien behar gorria salatzen du eta beroiek bir-argitaratzeko plangintza moduko bat eskeintzen.

Neronek ere Euskaltzaindian sartu berri nintzela (1952 edo 1953. urtean) txostentxo bat egin nuen hunelako plan bat Euskaltzaindiari eskeiniz. Gordetzen dut oraindik txosten horren testua. Hunela dio tituluak: "Euskal-liburu sorta argitaratzeko era edo bideaz Euskaltzaindiari txostena". Damurik asmo hau orduan ez zen bete. Agian betetzeko modurik ere ez zen.

Hala ere, azken urteotan, arlo huntan zerbait egin dela ezin ukatua da. Han edo hemen, batek edo bestek, sakabanatu antzean, atera izan dituzte joan mendeetako zenbait autore: Axular, Detxepare, Etxeberri Ziburuko, Etxeberri Sarako, Tartas, Leizarragaren obra ttipiak, Oihenart, Duvoisin, Hiriart-Urruty, Lardizabal, Mogel, Kardaberaz, Hiribarren, Refranes y Sentencias...

Aparteko modu batez aipatzekoa da "Auspoa" liburutegiak egin duen lana. Bertsolarien gauzak atera ditu gehienbat, baina bestelakoak ere ez guti. Adibidez Barrutia, Peñaflorida, Iturriaga, Urruzuno, Vicenta Mogel, Beobide...

Euskera Euskaltzaindiko aldizkarian ere Etxahun-en lan guztiak agertu dira, Haritschelhar jaunak edizioa gertaturik.

Egun, berriz, Euskaltzaindiaren aginduz, P. Lafitte euskaltzain jauna ari da, Charritton jaunaren laguntzaz, J. Leizarragaren edizio berria, hizkuntzari buruzko oharrez hornitua,

prestatzen. Edozeinek daki Leizarragaren Testamentu Berria gaur ez dagoela salgai eta testu horrek, duen balioagatik, euskaltzaleen eskuetan behar lukeela. Lan hunek, Lafitte eta Charrittonek presta dezatenean, gure bilduma huntan izan dezake bere tokia.

Eta badira bazterretan beste zenbait lan eginak edo erdieginak, agian bilduman argia ikus lezaketenak, hartako batzordeak hala epaituko balu.

Esate baterako, duela zenbait urte, Patri Urkizuk erakutsi zidan Haranburu XVII. mendeko idazlearen liburua, dena makinaz aldatua eta argitaratzeko prestatua. Geroztik, nik dakidala, ez du argitaratu, segur-aski biderik, modurik edo aukerarik izan ez duelako.

Apezetxea jauna ere ba omen dabil Lizarraga Elkanokoaren edizioa prestatzen.

Eta orobat G. Elortza jauna Oñatiko Arrazola etxeko esku izkribuekin.

Aita P. Arangurenek ere bildurik ditu aspaldidanik Arrutiren olerkiak garai hartako aldizkarietarik jasoak.

Olaizola kanonigoak Domingo Agirreren eliz hitzaldiak ditu. Eguzkitzarenak ere ba omen dira.

Duela zenbait urte, Aita Uriarteren Biblia osoa mekanografiaz kopiatu zen argitaratzeko asmoz, baina gero, edizioaren kostua ikusirik, dena bertanbehera utzi zen.

Eta zenbat holako!

Beraz, gaia ez zaigu faltako, nik uste. Aitzitik, hautaketa beharko da egin.

Beharbada langileak, edizioen apaintzaileak bilatzen izango dugu neke gehiago eta lan horri laguntzeko ordainketak egin beharko dira, agian.

* * *

Mitxelena jaunak bere txostenean dionez, zer argitara, nola eta nork: hori da hemen ikusi behar duguna.

1. *Zer*. Berdin izan daitezke aspaldi argitaratutako liburuak eta orai nekez eskura daitezkeenak, edo sekula orai artio argitara ez direnak. Prosazko autore, olerkari, bertsola-

ri, teatrogile, edo baita ahozko literaturaren edo ahozko euskararen testigu bezala har daitezkeenak.

Ahozko euskara hunen barnean bi sail egin daitezke oraino: hizkera "suntsikorra" eta hizkera "iraunkorra", Mitxelena berak beste txosten batean erabili duen terminologia hartuz. Esan nahi da: a) herrian jasotako esaera, ipuin, kontakizunak: hau da hizkera iraunkorra; eta b) egunoroko hizketa arrunta: hau da hizkera suntsikorra. Bi hizkera hoiek ez dituzte lege berdinak.

Gure bilduman orotarik srtuko litzateke, bada.

2. *Nola*. Lehen argitaratutako liburuak bir-argitara nahi direnean, Mitxelenak uste du ez genituzkeela lehengo edizioak faksimilean argitara behar, bestela baizik, hau da: inprimaketa berria eginez. Eta hunen arrazoia hau da: edizio zaharrak, dauden-daudenean bir-argitaratuak, irakurle askori kosta egiten zaio irakurtzea, ortografia edo letra moldea dela kausa, etab. Erudito edo espezialista batzuentzat on izan daitezke, baina ez zabalkunderako, eta guk horri ere begiratu behar diogu.

Edizio zaharren grafia oraikotu behar den ez den, eta egitekotan ere, zer neurritan, hori kasu bakoitzean erabaki beharko da.

Edizioak zenbait argibide eta oharrez hornituak egotea ere komenigarri izango da gehienetan.

3. *Nork*. Hortarako gogoa duenak. Esan nahi da: ez da beharrezko prestatzailea batzordeko izatea. Baina lana prestatu duenak batzordeari aurkeztu beharko dio, eta batzordearen baimenik gabe ez da aterako.

Lehen ere esan dut: hunelako edizio baten prestaerak lan asko du berekin eta bidezkoa izango da langileari zerbait ordaintzea.

* * *

Bada beste hauzi bat, bidenabar izango bada ere, ukitu beharrekoa, gerta daitekeena baita. Hara zein: Euskaltzaindiaren bildumaz kanpora, beste norbait antzeko lanetan balebil, guk zer egin behar dugu?

Guk ezin galeraz diezaiokegu inori hunelako lanetan ibiltzea, bistan da. Ez eta ezin inposa diezazkiokegu geure

ikuspuntuak lan egiteko eran. Ez hori bakarrik. Beharbada, denontzat mesede eta guretzat lagungarri ere gerta daiteke beste talde bat autore zaharrak faksimilezko ediziotan argitaratzen aritzea. Era hortara gaiak eskeintzen dituzte guk gero bestelako edizioak apaindu ahal izateko.

Dena den, Euskaltzaindiak sortzen duen bilduma huntan, hemen azaldu diren kriterioekin egingo da lana. Bestek bestela egin nahiko baldin balu, hori beraren esku uzten da.

Eta aurkitzen erraza den liburua edo salgai dagoena, aparteko edo pisuzko arrazoi bategatik ez bada, ez genuke berriz argitara behar, nik uste.

* * *

Batzordearen ezarketa. Edizio gauzetan duten esperientziari ohartuz, maiatzeko batzarrean jaun hauk proposatu eta onartu ziren batzordea osatzeko:

L. Mitxelena
L. Villasante
P. Lafitte
A. Zavala
N. Berriotxoa (Alzola)
J. M. Satrustegi
L. Akesolo.

Lehen tokian aipatua batzorde buru izanen da. Eta bigarren aipatua, idazkari.

Batzorde hunek, hortarako deitzen zaion egunean, bere lehen bilkura eginen du nola lanean hasi etab. ikusteko.

Donostian, ekainaren 30ean, 1978.

Euskaltzainburuak

Eraskina

Ondoko orrialdeetan euskal autore aipatuenen zerrenda bat jarri dugu, mendez sailkatua. Zer esanik ez zerrenda hau ez dela osoa, eta, beraz, hemen ageri ez diren asko eta asko sartu ahal izango direla gure lekukoen bilduman. Beste aldetik, hemen aipatzen diren batzuk gaur bir-argitaraturik daude eta alde hortatik ez dute presa handirik. Osagarri gisa eta

argibide zerbait emateagatik bakarrik jartzen da, bada, izen pila hau.

Euskara eta euskal literaturaren lekukoak

XVI. mendea

Detxepare
Leizarraga
Refranes y Sentencias (1596)
Refranes de Garibay
Sancho de Elso

XVII. mendea

Materre
Haranburu
Etxeberri Ziburuko
Harizmendi
Axular
Silvain Pouvreau
Tartas
Oihenart
Gazteluzar
Belapeyre
Dorré
Argaignarats
Voltoire
Mongongo Dassança
Arambillaga
Haraneder fraidea
Olce
Maytie
Bela (Jacques de)
.....
Beriain
Mikoleta
Kapanaga

XVIII. mendea

Etxeberri Sarako
Xurio
Baratziart
Larregi
Haraneder
M. Harriet
Mihura
Maister
Salvat Monho
Andre dena Mariaren Imitazionea
Lopez
Pierre D'Urte
Robin
.....
Peñaflorida
Ochoa de Arin
Basterretxea
Olaetxea
Larramendi
Kardaberaz
Mendiburu
Ubillos
Barrutia
Gamiz

XIX. mendea

Duhalde
Hiribarren
Archu
Etxahun
Intxauspe
Lapitze
Chaho
Abaddie
Daskonagerre
Haramboure
Duvoisin
Adema
Elissamburu
Frère Innocentius

Arbelbide
Lapeyre
Hazparneko Kalbarioa
Mendiondo (Blas de)
Joannateguy
Hiriart-Urruty
.....
J. A. Mogel
Añibarro
J. C. Etxeberria
J. M. Zabala
Aita Astarloa
Fr. Bartolome
J. Lizarraga Elkanokoa
Juan Bta. Agirre
Gerriko
J. J. Mogel
Ulibarri Galindez
Vicenta Mogel
Iturriaga
Iztueta
Lardizabal
Arrazola etxeko esku izkribuak
Otaegi (Felipe Agustin)
Iparragirre
Eusebio Azkue
Gregorio Arrue
Beobide
Iturzaeta
Unzueta
Arrese Beitia
Bilintx
Soroa
J. A. Uriarte
Aita Arana
Sabino Arana
Manterola

XX. mendea

Barbier
Etxepare
Oxobi
Elissalde
Lhande
Diharasarry
Héguy
.....
Arruti
Etxeita
Urruzuno
C. Etxegarai
Kirikiño
Dom. Agirre
Lizardi
Lauaxeta
L. Jauregi
Landa
Kortazar
R. Azkue

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRA

BARNE-ERREGELAK

1968an Arantzazun egindako Biltzarraren hamargarren urteburuan Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarra gertatu nahi du. Eleizalderen ehun urteburua betetzen denez, Bergarako Mintegian izango dira Biltzarreko lan saioak, sorrerako euskaltzain izan zenaren omenaldi bezala.

Biltzar honek Oinarrizko Barne erregela hauk izango ditu:

1. Euskal idazle, ikastoletako nahiz beste ikastetxeetako irakasle, federakunde, alfabetatze-euskalduntze mugimenduko, testugile, argitaratzaile, kazetari, euskal kultur lanetan diharduen nornahiri dei egiten zaio, beraz. Horietako edonork parte har lezake Biltzarrean.
2. Biltzarraren gai nagusi eta orokorra, hamar urte hontan euskararen arloan emandako arau eta abiada azter eta sakontzea izango da, eta finkatzeke daudenak aztertzea.
3. Biltzarraren Zuzendaritza hiru batzordek daramate: a) Hizkuntzarekikoak, b) Sozio-estadistikako azterketakoak, eta d) Antolakizunekoak. Hiru hoien gainetik laugarren bat da oraino: Batzorde Orokorra.
4. Biltzarreko *Hitzaldiak* batzorde bakoitzak gertatuko ditu, hizlaria ere berak aukeratuta izango da, eta Batzorde Orokorrari proposatua, beronek birresteko.
5. *Txostenak* edonork ekar ditzake, baina epearen barruan jakineraziz. Epe hau, Ekainaren hondar egunean amaitzen da, gaiaren berri emateko, eta Uztailean laburpena bialtzeko. Hamar minutuko luzeera izango du gehien jota.

6. Hitzaldiak, nahiz hizkuntzarekiko nahiz sozio-estadistikarekikoak izango dira, bi barruti hauetako gaia nahasi gabe. Eta berdin egin beharko dute txostenek.
7. Txostenak irakurriko dira denbora baldin bada. Eskubide gehiago dute, noski, Biltzarraren gaiaz zuzenago lotzen direnak, baina izan daitezke txostenak inor konturatu ez den gai bati buruz ere. Gai berberaz direnean, Batzordeak batera, molda edo labur ditzake.
8. Elkarrizketak Zuzendaritzak erabakitako garaian izango dira. Eta muga batekin.
9. Erabakiak Euskaltzaindiak hartuko ditu, hala behar dela ikusiko balu.
10. Biltzarrera etorri nahi dutenek, aurrez izena eman behar dute eta biltzarkide txartela jaso.
11. Biltzar matrikula 1.000,— pezeta izango da eta lan saio denetara joateko eskubidea berekin du.
12. Oinarrizko Barne Erregelez gainera, beste Erregela Berezi batzuk izango dira, aurrez adieraziko direnak: Elkarrizketetarakoak, Antolakizun Zerbitzuetarakoak, eta abar.

BERRIAK

EUSKALTZAINDIAREN LEHEN URRATSAK

Ondoko eskutitz hau jakingarri da Euskaltzaindiaren lehen orduko berri zenbait dakarrelako, batez ere Azkue eta Gregorio Maidagan-i buruz.

Gregorio Maidagan Azkueren laguntzaile edo idazkari izan zen Euskaltzaindiaren etxean. Aretxabeletan (Gipuzkoa) jaioa (1891). Eta Bilbon hila (1961). Apaiza.

Sr. Vicesecretario de Euskaltzaindia
BILBAO

